

Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA

1 ZENB. ABENDUA, 1989



IÑAKI ALDEKOA / LUIS MARI MUJICA / PATRI URKIZU
AMAIA ITURBIDE / PATZIKU PERURENA / ANA TOLEDO
OMAR NABARRO / JUAN LUIS ZABALA / XABIER MENDI-
GUREN / ANDRES URRUTIA / JOSEBA SARRIONANDIA
IÑIGO ARANBARRI / KARLOS SANTISTEBAN / ARANTXA
URRETABIZKAIA / FELIPE JUARISTI / JOXE ERZIBEN-
GOA / JOSE LUIS OTAMENDI / MIGEL ANJEL UNANUA
MAITE GONZALEZ / RAMON ETXEZARRETA / KOLDO
IZAGIRRE



Hegats

LITERATUR ADIZKARIA. 1 ZENBAKIA. ABENDUA. 1989

1

A U R K I B I D E A

SAIOAK

IÑAKI ALDEKOA

Joseba Sarrionandiaren poesia:

Itxasoa gartzelatuta 5

LUIS MARI MUJICA

Euskal kritika literarioaren inguruan . 11

LIBURU KOMENTARIOAK

PATRI URKIZU

Jon Juaristi: *Literatura vasca* (Taurus, 1987) 19

AMAIA ITURBIDE

Hiru poema liburu 25

PATZIKU PERURENA

Irudimenaren labertntoa Hutsik daukagu oraindik 29

ELKAR-HIZKETA

ANA TOLEDO: 33

NARRAZIOAK

OMAR NABARRO

Geu gagoz testigu 41

JUAN LUIS ZABALA

Ez du amaierarik 49

XABIER MENDIGUREN

Larrutik 53

IT'ZULPENAK

XOSE LUIS MENDEZ FERRIN

Percival 65

Itzultzailea: Andres Urrutia

STEPHEN VINCENT BENÉT

Super Flumina Babilonis 71

Itzultzailea: Joseba Sarrionandia

POEMAK

IÑIGO ARANBARRI

Piamontekoak 83

KARLOS SANTISTEBAN

Maitasun elorria 85

ARANTXA URRETAZKAIA

Ortzadarra autopistan 88

FELIPE JUARISTI

Sweet surrender errendizioa 90

JOXE ERZIBENGOA

Heiagora 93

JOSE LUIS OTAMENDI

Lau poema 97

AMAIA ITURBIDE

Kantu Liraina 101

IT'ZULPENAK

EDGAR ALLAN POE

Ulalume 104

Itzultzailea: Migel Anjel Unanua

WALT WHITMAN

Ene buruaren kantua 110

Itzultzailea: Maite Gonzalez Esnal

BOLETINA. AZKEN BERRIAK

2º Congreso de Escritores en Lingua

Galega 115

Nazioarteko Literatur Topaketak

Narraziogintza & Kritika 116

Liburuaren Europako Batzarrea 116

Galeuska Santiagon 117

SARIAK

Literatur Lehiaketa zerrenda 119

Gazteentzako Literatur lehiaketak 121



HEGATS
Literatur aldizkaria
1 zenb. 1989

ARGITARATZAILEA:
EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

KOORDINATZAILEA:
XABIER MENDIGUREN

PARTE HARTZAILEAK
Iñaki Aldekoa, Iñigo Aranbarri,
Joxe Erzibengoa, Ramón Etxezarreta,
Maite González, Amaia Iturbide,
Koldo Izagirre, Felipe Juaristi,
José Luis Otamendi, Patziku Perurena,
Karlos Santisteban, Joseba Sarrionandia,
Ana Toledo, Arantxa Urretabizkaia,
Patri Urkizu, Andrés Urrutia,
Juan Luis Zabala.

MAKETAGILEA:
Lamia
Plazuela del Consejo 3-4º
31001 Iruñea

SUSKRIPZIOA:
BEGOÑA ANDONEGI
Euskal Idazleen Elkartea
Etxague Jeneralaren kalea, 6-behea-eskubia
20003 Donostia
Tf.: (943) 420010

SAIOAK

2

SAIO



IÑAKI
ALDEKOA

*Joseba Sarrionandiaren
poesia: Itxasoa gartzelatuta*

EX LIBRIS



MARCEL LUQUET

LUIS MARI
MUJICA

*Euskal kritika literarioaren
inguruan*




EX LIBRIS
WELLENSIEK
HOLTROFF

IÑAKI ALDEKOA

Joseba Sarrionandiaren poesia: Itxasoa gartzelatuta

Egun batez itsaso izkutuetan barrena noraezean nabigatu zuten ontzien mastaren gainean idatzitako poesia dugu Sarrionandiarena. Gure poetak Homero eta Melvilleren eskutik igaro ditu itsasoak, Stevenson eta Conradekin; asko dira itsasoak, baina bat bakarra, inongo errukirik gabe fatuak —bizitzak alegia— bere azken hitza marrazten duen eskenarioa. Marinel zaharren batek akaso, edo norbere bidaiari zintzo eusten dion lemazainak —bizitzaren eta poesiagintzaren metafora— barneratuko gaitu misterio bat edo fatalidaderen bat gordetzen digun itsaso honetan.

Izuen gordelekuetan barrena-k (1.981) bidaiaren eskema arketipikoenari erantzuten dio. Bere protagonista nagusia Ulyses dugu, liburua zedarritu ahala, izaera mitikoa darien lurralde eta ziutateetan zehar erori gabe nabigatzen. Zazpi lekutara heltzen da ontzia: sorterrria edo abialekua —baina baita helmuga ere— ze Kavafis poetak dioen bazala —eta honetan Sarrionandiak estu estuan jarraitzen dio— “eduki ezazu beti Ithaca zeure buruan/



hara heltzen zarenean bete baita zure fatua”. Berehala dator Paris mitikoa, imajinazioaren sormen hori; geroago Grezia, Lisboa, Irlanda, Praga eta, amaitzeko, herbestea. Bidaiariaren fatua eta paradoja dugun herbestea, bidaiarako gonbitea eta, era berean, bere ukazioa: nora gabeko bidaiia.

Egia esan, ez du liburu honek izan nahi bitakora kaier batean lemazainak zirriboratu dituen oharren zerrenda baino, nabigantearen oroimen ahularentzat itsasorratz eta eustarri bakarra: “Orduan pentsatzen du oroitzapena bederen sostengatu behar duela/eta bitakora kaier bat eskribatzen du, ilunabarrero”. Arestian esan bezala poemarioa bere zabaleran, amasa eman ahala hezurtzen duen nabigante mitikoa Ulyses dugu; eta poetaren imajinazioaren ideia tramazoa animatzen duen poema “Ulyses Ithacara heltzean”. Poema honetan, Kavafisen “Ithaca” hartan bezalatsu, heroia, dagoeneko etxera bueltan datorrela, Ithaca izeneko esanahi izkutuaz ohartzten da eta, asaldatuta, bere martxa sosegatuz, deskubrimenduak ireki dion za-

lantzazko leize zabalaren aurrean plantatzen da: "zergatik itzuli zara Ithacara, Ulyses? ...Akiturik zaude? Laket zaizkizu hiletariak? Egiozu kasu izarren bideari, hegaztiak bezala eta bizitzaz bederen badakien Eumeus zahar honi". Herbestera gonbidatzen du poetak heroia, atsedetik gabeko bidaira.



Bigarren maila batean poetak Europako literatura modernoaren zirrikito majikoak kirikatzen ditu. Paisaje literarioaren esparruan egindako bidaia honetan, berea bezalako arimen gordeleku intimo eta kixkurretan barrena lerratzen da, atrekatzen du uharte bakartietan, hurreratzen dagoeneko aspaldidantik ainguratuta zeudekeen ontzietara, han, hauen ondoan, behiala bitakora kaier batean euren abentura izkribatu zuten nabiganteen hatsa jasotzeko. Bidaia ezezik, poesiari berari eskeinitako omenaldia ere bada.

Sorterriari eskeinitako zatian —beharbada ahulena— Hölderlin-en itzala nabarmentzen zaigu, bidaiari nekagaitza, nonahi egonda ere, bere sorterriari agurrik ukatuko ez ziona. Lizardi, gerraurreko poetarik handiena, omentzen du; eta beste horrenbeste egingo du *Maldan Beherako* Arestirekin, belaunaldi poetiko gazteen aitagoa, Elissanburu, etab... T.S. Elioti jakinarazten dio ez dela apirila hilerik krudele-na... Pariseko estaziotik amodiozko gutun bat idazten zuen bitartean iritsi zitzaion poetari pianistaren bizitzarekin akitu zuen tiro hotsaren oihartzuna. Gutunaren bidez adierazi nahi zion bere maitaleari zenbat maite zuen, baina -nola ez!- zein iraupen kaxkarra zukeen amodio honek; izan ere, ezin baitzuen kanpora bota amodio ezindu baten imajina. Iristen zaizkio baita, betiere urruneko musika jazzaren oihartzun zumeekin endreatuta, prostituten arrenkurak, Baudelaire delako bati zuzenduak zirenak.

Itsasontziaren mastari lotuta Greziako itsas hegia zeharkatu zuen, eta halaxe entzun ahal izan zuen sirenen kantua. Ulysesi lagundu zion bere jauregi-ko atariraino, han ohartu zen, harrituta, nola atea eta sarraila aldatuak izan ziren. Lisboara heltzean Gilgamesh zaharraren negarrak penatu zuen; oso eroria aurkitu zuen Gilgamesh gizarajoa gainera zetorkion he-

riotzagatik, orduan Alberto Caeioren ahotik jasotako hitzekin kontsolatu zuen. Irlandako itsas hegian leienda zelta zaharrak gogoratuko ditu, Ossian, Ophelia zurbila, honekin batera, nola ez egokitu lekutxo bat J. Miranderi, bere kantuekin iparraldeko ametsari gorazarrea eskeini zion poetari. Yeats-en euria, Dublineko kaleetan zehar Dylan Thomasekin batera basu hexagonaletan edandako whiskya etab... Pragako hiria aztertzen du ustekabeen antzemateko zenbait ibiltari isilen maniak: R.M Rilke, W. Holan, F. Kafka. Askok bidaiatu ondoren eta "dama zahar eta zabal bat da Europa" sententziatu eta gero, S. Beckett estutu zuen zalantza nagusitzen zaio poetari, hitzaren eta bere adieraziaren arteko leizea urratzen zaio. Poeta konturatzen denean, harri eta zur, nola ixiltasunaren ahotsa —adierazezina— bere obraren ingurutan pausatzen ari den, estrapuzuka abiatzen da bere azken borondatea idaztera, bere testamentua.

Ideia-ebokazio guzti hauek, eta beste batzuek gehiago —askoz gehiago!— biltzen ditu Sarri-nandiak European zehar egindako bidaiari. Badago ebokazio luze honetan poemario osoa sostengatu nahi duen bigarren ideia nagusi bat, Kavafisen "ziutatea" poemari esker sendotutako intuizioa, hala dio poema honek:

Ez duk aurkituko ez beste itsaso ez beste lurrik.


Ziutatea hitrekin joango duk beti.

*Betiko kaleetara itzuliko haiz
Suburbio berdinetan helduko
zaik edadea;
ze, ziutatea berbera baita beti.
Etzak besterik bilatu.*

Etzegok.

*Ezta hirezako bide edo barku-
rik ere.*

(Henry Bengoa *Inventarium-
etik hartua*)



Poesia modernoak, tradizio sinbolistaren jarrapena den heinean —eta dagoeneko inork sinesten ez duenean analogietan— badaki zein izan den bere lengoaiak jasan izan duen agortze maila. Horregatik erabili izan da adabakia eta collage-a, eta baita ere metapoesia. Gure garaian poesia hoberenak literatur tradizioetik datozkigun isladak nahitaez errefraktatu behar ditu bere literaturan. Ahaztu gabe, betiere, ironia, poeta edozein tradizioetatik urruntzen duena, tradizio hau errepikaezina bihurtuaz. Hauxe da T.S. Elioten —“The waste land”— eta E. Pound baten tradizioa, poesia inglesari dago-kionean; hauxe baita bere poema liburu bakarrean Sarasolak (1.969) entsaiatu bide zuena eta B. Atxagak bere *Etiopia*-n (1978) gauzatua. H. Friedrichek zioen XX. mendeko poesiagintza-ren estilo lirikoaz ziharduela, “estilo hau, dagoeneko Baudelairengandik diseinatua, aurretik zuten ausnartua Novalisek Alemanian eta Poek Ameriketan. Rimbaud eta Mallarmék ezarri zituzten poesiak atzeman zitzakeen zedarriak”. Poeta asko dira XX. mende honetan, estilo intimo hau aberastuz, irakurlearen belarrira hurbiltzen dinerak ideia bat, intuizio bat edo paradoja bat xuxurlatzeko. Horrexegatik dira hain zuzen ahaztezinak Kavafis edo Pessoa edo Auden... bezalako poeten tonoa, erritmoa. Hauetxekin irabazi zuen bere ahots poetikoaren tonoa. Poemarioaren sarreran aurreratzen zigun dagoeneko poetak, “literatura oro literaturaren literatura da”, alegia, tradizio literarioa-

ren oihartzunak isladatzen ditu literatura orok.

Ez da besterik bere narrazio liburuetan dastatu ahal izan duguna. Hau da, *Narrazioak* (1.983) liburuan behin baino gehiagotan kontatzen da, jada aspaldi Coleridgek bere marinel zaharraren baladan ehundutako istorioa; beranduago Baudelairek bere albatrosari eskainitako gorazarrean jaso zuena. J. Sar-

rionandiak bere *Marinel zaharrak* (1987) idazten duenean badaki dagoeneko —baladako marinel zaharraren modura— poeta kondenuatu bat baizik ez dela. Bere narrazioetan —jakina, salbuespenak salbu, “Sonbreru baten istorioa” esaterako— nabarmenagoa da poetaren tonoa lirikoa kontalariaren ahotsaren ondoan. Eta, ene eritzirako “estazioko begiradak” bezalako narrazio laburretan defendatzen da egokien tonoa liriko hau.

B. Atxagak —Sarrionandiak ez bezala— ez zituen kirikatu Europako ziutate eta paraje ilunetan izkutatzen ziren gordeleku zaharrak. Badaki Sarrionandiak legez, eta baita N. Hikmetekin batera, ziutatea norbere gainean daramagula, motxiletan, horregatik *Etiopia*-k —bere espazio eta lengoia poetikoen modu arras marjinalerik— mugaraino baztertu zituen lengoia poetikoaren aukerak, horrela, zirkuluz zirkulu, ixiltasunaren hondarretaraino jaitsiaraziz. Hementxe antzematen dugu Rimbaud eta Mallarmérenaganako bere zorra: probintzia —ixiltasunaren basamortua— alde guztietan dago, zeren munduaren ardatzik ez bait dugu inondik ere begiztatzen, edo, alderantziz, zentru hau baldin bada bazter guztiak bere baitan barnebiltzen dituen. Egia esan, *Etiopia* abiatzen da J. Sarrionandiak bere bitakora kaiera itxi zuen instant berean, alegia, S. Becketten hitza estutzen zuen mordaza begiratzuz, estrupuzuka idatzi zuen testamentua.

Ni ez naiz hemengoa (1985) liburuaren orrietan, zeharka izanda ere, asma bagenez poetika baten antza eduki zeza-keen zerbait, badakit ziur, ez zaiola autoreak berak idatzita-ko poesiari juxtuen egokitzen nola B. Atxagak *Etiopia*-ko orrietan isladatuari. Gartzelako egun-kari honetan lengoaiaren uni-bertsoan barneratzen gara, eta R. Barthes dugu gidari, beste batzuren artean. Bere irakatsien artean dago, bere garaian Mallarmék laguna zuen Dégas pintoreari gogoratutakoa, hau da, ez dela poe-sia ideia eta sentimenduekin idazten, hitzekin baizik.

Bi zati dira funtsean, *Marinel zabarrak* tituluarekin argitaratutako bigarren poema liburu-
 ruan: lehen poema liburutik egindako aukera-
 keta zaindua (berriatzaia) batetik; eta, gartzela-
 ko egonaldian eta ihesaren ondoren idatzita-
 koak bestetik. Bi espazio eta bi tonu —itsasoa
 eta gartzela, “tren luze eta bustietako” iheslea
 ahaztu gabe— garai batean erabat kontrakoak
 gerta zitezkeenak, bilduma osoa inguratzen
 duen ahots nekatu eta etsitu bakarraz harrapa-
 tuta datoz. *Izuen gordelekuetan barrena* liburu-
 ruan ziutatea baldin bazen poetak bere gaine-
 an zerman zama, oraingo honetan gartzela izan-
 go da. Bigarren liburu honetan bildu beharrez-
 ko poemen aukeraketa orduan, ezin izan ditu
 Sarrionandiak, lehendik idatziak zituen zenbait
 bertso, berriatzaia galbahetik iragazi gabe
 utzi. Bere preso egoeratik ez du jada idazten —
 lehenago egingo zukeen legez— “marionetak
 marionetentzat” bezala, “pertsonak pertsonen-
 tzat” baizik. Ez du idazten itsaso zabaletan zehar
 nabigante inkonziienteak egingo zukeen eran,
 sofrimenduak ernarazten duen konzientzia
 argitik baizik, alegia, poetak bere gorputzean
 —marionetak ez du sofrizten, pertsonak bai—
 “munduaren epilogoia” deitzen duen torturaren



urraduren konzientziatik. Horrexegatik bueltatzen dio arrazoia T.S. Elioti, honek zioenean, apirila zela hilerik krudelena. Presoak badaki gartzela apiril luze bat dela, itxarote sasoi luze bat.

Garbi nabaitzen da nola liburuaren testuinguruak markatzen duen irakurketa bera, eta lehen liburutik aukeratutako poemek ere ez diote ihes egiten

poetak ezarritako ahots eta ordena sareari. Sujeritu dugun bezala ez da poemak idazterakoan poetak erabili duen ahotsa —oraingoan bai berea— lehen liburuko poemetakoa. Ahots desengainatu eta gogorrragoa da, badaki ahots honek zintzo eutsi behar diela —bestela galdua baita— bizitza eta memoriari; kondenatuak badaki “bizitza gal ez dadin”, ez diola Pessoren marinelaren bideari jarraitu behar, ezin diola, bere bakardadean, aberri berriak —irakur literatura— imajinatzeari ekin, zeren, ezinbestez, bere nortasunaz eta bere borrokaz, hitz batez bere aberriaz, ahaztuko baita. Horrexegatik dira gartzelako eta ihesaren ondorengo poemetako protagonistak presoak berak eta borrokan eroritako lagunak. Gero eta hertsia goa izatera datorren itsaso honetako —dagoeneko laku bat edo itsaso mortu bat— figura dekoratiboak, esku itsuekin kale ertzetan loteria saltzen diharduten atso zaharrak dira. Heriotzaren maskara eta fatuarena bere dadoak jaurtitzen. *Izuen gordelekuetan barrena*-ko aberria —poetaren Ithaca— poetak berak aukera zezakeen, bigarren honetan inposatu egiten zaio. Itsaso mortu honetara paseko hegaztien bidez, gartzelako sasoi eta denbora geldiak urratuz altxatu hegadarekin, lerratzen dira bakarrik mogimendu zantzuak edo bizitza izpiak. Halare, hegazki hauetxek dira presoan ametsak aidera erakartzen dituztenak, eta hegadan altxatu, Icaro bezala, berehala, gartzelako patioan burrunbaz

apurtzeko. Itsaso mortu honetan ez dago non porturatu, "Mörlandgo portuan ez dago sekula itsasontzirik", gehienez ere itsasontzi naufragatuen oholen artean ageri diren preso arimak —dagoeneko betiko galduta— jasotzen dituen hondartza bakartiak.

Agian, B. Bretchek —entzuten dira liburuan bere oihartzun batzu— gomendatzen duen modura, giza sofrimenduaren aurrean ezer gutxi daukagu esateko. Edota galderak —liburuan horrenbeste— ixiltasuna baino izango ez dutenak erantzuntzat. Irakurleari ere bururatzen zaizkio zenbait galdera, beharbada, lekuz kanpo leudekeenak. Itsaso hertsu honetan ez dago ironiarendako lekurik, ezta ere gehiegi meta-poesiarentzat; eta poesiarentzat berarentzat ere arnasa agortzera dator. Sarrionandiak begiru-



nez beteriko oroimena gorde du Lauaxeta eta Arestirengana-ko —"eta aurrerantzean ere heu bezalakoak izango dituk/euskal poetak". Modu berean gogoratu dira Maïakovski eta Villon, borrokan anaiak eta bera bezala kondenatuak.

Nahiz eta liburuko zenbait poema Arestiren harri esker gaiztoan idatziak izan, inoiz ezingo du Sarrionandiak haren

lengoaia errepikatu; egiaz errepikatu dena zera da, poetaren ahotsa, norbere buruaz eta bere lagunaren izenean lekukotza betetzen: ahazturren oroimen flakuaren kontra jasotako testigantza. Ildo honetatik dator, ezinbestez, bere azken liburua, oharrak eta entseiuak biltzen dituen miszelanea bat —Poek bere apunte eruditoeekin osatutakoari deitu zion izenarekin— *Marginalia* (1988) tituluarekin.

LUIS MARI MUJICA

Euskal kritika literarioaren inguruan

(kritika laburra lan sakonagoen erreferentzian)

Askotan entzun dugu, gure inguruan, ez dagoela kritikarik euskal literaturagintzaz; kritika sendoak eta ongi-burutuak bakanak eta urriak direla; *gazte* batentzat euskaraz publikatzea frustragarria dela, inork ez diola deusetaz deus esanen, oihartzunik ez duela izanen, euskarak berarekin daraman *solipsismo* markaz gain idazleak gure arteko isilune krudela pairatu beharko duela, etabar. Hauek eta beste esan daitezke oraindik. Ongi dakigu, bereziki *gaztetan*, isilune hotzaren egitatea zein gaitza izan ohi den. Hori horrela dela, neurri batean, ez dago ukatzerik...

Manu Lopezek "Kritika eta kritikoak azken euskal literaturan" (*Jakin* 49, 74-84 or.) artikulua dokumentatua auzi hau ukitzen du azken urtetako ikuspegi zenbait emanez. Gutxienez, problematika ukitzen du. Hala ere, zenbait kasutan, informazio osoagoa jaso behar zuen (ezen, eta *Jakin*-ek bere artxibotan dituen datuez gain, bai baitira kritika aski sarriak, adibidez, Mujika honek berak, besteen artean eginak (esate baterako EGUNON orrietan



(*Egin-en*) orain bost-sei bat urte... Josu Landaren "Gerraondoko poesiaren historia" atera zela eta). Manu Lopezek kritika linguistikoak, kritika zientifikoa, monografiak, kritikaren kritika eta kritika "ad hominem" zuhurki aipatzen ditu, besteen artean. Nik esanen nuke, artikulua honek adierazten dituen gain, egon dela euskal kritikarik eta egin ere egiten dela oraindik,

gutxienez, axaleko erreseina laburren plataforma, behin-behinekoa eta *inpresionista*, gainditzeko duena. Dena den, Manu Lopezek beste hau erasten du: "Dauden kritikoak baztertu gabe, badira unibertsitateko azken labealdietatik ateratako ikerlari baliotsuak, gaur egun euskal literaturaren beste arlo batzuk urratzen dabiltzanak, azken literaturaren azterketan busti gabe" (Ibidem, 84 or.). Bai, horixe da kuestioa; kritika literario serio eta astitsurik ere egin da, azken urteotan, nahizta ez hainbeste azken uhinera zuzendua (horretarako ausardia, intuizio handia, asko irakurri-beharra eta errespetua behar baita); goiko kritika hori XX. mendeko autore hildako

batzutara bideratua izan da.

Kritika literariorik euskal eremuan egon den ala ez den esateko *ingururab*egiratzeari aski dugu. Gure ustetan kritikarik badago, eta unibertsitate-mailan edo inguruan eginiko kritika hedatu eta astitsua, beste edozein kritikaren *erreferentzia* objetibala eta orekatsua da. Erreferentzia hori gabe gure euskal kritika "inpresionismo" hutsean, intuizio probetxugarrietan, eraso boluntarista (eta "ad hominem") delakoetan gelditu daiteke. Kritika orok oreka gordetzeko obra aztertuaren ikuspegi *serioa* eduki behar du (ez, nahitaez, lan monografiko baten hedadurakoa, baina bai edukinen plataforma eta baliabide literarioaren ezagumen hurbila duena). Niretzat azken hamabost bat urte hauetan egin den lan berezi zenbait kritika ezmonografikoaren *ildo* seinatzaile eta erreferentziala izan behar luke, bestela, gertatu den bezala, "tremendismoaren" amildegian ito gintezke kritiko beraren sasi-autoafirmazio gisa... Batzuen aburuan zenbat eta jipoi *gebiago* kritika *hobe*a. Aldiz, gerra aurreko eta ondorengo zenbait kritika "ona, bikaina, beraldikoa, primerakoa"-ren tipologia *onkotearen* ildokoa izan da. Eta hori ere ez da irtenbidea.

Nire ustez autore baten obra berrehun edo larehun orritan aztertua izateak bere garantia edo bermea dauka; ez hainbeste, aldiz, erreseinatxo baten ausarkeria tremendistak (nahizta "inpresionismo" onekoa izan...) Adibidez, J. Haritzelharren *Etxahun*i buruzko tesia, J. Kortazarrek *Lauaxetari* buruz eginikoa, G. Aulestiak *Bertsolaritzaz* aurkezturiko tesia, Ana Toledoren *Tx. Agirre*ren nobelgintzaren ikerketa, nik neronek *Lizardi*az larehun orritan eginikoa, bestainbeste *Mirander*en poesiaz (bi tomotan) eta *Euskal lirika tradizionalaz* (680 orritan) atondua, eta azkenik, J. Mari Lekuonak



Ahozko literaturaren inguruan eginiko azterketek kritika hedatuago baten *funtsa* eta *plataforma* dute. Badira, oraindik, beste lanbazuak... Gutxienez, *lirika zaharra*, *Lauaxeta*, *Lizardi*, *Mirande*, *Etxahun*, *Etxepare* (lehenago P. Altunak ikertua, baina neurkerari begiratuta, ez alde literarioari) eta *Orix*e (P. Iztueta ren luman, bereziki, ideologia eta temario aldetik, estro-

fismoa eta neurkera, berriz, G. Etxeberriaren eskutik) aski hurbiletik aztertuak izan dira, eta azterketa hori "kritika" literarioa da, gehienbat.

Ene ustetan, autore baten onarpena ala gaitzespena, goiko idazleen kasuen gisan, azterketa *hurbil* eta *astitsu* batetik, soilik, atera daiteke, ez-eta ideia eta olde "intuizionista" batzuen inpresiotik. Bai, badakit kritika zientifikoa autore batzuen fardeatzeko plataforma bezala ere interpreta daitekeela. Noski, kritika orok ez du izan behar monografia, ezta azterketa huts, baina lan astitsuaren erreferentziatik abiatzen ez den erreseina apriorismoan (eta inpresionismo hutsalean) erortzeko arrisku bizi-bizian dago. Eta hori da aunitzetan gure artean gertatua. Oraindik okerrago, ordea, inpresionismo hutsalari "intentzionalitateak" erasten zaizkionean, kritiko bakoitzaren arauera, adibidez, sinpatia politikoak, talde literarioen hesiak, makurrera pertsonalak direla-eta. Adibidez, ni, *Lizardi* aztertu nuenean sorpresaz ondorio *gaitz* batera iritsi nintzen, alegia, gure olerkaria idazle, trinko eta kreazionista zela, baina *klasizista*, hitz batean, garaiko estetikatik at samar zebilena, *anakronismo* nolabaiteko baten andanan. Eta kritika bera egotzi diot Orixeri geroago ere... Hori ehun edo larehun orritan autore bat aztertu ondoren esatea erreseina bateko baieztapena baino errespetugarriagoa deritzait. Honetaz hau esan nahi dugu, alegia, monografiak ez direla, nahitaez, autore

bat gorestekoa eta onesteko egin behar, egia *desestaltzeko* baino...

Ene jarrera hau da, hots, euskal eremuan ere kritika arinak ikerketa astitsuagoaren *erreferentzia* kontutan eduki behar duela, eta kritika arinak edo batbatekoak ezin dezakeela zerbait transzendentearen funtzioa bete, eta, are gutxiago, "tremendismoarena" autore bat goraiatzeko ala jipoitzeko edo makillatzeko. Gure artean, ordea, horrelako aunitz egin da, eta arestian, itxuraz, orain baino gehiago. Jipoitua gaztetxoa bada a ze purgatorioa..., baldin-eta senez eta ekitez bortitza ez bada! Manu Lopezen artikukuan "kritikaren kritika" eta kritika "ad hominem" delakoak ere azaltzen dira, besterik beste.

Ene ustez, bat-bateko kritikak, hiru-lau orritako kritika balidoek, (eta, noski, orri bateko erreseinek) baldintza batzuk bete behar dituzte. Horien artean hauek jarriko nituzke: a) Kritikariak aski *jantzia* egon behar du liburuan erabiltzen diren edukinak eta, batez ere, baliabide literarioak neurtzeko; trama eta espresabidearen loturak eta sareak aztertzen jakin behar du. b) Kritikariak ez du *erudiziozko* jarrera hartu behar behin-behineko den lan batean, baina bai barne-sareak *serioski* epaitzen jakin. c) Kritikariak korrante literarioen ezagumen aski sendoa eduki behar du, bere epaia liburuaren estiloarekin behar den bezala ezkontzeko. d) Kritikariak ez du, inolaz ere, "beraldikotasunezko" edo tremendismozko jarrerarik hartu behar (ez alde eta ez kontra, orri baten ala hiru orriren geografia urriak ez baitu horretarako legitimaziorik ematen). e) Azkenik, liburu guztia irakurri behar da, ez indizea soilik.

Bai, badakit, behin Mikel Hernandez Abaituak harako hura esaten zuela: "Kritika zientifiko hau (poetikoa) da gure artean gehien des-



preziatu egiten dena. Ez nuke esango desprezio hau oso generala edo zeharozkoa denik..." (*Oh, Euzkadi* 10 zenb. (1.981)). Hernandezek hori 1.981 urtean esaten zuen, eta nik goian aipaturiko lan gehienak geroztikoak dira. Hala balitz ere, ez nengoke bat berarekin, ezen-eta erreseina batean ematen den azken-epaiak beste zerbait astitsu eta hedatuagoaren ildoan egosia

egon behar baitu, jarreraz behintzat. Erreferentzia hori gabe, herri honetan "kritika ad hominem", beraldikotasunaren mistika eta beste luzimendu sasi-kritizista aunitz eraiki baidateke.

Guk, Mujika gisa, beste idazletaz kritika astitsua egin dugu, eta gure produzioaz, noiz-noiz (ez beti, ordea), kritika tremendista jasan dugularik ongi auresumatzen ditugu, kritika batzuen tramak. Inpresio bat aitortu nahi dut. Mitxelena handiak (zuen odolbero eta erre-fama guztiaz) harrituta utzi gaitu EGANen maiz eginiko kritika zentzudun, zorrotz, baina errespetuzkoagatik. Beste arlotan ere, Mitxelenak Lopez de Mendizabalen preiritzi etimologikoak eta Justo Garateren postura filologiko zenbait ia beti errespetuz abordatu zituen. Gure artean, gerora, horrelako jokabideak askotan gaizto-tuak ikusi dira... Eta Mitxelena (idolatriaz edo) jakintsu ez den gauzetan ere "como sea" aipatua izan da, batzutan. Ez dut uste berak halako idolatriarik eskatzen zuenik.


Adibidez, hor daude Orixeren kritikak Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua*-ri zuzenduak, R. Etxezarretak *Jakin*-en nere poesiliburu bati eginikoa, Joserra Gartziak *Bai... baina* ez Mintegiren liburuari eskainia, Juaristiren azken erasoak Mikel Hernandez eta Kintanaren balio literarioetaz, etabar. Hori dena ala ere *anekdota* hutsean geldi daiteke... Adibidez, nere erantzuna R. Etxezarretari ezen behar bezain orekatsua eta trankila izan, erresumina

baino... injustizia baten aurrean sentitu nintzelako orduan ni, oraindik aski gaztetxoa izaki. Izan ere, Ramon Etxezarrerek orri t'erdian gaitzetsi zidana, J.M. Lekuonak —liburu beraren hitzaurrean— ia 30 orritan onetsia eta aztertua zeukan. Etxezarretak irakurri ote zuen Lekuonaren hogeita hamar orritako lan hura, nere iruditeriaz, bisemiaz, metaforismo lorquianoaz, eta-bar, zehazki egina?

Egia esateko, *Jakin*-eko artikulu horretan azaltzen ez den bezala, Mujikak hartuak ditu bestelako kritika positiboak eta luzeagoak ere, adibidez, aipaturiko *Juan M. Lekuonaren* 30 orriko kritika, berrikitan *Mikel Fernandez*en "Aire neturtuak" liburuaren 26 orriko azterketa, neurkera, metaforismoa, metafora "irrazionala" ikertuz (*Tantak*, 1989ko maiatza), eta laister argitaratuko den *Aranzazu Mujika Esnaola*-ren eskutik ehundaka orritako beste lan luzea... Nik kritika —ona ala gaitza— seriotasunezko plataforma baten baitatik soilik hartuko dut, bestetaz muzin eginen dut... Izan ere, ene ustetan, García Lorca, Aleixandre edo Nerudaren poesia sakonki ez bada ezagutzen, ezin da, ene poesiaren jarrera metaforikoa eta "irrazionala" ongi ulertu. Hori garbi daukat.

Jon Kortazarrek, adibidez, gehiago aportatu diola uste dugu euskal kritikari aldian aldiko autoreen azterketaz, ez-eta *Reduccions* liburuan eginiko poesiaren ikuspegi eskematista, partzial eta diskutagarriaz.

Gure artean egin diren elkar-markajeak, gaitzespenak, antologia batzuetako ez-objetibotasun erredukzionistak bere hartan jarraitzen dute, zoritxarrez. Gure OHO eta Batxilergo manualetako edo eskuliburu etako autore kon-sakratu batzuen loria guztiz artifiziala, hutsala, aprioristikoa deritzaigu. Liburu bat edo bi, egin dituen poeta batzutat ezin daiteke korrante



literariozko plataformarik azter, normalki, ez baitago produziorik, ezta ere gune eta funtsa literariorik autore bat halako joeretan ezartzeko. Gabriel Arestiren poesiaz eginiko jarra batzuk estraliterarioak izan dira, seriotasun gutxikoak, poesia *sozialaren* egitekoa, literarioa baino gehiago, maiz "erreakziozkoa" (zentzu onean) izan zelako. Garaiko kritika di-


lendantistak Aresti, azterketa formal handirik gabe, biziki aupatu zuen, beste poesia jarrera literario eta formalistagoak zuzenki eta aktiboki estaliz...

Hau guztia esanda, ene iritzian, kritika literario laburrak beste lan astitsuen (eta monografioen) erreferentzia utzezina du. Berririo nator kritika orok ez duela monografikoa izan beharrik esatera; ezta gutxiago ere. *Intuizio* onak beharrezkoak dira, azterketa semiotiko guztien gain, autore baten olde estilistikoak balioztatze-ko, literaturan, analisiak baino gehiago, *sintesiak* egin eta sormen oldeak aztertzea komenigarria da. Adibidez, J.M. Lasagabasterrek artikuluan batean euskal nobelangintzari eginiko aurre-azterketa, nolabait, "inpresionista" deritzaigu; baina "inpresionista" zentzu onean; inpresionismo bera, ordea, beste autore baten eskutan arriskutsua daiteke, baldin-eta Txuma Lasagabasterrek bezala erdal nobelagintzaren barne sareak, tramak eta prozedura formalak ez baditu ezagutzen. Badaezpada, *inpresionismoa* kritikan *osagarri* izan behar du, aurretikoa, noski, ondo beteta. Bestela, gure erreseinak erraz diletantis-moan eta tremendismo merkean (eta harroxkan) eror daitezke, norberaren fribolitatea (bestearen erasoaz) landuz edo kultibatuz. Horrela ez goaz inora, desautorizazio salbaia- ren erreinu erora ez bada...

Amaituz, bada, kritika puntualak eta laburrak lotura gehiago behar luke kritika astitsu eta

serioarekin. Haren erreferentzia monografia litzateke. Dena den, euskal letren gunetik deskalifikazioa, eraso "ad hominem", besteen kontrakarrean norberaren jakituri justifikazioa egin nahia arbuiatu eta alboratu egin beharrekoa da.

Ene ustetan, gaur egun badago *euskal kritikarik*; kritika hori, noski, beti ez da egun-egungo autoreen langintzara bideratua, baina *Orixe*, *Lauaxeta*, *Mirande* aztertzea kritika *moderno*a egitea da. Bestalde, egungoaren kritikak beti errespetua eta intuizio ikertzaile baten beharra du; ez, noski, erudizio pedantea, semiotika, morfematikoa, etabar aldiro abordatuz, baina bai intuizioa azterketa *formal*



baten ondorendik egiten den zerbait gisa.

Erreseina baten geografia urrian, bada, ez da legezkoa autore baten laudorioetan lehertzea, ez-eta eraso salbaitan galtzea, kritikoak bere *balioa* neurtzeko beste bide hedatu, astitsu eta transzendentegoak aukeratu behar baiditu.

Erreseina baten helburua askoz apal eta umilagoa da.

Kritika labur baten bidez norberaren *autoafirmazioa* egin nahia pedanteria daiteke. Eta kritikariak beti, dena den, besteen kritikaren zain gelditu behar du...

LIBURU KOMENTARIOAK

3

KOMENTARIOGILE



PATRI
URKIZU

Jon Juaristi:
Literatura vasca

AMAIA
ITURBIDE

Hiru poema
lliburu

PATZIKU
PERURENA

Irudimenaren laberintoa
Hutsik daukagu
oraindik





JON JUARISTI, *Literartura Vasca, «Historia Crítica de la Literatura Hispánica»* 29, (Taurus, Madrid 1987).

Irakasle azkar eta zorrotz honek kritikak ematen ohi dituen erremintez hornituz eta baliatuz liburu paregabe bezain kritikagai dena argitaraberria digu euskal literaturaz.

Badu ere jadanik poeta eta idazle gazteen artean jarraitzailerik —ez dakit, egia esan, beren buruak «juaristiano»tzat dauzkatenek zertan jarrai diezaioketen, hala bertso nola saiogintzan—. Hara non, bada, gurean kritikarik ez dela aldarrikatzen den unean topatzen dugun kritikari eskola bat ere.

Pozgarria litzateke benetan, baina jitez edo baserritarkeriaz beti lehen itxurekin gutti fidatu garenoi Jonen lanak irakurri ondoren halako susmo txar eta isilik ezinegona sortu digu. Baina, lehen uste eta mesfidantza honek benetazko arrazoirik eta oinarririk bazuenentz ziurtatzeko liburuaren berrirakurketari ekin diogu. Orriz-orri hainbat eta hainbat esaldi eztabaidatsu aurkitu baititugu, hona hemen gure iduriko

bertan arinegi eta zehaztugabe esaten direnez, hala nola axalezko akats ugariez gogoeta apal batzuk, bai irakurleari eta bai liburugileari berari baliagarri eta ongarri izango zaizkiolakoan idatziak.

I. Euskaraz

Hitzaurrean euskararen gorabeherak alde batera utziko dituela esaten badigu ere, literaturaren ikuspegi orokor bat eskaini ondoren «La Lengua Vasca» deitu kapitulu gehigarri bat dakar (137-144), sobera dena ene ustez, bertan ematen baitigu egundaino ezezagun zitzaigun hizkera berri baten albisteak, «vasco-aragonés»-a (138). Zazpi orriotan jakiten dugu ere nola 1968.ean hasi zen euskara batuaren arazoa, gurekiko geundenean arazo zahar bat zela, eta guttienez menderdi bat lehenago 1918.ean, hain zuzen, Oñatiko Biltzarrean eta Euskaltzaindia sortu, zenean jadanik gaiak arduratuak zirela Eleizalde eta besteak.

Jakin eta ikusi nahi nuke ere nolako aurpegi irakurtzen duten nafarrek beste hauxe, «sólo el laburdino, el guipuzcoano, el vizcaíno y el suletino han sido objeto de cultivo literario» (10), eta beren hilobietarik jalkiren balira zer erranen luketen Detxeparek, Monhok, Mendi-buruk, Etxeparek, Barbierek, Zubirik, Irigara-yek eta beste hainbeste eta hainbestek. *Batipat* eta *bakarrrik* ez baitira, noski aditzondo berdinak.

Esaten digu ere nola euskarak behekoekin mintzatzeko balioa izan duen soilik (15). Zail zait, ordea, hala balitz ulertzea, ahaide nagusien arteko borrokak zirela eta, adibidez, Santxa Otxoa Ozaetakoak bere senar hilari eskainitako eresia *ingurune zeharo erdaldun batean kokaturik*.

Detxepare aitzin ez omen zen inor arduratu euskaraz eta hauexek ditugu idatzitakoak hitzez-hitzez: «Una lengua que había sido mantenida hasta entonces —y valga la paradoja— en el más absoluto mutismo» (39).

Ez dirudi hau ere oso egia denik, topiko baten errepika oihartzuna baizik, ezen Errenazimenduko humanista jakintsuak, kasuko L. Maríneo Sículo (*De rebus Hispaniae memorabilibus*, 1533.) eta Ch. de Bovelles (*Liber de differentia vulgarium linguarum*, 1533.) euskaraz arduratu baitziren, bai K. Mitxelenak¹ aspaldi eta bai neronek² oraintsuago adierazi dugun bezala.

Euskalkietako literaturaz ari zaigularik, eta larramendiren jarraitzaileez zuzenki hauxe diosku, «todos ellos naturales de Guipúzcoa y escribieron sus obras en el dialecto de esta provincia» (60) Jakin beharko luke, noski, probintzia honetan hiru euskalki mintzo direla, eta G. Arruek, esate baterako, Mendiburu gipuzkerara itzuli zuela, eta Kardaberazek bizkaieraz idatzi zuela liburu bat baino gehiago irakurle bizkaitararentzat. Komentariorik ez.

II. Ahozko literaturaz

Interesgarriak dira benetan Jonek egiten dituen oharra azkozko literaturaz eta gonbaratzen dituenean Europako beste herrialdeetan ematen diren literatur mota berdintsuekin, eta, batipat, gatzelarrarekin. Halere, baieztapeak errazegi eta arinegi eginak dira, «parecen», «suenan», «sugiere la posibilidad» eta horrelakoen ondoren ziurtatzeari «la canción narrativa en euskera incorporó y asimiló motivos y fórmulas procedentes del romancero castellano» (18) frogazehatzago eta sakonagorik gabe ez baiteritzogu zilegi.

Baieztatze zenbait, gainera, okerrak dira.

Adibidez, bertsolaritaz dioenean «no hay noticias de que se practicara en el País Vasco antes del siglo XIX» (20) edota «el iniciador de la recolección moderna fue un paisano de Oiherart, Joseph Augustin Chaho» (22). M. Lekuonaren idazlanak horren kontra baliagarri direla uste dut, eta neronek laister argitaratzeko den liburu batean³ argi eta garbi uzten dut XVIII. mendean jadanik izan zirela Euskal Herrian saiatu zirenak garaiko bertsolarien eta zaharra- goen bertso eta kantak biltzen.

Antzertiaz dioenak ere «Posiblemente la tradición teatral de Soule podría remontarse a los siglos XVI o XVII, pero no existen noticias de la misma hasta finales del siglo XVIII» (27) Jonek aipatzen duen bibliografia bera ez duela ondo irakurri adierazten digu. Hala izan balitz ohar baitzitekeen Christian Desplat-en liburuaren⁴ sarreran Jakes Belakoaren (1586-1667) aipamen adierazgarri bat agertzen dela bere garaian Behe-Nafarroan eta Donapaleun, hain zuzen, egiten ziren astolasterrez. Hauek, noski, Eleizak bigarren ezkontzak onartzen zituenek, eta ohi-tura onen aurka zihoazenez Mauleko abokatu protestantak gaitzesten zituen.

Presaka eta laisterka idatzitako esaldiak nabarmanetzen dira maiz. Hala, dioenean, «En 1875 se publicó la primera colección de cuentos tradicionales vascos (F. Cerquand, *Légendes et récits populaires du Pays Basque*)» (23), berak ondo ezagutu arren⁵ Goizuetarenak⁶ (1851) —urte batzuk geroxeago portuguesera itzuli zirenak— Michelenak⁷ (1859) eta Arakistainenak⁸.

NOTAS

1. L. Michelena, *Textos Arcaicos Vascos*, Minotauro, Madrid 1964, 146-147.

2. P. Urkizu, «Euskara XVI-XVII. mendeetako zenbait idazle atzeritarrengan» *ASJU* XX-2 (1986), 343-350.

3. P. Urkizu, *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma 1798*. «Durangoko Euskal Jaiak 1886-1986» Saio saria.

4. Ch. Desplat, *Charivaris en Gascogne. La morale des peuples du XVIe au XXe siècle*, Berger Levrault, Paris 1982.

5. J. Juaristi, *La tradición romántica*, Pamiela, Iruñea 1986.

6. J.M. Goizueta, *Leyendas Vascas*, F. García Pedros, Madrid 1851.

7. F. Michel, *Le Romancero du Pays Basque*, F. Didot, Paris 1859.

III. Detxeparez eta Leizarragaz

Zein literatur arrazoitan oinarritzen zaigu Juaristi Detxepare mespretxatu eta arbuiatzeko? Modernitatearen izen sagaratua baitan? Urquijo eta Lafitteren eritzietan? Baina, zergatik ez Lafon, Mitxelena eta Altunaren esanetan? Euskararen ezagutza sakonago eta aurre-eritzi gutxiago duten idazle unibertsitariengan? Aski ote da «primitivo»tzat idazle bat jotzea bere idazlanak gutiesteko? Ez dut uste horrek inongo baliorik ken diezaiokeenik ondo taxaturiko poema liburu bati, alderantziz baizik, xarma berezi batez jazten duelakoan nago.

Detxepareren argitaraldiez dioenean Juaristik «Ignorándose si existió alguna edición anterior o posterior a la de 1545» (31) argi eta garbi uzten du ez duela irakurri Oihenartek⁹ euskal literaturaz idatzi zuena XVII. mendean, bertan esaten baitigu Detxeparek ezagutu zuela beste edizio bat Erroanen, Adrian Morront-en moldiztegian.

Leizarraga aztergai hartzen duenean haxe idazten du, «Es probable que Leizarraga, como Wyclif o Coverdale, desconociera el griego y el hebreo» (32). Dirudienez, ezezaguna du eta ez du irakurri ere R. Lafonen tesia¹⁰, honek klarki frogatzen baitu Testamentu Berriaren itzulpenarako Leizarragak bai Pierre Rober «Olivetan»-en frantses itzulpena, bai Vulgata eta bai grekerazko bertsioak erabili zituela.

Hiztegiak diharduelarik haxe dio izan zela Leizarragaren helburua, «construir una lengua lo más alejada posible del euskera coloquial» (43). Nondik nora, ordea, ondoriozta dezake

horrelakorik, Leizarragak berak «Hescualduney» zuzendutako aitzinsolasean idazten zuenean «ahalic guehiena guciey adi eraciteari iarrei qui içan gaitzaitza». Beraz, ahalik eta euskaldun gehienei Jainkoaren hitza helarazteko asmoz idatzi zuenean eta Lafonek erakusten digun legez, hizkuntza erromanikoetarik hitz pila hartu zuenean, noski, herriak ongi aski erabiltzen eta ulertzen zituenak. Luterori jarraikiz, bada, irakurle guztientzat idazten zuen. Honek, Bibliak bere zabalkunde handiaz eta giristinoen baitan Jainkoaren hitzak zeukan sagaratasunaz, alemanaren batasuna lortu zuen eran, Leizarragak ere euskararena sor zezakeen, baina aukera hau euskaldunok, tamalez, galdu egin genuen XVI. mendean.

IV. Urre eta intzentsu mendeaz

Ezin zaio ukatu Joni gaztelaniaz idazten duenean ironia ez dakienik erabiltzen, eta literatura kokatzen duenean bere garaiko giroan, giza-kultur ingurunean, ez duenik asmatzen batzuetan, baina... nabarmentzen zaio ere euskal literaturari buruzko lan argigarri ugari irakurri gabeak dituela. Bestela, adibidez, Axularrez ez luke horrelakorik idatziko, «estudió, según parece en Salamanca» (53), I. Mitxelenaren idazlan batean¹¹ garbi aski agertzen baita Axular 1595.ean egin zutela Batxiler Teologian eta arlo honetako ikasketak hasteko betebeharezko baldintza zela Arteetan Batxilerra izatea. Beraz, eta A. Irigarayek beste artikulua batean¹² argitzen duenez, ez zituela ezagutzen bakarrik Aristoteles eta Seneka, Plauto, Plutarko, Marzial, Diogenes

8. V. Araquistain, *Tradiciones vasco-cántabras*, Provincia, Tolosa 1866.

9. A. d'Oihenart, *L'Art poétique basque* (1665), avec une introduction de Pierre Lafite, Gure Herria 1967, 37. or.

10. R. Lafon, *Le système du verbe*

basque au XVI^e siècle, Elkar, Donostia 1980, 56-57.

11. I. Mitxelena, «Axularren titulua» *FLVIX* (1977), 57-59.

12. A. Irigaray, «Axularren berri gutti ezagunak» *FLV VI* (1974, = *Homenaje a Axular*), 123-129.

Laerzio, Juvenal, Jon Krisostomo, Agustin Hiponakoa, Martin Azpilikuetakoa eta beste autoreen zatiak itzulikatu baitzituen lerdenki, Fray Luis de Granadaz gain.

Aipatzen eta izendatzen ez dituen ez naiz arituko, baina betiko topikoa errepikatzea deritzogu esateari, adibidez, Sarako Etxeberriekin ixten dela lapurterazko literatura, ezen, orduan non kokatu beharko genituzke Larregi, Duhalde eta Juaristik hain ondo ezagutzen duen Chahok¹³ hainbat goraiatzen dituen Robinen bertsoak?.

V. Tradizioaz eta modernitateaz

Balirudike Juaristiren indar guztiak —hoberik ezean— euskal literatura, izen hau merezitzeraz iristen baldin bada, atzerakoi eta kontserbadore huts dela, eta ez dagoela besterik erakutsi nahiz xahutzen direla. Geure aldetik ez dugu ukatuko, nabarmena baita, apezena izan dela batipat gure literatura, eta Mitxelenaren hitz berberetz, urria, berankorra, exkaxa eta mugatua izan denik, baina ezta egia ttipiagoa XVIII. mendean Ilustrazioaren eta Enziklopediaren ideia berrizaleak Euskal Herrian sartu zirela lehenik, eta geroago hemengo ekintzak eredu antzo Espainia guztira barreiatu zirela. Halaber, Iztueta «zuria» preso egona bere erlijio ideietatik, zeinaz esateak dantzei buruzko liburu bat eta Zaldibiaren kopia soil den Gipuzkoako Historia bat idatzi zuela, bai Mitxelenaren¹⁴ eta bai Garmendiaren¹⁵ lanak ezezagutzea adierazten duen, Iztuetak askorik idatzi baitzuen.

Gogoeta berdintsuak egin genitzake Xaho, Etxahun, Bilintx eta XIX. mendeko beste idazle askotaz; beraz, ez dugu uste Juaristik iduriz nahiko lukeen bezain mugatu denik euskal eremua. Bidenabar, dioenean, «la creación en 1886 del Semanario Euskalduna de Bayona, dirigido por el sacerdote Jean Hiriart-Urruty, publicación que se ha perpetuado hasta nuestros días» (65) ez digu zergatia agertzen, alegia, Eskualduna 1887. urtean Louis Etcheverry diputatuak sortu zuela, Berdolyk 1886.az geroztik ateratzen zuen Le Réveil Basque-ri aurka egiteko, eta bai hemen bai lehenagoko L'Avenir egunkari errepublikanoan, eta Xahoren L'Arielen euskal literaturak leku aski zabalik izan zuen.

VI. Pizkunde aroaz

XIX. mende bukaerako antzerti pizkundeaz hauexek ditugu Jonen hitzak, «Este renacimiento teatral no pasó de ser un fenómeno estrictamente donostiarra» (85). Ez da hau ere egia, Soroa, antzerti berriaren aita bezala izendatua izan denaren antzerkiak, hala nola beste zenbait antzerkigilerenak, Gipuzkoa osoan zehar antzeztu baitziren eta Azkuek Bilbon hasiko zuen mugimenduaren eragile izan ziren, eta ez soilik Bizkaian, Iparraldean ere eman baitziren pastoralak, maskaradak eta astolasterrez at beste teatro bizi-bizi baten adierazpenak¹⁶.

Arinegiak, zehaztugabeak eta okerrak diren hainbat esaldi botatzen ditu, beste batekin aski izango dugula oraingoz. Hala, dioenean Urquijo, «el fundador de la literatura comparada

13. «composa une satire en trente neuf couplets, véritable chef-d'œuvre du genre gai et caustique, dont il serait difficile de trouver l'équivalent dans la littérature populaire d'aucune autre nation de l'Europe.» J.A. Chaho, *Bia-rritz entre les Pyrénées et l'Océan. Itinéraires pittoresques*, A. Andréosay,

Baiona 1855, 170. or.

14. L. Mitxelena, «Iztueta, testigo político de su época», in *Euskal Herria (1789-1850)*, Actes du Colloque International d'Etudes Basques, Société des amis du Musée Basque, Baiona 1978, 167-180.

15. J. Garmendia, Iztueta'ren Olerkiak, «Kardaberaz Bilduma», Tolosa 1978.

16. P. Urkizu, «Euskal Antzertia Iparraldean (1867-1939)» in *Euskal Antzertia, Le théâtre Basque*, Université de Pau et des Pays de l'Adour, Baiona 1987, 39-52.

vasca» (92) izan zela, ahantzirik bai euskaldunak eta bai arrotzak, adib. Oihenart, Michel, Vinson, Webster, etabar, okerbidezko iritzietara darama irakurlea, gure uste apalez, egoki ez dena.

VII. Gerraondokoaz

Egia bada gerraurreko pizkunde aroko urte oparoen ondoren izugarritzko garai estu eta xairoa pairatu zuela Euskal Herriak, ezin daiteke esan Lafitteren bibliografia ezagutuz¹⁷ eman zenik, «un paréntesis editorial de ocho años» (105).

Halaber Zaitegiz esatea, «se ajustaba, en líneas generales, a la poética de Euskaltzaleak anterior a la crisis de 1934» (105) okerra da, ene irudiko, ezen klasikoen ezagule handi hark, jadanik Oñan Baudelaire irakurria eta itzulia zeukan, eta erbestean, European zehar eta Ameriketara ibili zenean Longfellow, Wordsworth, Verdaguer, Maragall, Muset, Sully-Prudhomme, Gautier, Coppée eta beste anitz ongi irakurri eta ezagutu baitzituen.

Badirudi ere zentsuraz oso kezkatutik dabilkigula Jon. Hori dela eta *Egari* buruz esaten digu, «sólo había admitido hasta entonces colaboraciones en castellano» (107), baina nik dakidalarik lehen alea 1949.ekoa da eta bertan E. Arreseren poematxoak eta Mayi Ariztiaren ipuin bat agertzen zaizkigu, noski, euskarazko idaztiak gero eta ugariago agertu zirelarik, azkenean euskaraz oso-osorik argitaratzeraino.

Bukatzeko errepasotxo hau esan dezadan ez zaidala batere egoki kritikari baten ahotik entzutea azken hamartean eman den literatur

mugimendu ugariak, «De los más jóvenes, apenas puede decirse nada, por el momento» (134) eta horrela besterik gabe likidatzea eta ihes egitea zezenaren adarretarik, ezen onerako ala txarrerako, hoberenesteko ala gaitzenesteko kritikariek beren eritziak ongi oinarrituz azaldu behar dituzten.

Axalezko akatsak zenbaitentzat bigarren mailakoak eta garrantzi guttikoak lirateke, eta denok dakigu, ongi jakin ere, zenbat amorrazio sufritzen den eta zenbat borroka egin behar den inprimategiarekin gauzak txukun argitaratzeko. Baina, kontuan hartu behar da ere akatsek sakonagoa den beste zerbait adierazten dutela askotan, alegia, presegi eginiko lana, lan ongi bukatuaren mespretxua, axolagabekeria, eta azkenik irakurlearekiko errespetu exkaxa.

Tamalez, gorago aipatuez aparte, Jonen liburuan pilaka dira horrelakoak, eta ondoren emango ditugu zerrendan bigarren argitalpen bat egitera animatzen bada ezinbestekoak diren zuzenketok, bederen, buru ditzan:

«En 1954 el jesuita M. de Larramendi (14), Bodatzen (20), Peilhen (23), Brabante ko (26), Barcús (26), facecia (28), iq hasteco (34), Unamuno, (1846:422) (37), maneran (41), desconcentos (44), Devoten breviariora... (1636) (49), elkarguçu (50), Arcángelo (50), Birjina Ama ziadukak / arrosa bezain ederra (51), Erkontidaren hilhexua (52), Joana d'Erdory (52), hontan (52), Darricarrére (56), Bardocoitçera (57), ayuta (57), ressendimenda (57), la ciudad de Roma que llaman Cayeta (58), erraren (59), famatu erranez (59), daro-

17. M.I. Goikoetxea, «Bibliographie de Pierre Lafitte» in *Hommage à Pierre Lafitte* (= *Bulletin du Musée Basquen* 113-114), Baiona 1986, 189-206.

çunean (59), Neuburgo (59), Berdok (62), mereziaren (62), paguerreal (62), Euskal Esnalea (63), 1879 (64), 1760 (65), Barçús (72), hirurogei (73), paloma (73), Pierres (75), gainian (75), Louis-Lucin (76), de varias traducciones del Thélémaque (76), Pierres (78), Ganic (78). En 1812, el Baso-Juan (78), 1879 (82), pasatista (83), Yours (91), Izkue (91), John Etxaide (92), baxilera (92), componen (96), serpiente (96), Chanok (97), lau (98), beeko (100), azkia (100), arre (100), maite (100), zergaitik (100), banoa (101), zezura (101), emojiari (101), ôk (101), todas (101), âl (101), con la manía logicista y neologizadora de los puristas (102), euskera berri (103), que (103), Apraix (104), Ekaitzapean (105), Joainixio (105), zizkion (108), otorga (109), Peilhen (109,110), Miranda (110), agamine (112), Peru Leartxa-ko (115), Elsa Schleen (115, 124), eramateko makinez (120), Edonundik (121), Deusto (122), Hickunzetako (122), Ar- t-ze (127), Pormagintza (127), in tribulatione mea (129), Int-xausti (129), entz-uten (129), zuritsuetan (129), dutez (129), at-zean (130), iraultzalea (130), ziutat (130), ono (132), esperatzeko (132), bax 9141), arratsale (143), forman (143), La Convención es... (153), Narratibaren azaroak (154), Euskal Teatroaren Historia... 1978 (156), Nil igitur mors est (160), Gauez parke batean, Bayona (160), Euskal literaturen 72 (161).

Ohar daitekeenez irakurlea ez dira soilik ematen oker hitzen formak, azentuak eta silabak, bertsolerroak aldatuak irakur daitezke ere, eta bertso batean lau irakurketa gaizki eginak badira. Itzulpenak, datak, errebisten izenak eta liburuenak oker agertzen dira orobat. Guzti honek gorago aipatu dugunaren seinale nabarra ematen digu.

Oroitzen naiz duela urte mordoxka Lázaro irakaslearekin kritika berriaz lan bat prestatzen ari nintzenean adierazi niola, nola euskaraz baziren eskuizkribu anitz oraindano argitaragabe zirenak. Uzteko kritika lan hura eta lantzeko antzertiaren hesparrua erantzun zidan.

Urteak iragan dira ordudunik eta Juaristiren lanak oroitzapen eta gogoeta hauek eragin dizkit. Oraindik euskal literatura ez dugula ezagutzen ez sakonean ez axalean, eta zail izango dela, beraz, ikuspegi orokor bat ematea tajuz —azken urteotako ikuslari aparta izan arren— ez badira aurre-baldintzak behar bezala betetzen. Alegia, argitaragabe diren euskal eskuizkribuak plazaratzen, eta hainbat eta hainbat autoreri zor zaion ikerketa sakona eskaintzen ez zaion bitartean. Eta, orduan, akaso sorpresa handiz jakingo dugu euskal literaturaren eremua ez dela pentsatzen genuen mortua, lili finez beteriko baratze eder bat baizik. Bitartean outsider zenbaiten lanak txit mugatuak izango dira, eta porrot egingo dute euskal literaturaren historia kritiko bat epaitzerakoan. Mesede kaxkarra egiten zaio, beraz, irakurleari eta azken finean literatura berari horrelako ikuspegi mugatu, murriz eta bereziekin ia bakarrik elkarrenganako harremanak desegiteko balio baitute, elkar ezagutzabidean lagundu ordez.



AMAIA ITURBIDE

Hiru poema liburu



APURTUAREN OREKA

Poesiak definitzerik balu, *Hiriaren malenkonia* poema-liburua sensibilitate gozoz perfumaturiko diarioa bezala definituko nuke, non etengabe apurtu eta sortu, jaio eta hil egiten den poetak itxaso bigun baten uhin-pleguetan nabegatzen bait du. Novalisek esandakoa gogorra datorkit, hau da, egun batean dena gorputza izango zela, zeren aitorpen-kutsua duten orri hauetan zehar, gorputza hedatzen bait da barne-mapa inmenso bat bezala eta gorputzarekin sensualitatea, abots leuna eta halaber mindua poemen hitzen atzean izkutatzen dena. Aurpegi izkutu horrekin kontaktatzen gaituzten zubiak metaforak dira, bestalde urruneko lurraldea (larrualdea) ukitzen duten beso luze horiek. Eta *Hiriaren malenkoniaren* azal mugagabearen barrenean sartzen garelarik, metafora da nagusi,

metafora bait da lerro batetik bestera garamatzana, orri batetik bestera, betiere hurbil daukagun gorputza urrunera bidaia egiteko untzia delarik, kanpo eta barnearen arteko lokarria.

Hitzen kateatze-jarioan, espazio eta denbora anitzen gurutzaketa irakurtzen dut, iragana, oraina eta geroa, elkarren ondorioak direnak, marmorezko mahaiaren gogortasunaren gainean oihalaren samurra, guztia oreka batean edo, hobe esanda, oreka apurtuan. Esan nahi dut, Felipe Juaristik eraiki duen unibertso poetikoan hainbeste garrantzia duela egiteak nola desagiteak, osotasunak nola apurketak, eta dinamika honek nolabaiteko arintasuna opatzen dio irakurketari.

Ez da falta egunerokotasunak ematen duen filosofia, sakelan kabia egin ondoren ateratzen diren esaldietan adierazia. Teoria haundirik ez, baizik eta mundutik ibiltzeko balio duten esaldiak, batzutan zalantzan lainotuak, galdera erretorikoen bidez zizelkatuak.

Badakigu jakin, bestalde, poemetan hitzak azken hitza duela, ezin daitekeelako lekuz aldatu, dagoen-dagoenean hartu behar delako, baina hitzak ere traizioa gordetzen du, denborak deusezta dezakeelako. Aho biko ezpatarekin dantzari trebea behar du izan poetak. *Hiriaren malenkoniaren* hitza bera da aldare, giroa (poema batek iraun dezan hain zaila eta era berean hain ezinbestekoa dena) lortua dagoelako. Eta lorpen hau luma zalu baten ondorioa da.





USAIN ERREA

“Jakinak dira euskaldunen hagineta-ko minak” zioten bertsoen garaitik hona denbora nahikotxo igaro arren, ez dago zalantzarik euskaldun batzuei ez zaiela mina (euskalduna izateak dakarren mina) jabaldu, alderantziz baino, biziagotu; Bitoriano Gandiagari, kasurako. Eta gehixeago zehaztuko nuke: min zaharrik gabe umezurtz aurkitzen dela Gandiaga, oinazea euskaldun izaeraren atala bihurtu bait zaio, bai bere buru bamean egosten diharduten setipenak babesteko behar duen txapela bezala, bai era ankerrenean ezarritako errealitate-ko defendatzeko behar duen ezkutua bezala. ‘Zaio’ esan dut, baina lasai asko ‘zaigu’ ipin nezake, zeren *Denbora galdu alde*-n ez ote digu Gandiagak erakusten euskaldun guztioi geure aurpegi izkutua, samina, oraindik gure hagineta-ko minaren imintzioaz itxuragabetua? Ez digu, karta botatzaille deserosoaren papera antzeztuz, kartetarik itsusiena, denok ondotxo ezagutua, mahai

gainean, behin eta berriro, era obsesiboan ahoz gora jartzen? Ez digu aldarrikatzen geure oinarriaren bai oinari bai harriari zauriak darizkiela oraindik, denboraz garai desberdinetan egonagatik ere, ez dela sendabiderik gertatu eta ez dela agian gertatuko ere?

Liburu hau lehenengo aldiz irakurri nuenean izugarria iruditu zitzaidala aitortu beharra daukat. Gogorra eta mingarria da. Adierazten didana imajina batez irudikatzeko, ihauteriaren imajinara joko nuke, baina ez betikora, koloretso eta alaira. Jose Angel Irigaray poeta nafarrak *Kondairaren Ihauterian* izeneko liburuan, historia irabazleena bada, ihauteria herri xehearena delako ideia garatzen du. Ideia horri natxekiolarik, Gandiagaren lan horretan ez dut, lehenago aipatutako legeez, Bitoriano bakarrik triste somatzen, baizik eta kolektibo osoa, kolektibo euskalduna ihauterian, koittaduen prozesio luzean, jantzi ilunez, nahiaren eta ezinaren arteko borroka latzaren ondoriozko keinu bortitz izugarri haziez, garrasi mutuak, ezen ez isilak, jaurtikitzen. Eta eskailerak garbitzeko erabiltzen diren trapu grisak bihurrikatzen diren bezala, kolektibo hori ere bere barruko erresuminaren inguruan bihurrikatzen da prozesio luzean, azal zigortuez eginiko Euskal herriko kaleetan zehar, betiko leloa errepikatuz.

Baina, etorkizuna astuna izan arren, badago esperantzarako leiho zabalik eta horrexegatik euskararen langile zintzo honek, euskara bera giltzarri, “arbola bat bizi dut” diosku, ezarritako errealitatea nardagarri irudituta ere, bizitza ez datekeela horrelakoa izango azalduz edo. Harelere, nahiz eta bere poemek duten zigilua traumatikoa izan, honelatsu mintzo da:

*“Ez dut nahi
bizi naizen arteino
enbaltsama nazaten
Heriotzaren kontra
jokatu nahi dut
atzerantz egin gabe”*

Izan ere, Gandiagak geure arazoez gaztigatzen gaitu berriro, modu desatseginez, baina ikuspegi zail batetik begiratuta, egia gordina esanez, ohituta gauzkan sinbolo, erretruekano, hitz joko eta bestelako baliabideak direla medio.



ETXEKOTASUNA

Juan Kruz Igerabide Juan Mari Lekuonaren eskolakoa dugu, hots, Lekuonak mundu-ikuspegia adierazteko erabilitako espresamoldeak eta Igerabidek aukeratuak bide beretsutik doaz. Ene irudiko, eraginak zuzenak dira eta, hein haundi batean, ulertzekoak, lilurak, poeta on batenganako lilurak, bere ordaina duelako. Baina, era batean zein bestean, lilura-menpekotasuna askori gertatu izan zaigu eta ez da izutzekoa eta bai, oster, poztekoa, zeren, denbora umotu ahala, bakoitzaren izaera ere umotzen bait da eta geroan bakoitzak bere nortasunaren abotsa besarkatzen bait du, hasierako maisu haren eraginen artean esentzialena zainduz eta harenganako eskerrona ezin ahaztuz.

Bizitzarekin solasean-en Juan Kruzek ahozko euskararen tradizioa (errepikazioa eta hitz dekoratiboak eta koplak zaharren teknika) jasoz, erromantzeen moldeak erreskatatuz, herriaren

ohitura eta zenbait sinismen oroitzuz eta gure mitologia mintzaeraziz etxekotasuna sortzen du, atmosfera epela, nire ustez eskertzekoa dena. Giroaren lagungarri, soinu leunen ahaire kateatua eta palatalizazioa (txikiarenganako afektibitatea).

Balantzaren mutur batean baretasuna haztatu ahal badugu, beste muturrean, baretasunaren mugitzaile gisa, irudien arteko kontraste orekatsua. Marcello Pagninik poesiarik heldue-na poesiarik konplexuena, kontraste-kopuru gehien duena dela dio. Baina nola lortzen du Juan Kruzek kontrajarpena? Nire ustez, hiru baliabideok erabiliz: Hitzak lekuz aldatzean, beraien esanahiak aldatuz; adjetibo landuen, matizatu bidez; eta bai adierazian, bai adierazlean mamitzen diren hitz jolasen bidez. Imajinak orrietan zehar zirrara-sorten jarioan, ur-jauzika bezala, doaz elkarren ondoan, enkalbagamenduen zaldi lasterren trostara.

Gizaki bizidun oro mugitzen den bezala, poemak ere bere erritmo propioa eramaten du eta erritmoaren nolakotasuna zein poema-moetaren aurrean topatzen garen zehazteko zeinua izango da: zer esaten duen eta nola. Irudien arlo iradokorrean gaudela aprobetxatuz, imajina bat hautatu dut liburu honen niretzako adierazia deskribatzeko: zuhaitzarena, bizitzaren sinboloa den aldetik. Zuhaitz-orpoak sustraiak dauzka (liburuan ere elementu telurikoak nonnahi daude), eta nahiz sendo errotuak egon, Juan Kruzek asmatutako hitzean, "amesgora" doa (kosmoaren beste elementuak ere erruz daude), argalduz, lirainduz, espiralaren higiduraz (hona hemen estilizazioaren garrantzia). Eta enborra komunikazio-eraztuna da, errealtatea dela medio, ikusten eta ezagutzen ditugun objektuak direla medio, beste mundua ulertzeko balio duelarik, beste munduaren erreferentzia argiak objetuen barnean aurkitzen bait dira.


Eritzi honen azken puntua borobiltzeko, zilegi bazait, hauxe eskatuko nioke, besterik

gabe, egileari: hurrengo lan poetikorako irudien arteko barne-kateatzea ez dadila izan hain etena, hain presazkoa.



PATZIKU PERURENA

Irudimenaren laberintoa Hutsik daukagu oraindik



Leitu berria dut *Laberintoaren Oroimena* liburua, eta egia esateko, lagun batek utzi ez balit ez dakit inoiz leutuko nuenik ere; banuen erosteko asmoa, baina, ordua iritsi zenean, poltsan neramazkin sosak kontatzen hasi, eta egun hartako egina nuen presupostuz goitik ematen zidan liburu eder haren balioak. Eskerrik, poltsikutik arin samar gabiltzanean lagun bat edo beste izaten den beti gutaz urrikaltzen dena! Eskerrik bai, Joxemariri, eskerrik asko!

Ez nator beraz, liburuaren balio haundia zalantzan jartzera, baizik eta balio hori bera aitzakitza hartuz poesiari buruz zirtzilkeria batzuk esatera. Hasteko, ni Jon Kortazarren lekuan izan banintz, *Oroimenaren Laberintoa* jarriko nion izena liburuari, horrela askoz ere ederrago eta poetikoago gelditzen dela iruditzen bait zait. Baina, nahi izanez gero, oraindik egokiago ere jar zitekeen. Konparazio batera,

Irudimenaren Laberintoa Hutsik Daukagu Oraindik, edo horrelako zerbait. Zergatik horrela? Ba, niri gogoak hala ematen didalako lehenbizina, eta beste gauza askorengatik gero.

Euskal poesia, gaineko lekuetako poesia bezalatsu, badirudi sasifilosofoen lorategi bariopintoa bihurtu dela. Pentsamendua, ideiak eta arrazoi erdipurdikoak dituela alegia, bere alor zekeneko golde astun bakarrak. Eta jakina, tarteka ustekabeen eskapo egiten diguten poema bakan batzuk kenduz gero, sasifilosofia zakarra besterik lantzen ez badugu, Jon Kortazarrek ere alde horretatik baizik ezin ba gu juzkatu:

"G. Carnerori entzun nion behin, poesia ezaguta bide bezala definitzen. Liburu honetan biltzen diren zazpi lanek ere, euskal poesiak zer ezagutu duen, nolako ezagutza bide den, galderet erantzun nahi diete. Liburu honek asken urteotako poesia pentsagai hartu du. Eta pentsakitzunaren barnean gure errealtate eta tzaerari buruz poesia honek erakutsi digu-na atera nahi du plazara (9)."

Badirudi, soziologo, antropologo edo halako norbaiten aurrean gaudela honelakoak aditzean. Nik ez nekien gaur arte, poesia ezagutza bide, jakintza bide eta pentsagai zenik; eta ez nuke gainera jakin nahi, sekulan hala izanen denik ere. Utikan intelektualismo aristoteliko zikin hau, poesiaren ur garbi eta inozenteetatik! Utikan, utikan!

Poesiak ez du deus ikustekorik jakitatearekin eta pentsamenduarekin. Poesia izan liteke aztergai, entretenimentu edo libertimentu modura, baina, santa sekulan ez ezagupide edo pentsabide modura. Hau badakit ez dela Jon Kortazarren errua, baizik poeta garela uste izan dugun *sasifilosofotto* guziona. Halere, kritiko baten aurreneko lana gure erruak salatzea izan beharko luke, eta ez gure bide erratuak indartzeara. Alde honetatik, Jon Kortazarrek biderik desegokiena hartu duela esanen nuke euskal poesia aztertzeke eta euskal poesiari on egiteko.

Gizonak bere munduko izatea bi eratara har lezake: *fundamentu* modura edo *experimentu* modura. Aurrenekoak, *trastzendentzia*, *arrazoi haundiak*, *egia biribilak*, *pentsamendu sakona* bilatzen du. Bigarrenak, *entretenimendua*, *fantasia ttikiak*, *gexur pollitak*, *irudimen arina* bilatzen ditu. Nolabait sateko, aurrenekoa lojika aristotelikoaren sarean galdutako gizona da. Bigarrena berriz, hitz bakar batez esateko, *poeta* da. Hau esan ondoren, galde egin genezake. Non dabilta euskal poeta omen direnak? Non Jon Kortazar? Aurreneko taldean edo bigarrenean? Eta erantzuna begi bistakoa da:

"Gero eta poesia pentsatuago egiten den unetik (11), irudietan sinisten bada ere, ez da surrealismo-rik egiten (117), eta poesia autonomo eta modernoak idazten duen alerkariak irudimenaren imajinen indarrean sinisten du (197)."

Neure gisara apropos josi ditut esaldi hauek, laberintoaren oroimenetik neke haundiz erauzi ondoren, eta inon bilatzekotan, esaldi hauetan bilatu behar da nik azaldu nahiko nukeen auziaren muina. Ez da prezisamentean *surrealismoaz*, *modernoaz* edo *sinismenaz* hitzegin beharrik. Betiko poeta, atzokoa edo gaurkoa, irudiaren indarrak gatibaturik eta liluraturik daukan kultura huraxe baino ez da. Eta kitto, beste zera guziak alfer alferrikako kontuak dira.

Zorrotzegi ari naizela usteko du norbaitek, behar bada. Baina, gaur gaurkoz, behar beharrezko ikusten dut hala izan beharra: poesia kasik ezagutzen ez dugun laberintoa da oraindik guretzako; nik behinpein ez dut ezagutzen inor gure artean irudimenaren laberintoan buruz aurrera sartu eta ezin ateraz galduta dabilenik. Alderantziz, ezin sartuz galbiltza denak, sartuta galtzeko bildurrez edo. Zuhurregi egin gaitu nonbait arrazoiaren lojika. Intelektualismoak batetik, eta sentimentalismo edo humanismo melenga batek bestetik, erabat bazterturik gauzka irudimenaren kristalezko palazio urdin disdiratsutik.

Aintzinako amonia xahar haiek, halako onomatopeia xarmagarritz, halako erritmo liluragarritz eta halako musilkaltasun xoragarritz kantatzen zituzten haur kanta, lo kanta edo jolas kanta haiez geroztik, apenas egin dugun poesiarik, han hemenkako *poematto* bakanen batzuk salbu. Ez dut esanen poesiaren ganbara zaharreraino heltzeko sakon eta luze pentsatu behar ez denik. Bai, asko pentsatu behar da. Hainbeste, non pentsamendua bera gainditu egin behar den, atzera haur baten inozentziaraino bihurtzeko. Nola iritsi ordea poesiaren ganbara zaharrera, pentsamendua bera poesiaren oinarritzat hartuz? Nola? Nola poeta intelektual guzi horiek? Nola Jon Kortazar?

Ez, ez eta ez. Badela uste dut garaia, poesia zer den esaten hasteko; poesia zer den erakusten hasteko. Bestela, inoiz poesiarik egin gabe hilen gara, inor baino poeta haundiago izan garelako uste osoan. Euskal poesian, mundu zabalekoan bezalatsu, nekez aurki liteke poesiarik, benetako poesia hutsik eta pururik. Eta hau esatean, ez nuke nahiko haundimandikeriarik esaten ari naizela pentsa dezazuen. Ez nabil genio ahalguztidunen bila. Guztiz alderantziz baizik. Kreatura ignoranteak botatzen ditut faltan, hura bezain garbi mintzo diren basagizon fantastikoak.

Euskal poesia iraizean paseaz, *Orix*e, *Lauaxeta* eta *Lizardik* berak, nahiz bakoitzak bere modura, *trastzendentzia* eta *sinismen* osoz bizi izan zuten poesia. *Arestik* esku beteketa biltzen zituen egiak. *Mirander*en poesia, ironiak ironia, arrazoi gogor hutsa da. Bion ondoren sortutako talde *intelektualilloa* (*Sarasola*, *San Martin*, *Artze*, *Lete*, *Lasa*, *Urretabizkaia*, *Saizarbitoria* etabar luzea) bete betean harrapatu zuen arrazoiaren ekaitzak, eta erabat itsuturik utzi zituen gainera. *Zaitegi*, *Salba Mitxelena*, *Gandiaga* eta besteak zer esanik ez. *Joan Mari Lekuona* (osabaren eraginez agian) izan da, behar bada, irudimenaren huts honetaz kezkarik haundiena erakutsi duena; halere, bere lana, orohar, poe-

sia baino areago poesiari buruzko tratutua izan da. *Atxagarena*, arrazoiz landutako sinbolismoa baino ez da izan. *Koldo Izagirre* ere, joera gero eta arrazoituagoa eraman du. *Sarrionandia* laguna bera, intelektualismoa eta sentimentalismoa gainditu gabeko poeta gaztea dugu oraino. Eta geroztikakook zer esanik ez. Irudi-menik ez izateaz gain, euskal hitz antzuz etiketutako unibertsalismo esotiko eta fantasma batean galdurik bait gabiltza gehientsuenok.

Poeta izan nahi duenak, gutxienez, erabiltzen duen hitz bakoitzaren edertasuna, usaia, lilura eta grazia senditu eta gozatu egin behar du, eta gero hitz amaraun fin horren musikak sortzen duen irudiari bizia eman, ur xirriparen erritmo bixi arin xarmagarria eman. Baina, nork egiten du hori, poeta omen gareneko gazteon artean?

Are gaitzago dena, (hori ez egitea edo ez lortzea aski ez dela) nork bilatzen du ordea hori? Inor gutxik, nik uste. Eta horren bila ez dabilena alfer alferrik dabila poesia egin nahian. Askoz hobe luke saiakerak, artikuluko sozio-logikoak, edo sententzia filosofikoak lantzen aritzea.

Literatur generoak sekulan ez bezala nahaspilatu diren garai moderno hauetan, proposamen bat eginen nuke bukatzeko, atrebentzia haunditxoa ez bada behintzat. Bila dezagun poesiaren leku jakina. Bereskura dezagun poesiaren betiko lurralde zahar zuria. Konkista dezagun irudimenaren erresuma, azalez urdin barrendik urre horitza dena. Gal gaitezen fantasiaren laberinto infinitoan, eginberritako kristalontzi huts disdiratsuan eulia galtzen den bezala, mila irudipenen lilurak ehundutako sare arin argizkoan harrapatuak.



ANA TOLEDO



Patri Urkizuk egindako galderei
Ana Toledok emandako erantzunak
Fikziozko prosaren sorreraz tesia
aurkeztu ondoren





“Jakin-nahia
akuilu
indartsua da”

HEGATS. Duela urte batzuek Uzei-n Literatur Hiztegi bat prestatzen ari zinen oker ez banago, zertan gelditu zen egitasmo hura?

ANA TOLEDO. UZEI uzten dudanean une egokiago baten zain gelditzen da, orduan markatzen diren lehentasunek horrela agintzen bait dute. Honela amaitzen da eskuartean nuen lantegi horrekiko nere ardura. Ez dut geroztikako berririk. Seguruaski ez zuen jarraipenik izango, baina zori hobea merezi zuelakoan nago. Egitasmoa ederra zen. Eta oso ongi etorriko litzaiguke. Izan ere, alor honetako hiztegi bereziaren erabilerarako eskain dezakeen laguntzaz gain egitasmo horren osagai den artikuku-bildumaren ekarria ez litzateke hutsala, bai hiztegi berezi honen erabilera esaldiaren eskakizunetara egokitzen joateko, bai alor honetako gure altxor urria aberasteko.

HEGATS. Nolatan “Fikziozko Prosaren Sorrera” hautatzea tesi-gaitzat? Zuk zuzenki hautatua da, ala gaiak hautatu zaitu?

ANA TOLEDO. Ba hasieran, uste dut, gaia hautatu egin nuela baina, gerora, gaiak harrapatu egin nau. Aurreratu ahala zirikatzaille eta irensgarri bihurtu da. Gorputz hartuz doan neurrian geroz eta galdera gehiago sortzen dizu. Jakin-nahia akuilu indartsua da.

HEGATS. Zenbat urte igaro dituzu egitekoan?

ANA TOLEDO. Zazpi urte eman ditut lan honetan. Egia esan zazpi urte horietan barrena ez dut lan-erritmo berdina gorde, baina ez dut igaro, ezta ere,



denboraldirik eginkizun hau alde batera utzita. Agirreren idazlanera hurbiltzeko hartutako ikuspuntuak erakarri dituen eskakizunak handiak dira eta ordu askoren euskarria eskatu dute.

HEGATS. Arazo handiak izan dituzu euskaratzen literatur kritikaren esamoldeak eta terminologia?

“Literatur-
kritikaren
esamoldeak...
erdaraz ikasi
ditugu eta
erdaraz ikasten
jarraitzen dugu”

ANA TOLEDO. Euskara arazo bihurtu zait eta besterik esatea gezurra esatea litzateke. Azken finean, terminologia, literatur kritikaren esamoldeak... erdaraz ikasi ditugu eta erdaraz ikasten jarraitzen dugu. Gaur-gaurkoz oso da urria alor honetan dugun euskal bibliografia eta egokitze-lana neketsu ez-ezik, zenbaitetan gogobetekoa ere ez da izan. Mintzaira berezitua da kritikarena eta “tradizio-faltaren” hutsunea nabarmendu egiten da. Ez dago goizetik gauera adierazpide guztiak belarrientzat leun bihurtzerik. Baina arazoa ez da maila horretan bakarrik planteatzen nahiz eta esandakoari loturik egon daitekeen: Hizkuntza alor honetan ezer gutxi erabili dugulako edo-ta ikasketa-mailan euskaraz hezitzeko aukera handiegirik izan ez dugulako edo-ta beste arrazoiren batzuegatik kosta egiten da erredakzio-modu malgu batera heltzea: alegia, “doinu irensgarria” duen euskararen azalpena egitea.

HEGATS. Nolako urratsa ematen da igaraitan Sainduen Bizitzetatik Txomin Agirreren Auñemendiko Lorea-ra?

ANA TOLEDO. *Auñemendiko Lorea*ren fabula saindu baten bizitzan oinarritzeak kontaketa hagiografikoen mundura hurbil dezake, baina era berean esango nuke euskaraz eman diren Saindu —bizitzak *Auñemendiko Lorea* baino errazago entzun edo irakurri direla. Agirreren eleberri honetako elkarriketetara eramaten diren mota desberdinetako berriek (katekistikeek, kondairazkoek, doktrinalek...) arintasun-izpirik gabeak bihurtzen dituzte. Ezta falta, ezta ere, kontalariaren berbaldi diskurtsiborik. Kontaketa bera oso urria da. Eguneroko bizitzan erabil zitekeen hiztegitik urrun geldi daitezkeen hitzen kopurua ez da erdeinagarria... Labur esanda: *Auñemendiko Lorea* aldendu egiten da historia bat kontatzeko erabil daitezkeen bide herriarretatik norabide kultuagoan barrena abiatzeko. Testua itxuratzeko moduak, hizkerak, kanalizazio-moduak, hartzailego-motak eta abarrek bereziko ditu.

HEGATS. Zer nolako eragina du ahozko tradizioak lehen elaberri-gintzan?

ANA TOLEDO. Desberdina eleberrien arabera. Zehatz-mehatz neurtezina bada ere, nabarmenagoa da J.B. Elissanbururen *Piarres Adame* eleberri laburrean Agirreren *Auñemendiko Lorea* baino, esate baterako. Dena den,



“Lore-Jokoek
sustatu egiten
dute euskal
literatur-gintza
eta
suspertze-giro
honetan
sortzen da
eleberria”

orohar, ahozko tradizioaren eragin hipotetikoak hitz egin daitekeela uste dut, hasi zenbait lehengairen erabileratik bertatik (leiendazkoak, adibidez) eta egituratze-mailako elementuetara bertara (markodun kontaketa erabilerara...) nahiz eta sistema batetik bestera igarotze horretan ahozkoen zerien kontajarioak malgutasuna galdu.

HEGATS. Eta Lore-Jokoek?

ANATOLEDO. Garrantzitsua. Lore-Jokoek sustatu egiten dute euskal literatur-gintza eta suspertze-giro honetan sortzen da eleberria. Ez hori bakarrik, bada lotura hertsia ere: Donostian ospatzen diren “itz-jostaldien” egitarauak sari bat eskaintzen dio “irakurgairik” hoberenari. Sariketa hauek mundu idatzira irekiko diote bidea kontaketa: leienden ordua da. Kronologiak zera erakusten du: eleberri labur eta eleberrien ataria seinalatzen dutela leiendek. Hauek argia ikusi eta urte gutxiren buruan ordurarte euskal literaturan ezezaguna zen beste fenomeno bat gauzatzen hasiko da: eleberri labur eta eleberrien “pilaketa” (nahiz eta zenbaki absolututan kopurua oso eskasa izan).

HEGATS. Zein ziren Txomin Agirreren ereduak?

ANA TOLEDO. Ez dauka eredu-faltarik inguruan. Berak baino zerbait lehenago eta idazten ari dela, landu da Euskal Herrian bertan gazteleraz, — jakina, baita Euskal Herriaren mugetatik kanpo ere— nahiz eleberri historikoa, nahiz ohiturazkoa. Trueba, Arakistain, Navarro, Villoslada, Rochelt... ez zaizkio arrotzak. Baina, badago alderik ere horiekiko: Agirrek euskaraz idaztea erabakitzen du eta honetan ez dauka berehalako eredurik.

HEGATS. Noraino balio digute gaur egun Txomin Agirreren eleberriak?

ANA TOLEDO. Itxura batean gutxi. Eleberri historikoek eta ohiturazkoek aurkitu dute jarraipena gure egunak arte, baina 50. hamarkadatik hona egindakoak, edo-ta Agirrek jarritako patroietatik urrunduz joan dira, edo-ta patroimodu horiek gorde badituzte, euskal eleberrigintzan garai batean izan zuten monopolioa galdu dute, leku txiki bat betetzera igarotzeko. Agirreren mundua eta gurea desberdinak dira: Agirrek bere mundu hori aditzera emateko erabilitako hainbat baliabide ez dira egokienak izango gaurkoa azaltzeko. Baina, ez dago ahazterik bera hasi zela hariltzen gure eleberrigintza, berak jarri zuela mende erdi luze batez iraungo duen eredu. Eta oraindik orain ere, gure historiaren atal bat ezagutzeak soil-soilik sor dezakeen interesa baino zabalagorik izan dezake Agirre irakurtzeak.



“Bada beste kontaketa-modu bat (itzulpena bada ere Brabanteko Jenobebaren bizitza, kasu) bide herritarragoak jarraikiz...”

HEGATS. Berdina zen Txomin Agirreren garaikidean euskal narrazio-ziogintza?

ANA TOLEDO. Bai. Homogeneotasuna nagusitzen da eleberri-eskaintzan, nahiz eta xehatasunen bat edo beste erantsi beharko litzatekeen. Bada beste kontaketa-modu bat (itzulpena bada ere *Brabanteko Jenobebaren bizitza*, kasu) bide herritarragoak jarraikiz, sarritan entzupen publikoz dastatuz, jende-multzo zabalagotara heltzen denik, baina Agirrek hartutako ildoak, joera kultu baten barnean garatzen denak, ez dio heterogeneotasunari aterik irekitzen.

HEGATS. Nola ikusten duzu gaur eguneko euskal narrazio mundua?

ANA TOLEDO. Lehenik eta behin, eta aurreko galderari lotuaz, heterogeneotasuna, eta baldintzarik erosoenetan, tinkoenetan eta sendoenetan ez bada ere, Agirrek aurkitu ez zuen adinako euskarria irakurlegoan erakusten du gaur egungo euskal narrazio-munduak. Ajerik egotzi izan zaio baina eskuartean duen lantegiak botatzen dion erronka ere ez da nolanahikoa: orain-oraingoz buruhauste franko sortzen duen hizkuntza lanabes, irakidura iraunkorrean dagoen errealitatea lehengai, itzulpide errazik gabeko lehenaldia ondare...



NARRAZIOAK

3

KONDAKETA



OMAR NABARRO

Geu gagoz testigu




JUAN LUIS ZABALA

Ez du amaierarik



XABIER MENDIGUREN

Larrutik



OMAR NABARRO



Geu gagoz testigu

I

Geu gagoz testigu. Eskolatik irtendakoan, han ikusten genuen, sarritan, ur hodiak konpontzen. Hurreratu egiten ginen. Lauxak zuloaren alboan izaten zituen pilatuta. Hantxe egoten zen tresnen kutxa metaleztatua ere. Eliza txikitxoaren ematen zuen, zilindroerdi erako teilatuak koroiztatua.

Zuloan sartuta aurkitzen genuen Ismael. Aldez aurretik jakiten genuen non edo non apurtua zela hodiren bat, eskolako iturrian ura kendu eta maixuak ez zigulako kaka egiteko baimenik ematen. Don Marciano esaten genion maixuari, mendekutzat edo, betaurrekoak eta izena —Mariano— logika sinkretikoz elkartuta biak. Herrira lehen laugurpildunak heltzen hasi zirenean izan zen hasierako guzti hau.

Okinak —Okak—, berak ekarri zuen lehen kamioa herrira. Ez zuen giltzez ixten atea eta kabinan sartuta ematen genituen arratsaldeak, arrapaladan alde egin behar izaten

genuen arte. Gurpilak husten ere ikasi genuen. Al, untzea hartu, balbulan sartu eta haizearen txistutxua —zarata leuna ateratzen duen uzker luzatua lakoa— erruberatik ihes egiten entzun genuen lehen bidarra! Atsegin izan genuen, aurrerantz, autoak beherantz etorten ikustea, kautxuzko hanka borobilak hustuta, indioen antzera makurtuta eta untzeari sendo eusten balbula ahoan geu, inoren begiradetatik gorde-ta. Clark Gableren antza zuen gizon harek harrapatu eta berotu gintuen arte. Hori, baina, beste kontu bat da.

Zineko aldatzean uzten zuen Okak kamioa. Maguelen etxea ere jausten hasi ei zen kamioak eta autoak zirela eta. Oraindik ere makurtuta du fatxada nagusia, hainbeste urteren buruan. Ez da jausi, aitzitik, eta niri behintzat ohitu egin dela ematen dit. Lauxazko kale hura, oster, ez zen kamioak zapaldu izateko sortua. Beherantz egiten zuten harriok eta, gaur bai eta bihar baita, hodiren bat zulatu. Urak gainezka egiten zuen laster, nahiz eta gure herriko estolda-sarea modernoenetariko izan bere garaian, geroago jakingo nuenez. Zulo ireki berrian, lauxen azpian, harea agertzen zen, ze kale hori aintzinako erriberaren gainean dator itsasoraino. Lauxen azpian hondartza zegoen.

II

Lauxen azpian hondartza zegoen. Ismaeli ez zion inork sinesten. Guk bai, guk ikusi egiten genuen agirian geraturiko hareatza. Han izaten ginen, zulo hegian. Heroeak pelikuletan piztiak lez uxatu arte gu Ismaelek. Kandileja, deblauki, hodi zulatuaren gainetik kendu eta, geuri zuzentzen zigan tresna. Suzko mihi luzeak irteten zuen, hots nagi dardaratia ateratzen zuena. Sugearena edo muskerrarena zela ematen zidan, mehe eta koloretsua, uretan jausitako

gasolioak utzi izaten zuen gorriska, azulkara eta morea dantzan zituela airean. Ez genion ikusten uzten, antza. Ume aldra zuloaren inguruan, guardasol moduan. Kandilejarekin egiten zigun amenazu. Eta nik iturgina izan gura izaten nuen, albanilak ikustean albanila izan gura izaten nuen tema berdinez. Elizatxoan ematen zuen kutxa metaleztatua eta kandileja edukitzeko, arratsaldeetan erretzen zuen Boltissierarekin batera. Ez zion inork ere sinesten Ismaeli. Berunezko hodiak kandilejaz eta xaboi antzeko beste zeraz berlotzen zituen gizon trebeak, beti puro erdi erre ahoan, ezin gezurrik esan harek.

Neu nago testigu. Aittak goizago jaten zuen eguerdia, edo orain bazkaria esaten dena, zapatuek ez. Zapaturen baten izan zen, beraz. Erdalduna izan zen gure aitta.

—Ismael está como una chiva.

Indabekin batera jan ohi zuen kipulari xeratrok kentzen zion bitartean kanporatu zuen. Nik ez nuen jakin “chiva” berbarean esangura eta arreba nagusiak argitu zidan.

—Teilatua ez daukola ondo!

Eta gure aitta Ismaeli tabernan entzundakoa kontatzen hasi zitzaion amari. Haserre zen ama, aita berandu etorri zela eta. Ezin izan nuen ulertu zertan haserretu zen, noiz eta aittak ipuin hain ederra zuenean kontatzeko.

—Lauxen azpian plaia dago.

Hiru lau bider esan behar izan ei zuen Ismaelek Luziaren tabernan —aittak azaldutakoa egia bada behinik behin—, gainerako parrokiariek jaramonik ere ez zioten egiten eta. Ez nuen etaduna ikusten Ismael, zuloan sartuta, hodiak konpontzen. Horrexegatik, amak edanda edo ote zegoen galdetzean, ez nuen halakorik zertan zioen ulertu. Lauxen azpian hondartza zegoen. Edo harea, behinik behin. Geu gagoz testigu.

III

Testigurik, horixe ez zuen Ismaelek, larrua-zaleko kolore gero eta ilunagoak ematen zuen lekukotasuna ezik. Santa Maria kaleko hamai-kagarreneko hodi zulatua konpontzen ziharduelarik, zorabiatu edo egin zen, antza. Goizeko hamarrak aldera izan zen. Ez zegoen edanda. Ezin daburduko. Begiak zabaldu zitueneko, hondartza zabalagoan ikusi ei zuen bere burua Ismaelek.

Bonbatxoa eta kamiseta jantzita -bero ego-ten zenetan kamiseta hutsik lan egiten zuen, beste behargin gehienek lez-, galduta boltissiera, itsutu egin zuen hango itsasertzeko eguzkiak Ismael.

Patrullero PT-109, J. F. Kennedyren soldaduska aldia kontatzen zuen pelikula harexetako paisaia eman zion leku hartakoak iturginari. Hantxe ziren palmondoak eta plaia, ogi-orea egiteko erabilten den uruna baino meheago eta horiago berau, itsaso azularen ertzean. Anila eman zion urgainekoak iturginari.

Erantzi egin zituen arropak. Erraietan untzetuten zitzaion eskuak erakarrita lez jo zuen uretara. Uger egin zuen, luzaroan. Eta irtenda-koan aurkitu zuen Imelda, azala ikatz kolorgetuaren berdina zuen emakumezkoa. Ismaelen besoetan nabarmena zen kolore bera —gorputz enborrekoa esnezkoa zuen, kamisetak babestua izatearen eraginez— eta muxarrek duten ahoa baina haragizkoa, irtena, borobila. Etzun egin ziren, elkarren alboan.

Neskari zerion usaina harearenari gehitu zitzaion. Usain biak kresalari zerion zuriskan buztartu ziren eta sudurretan gurdi igo zitzaizkion, gorantz, Ismaeli.

Parrokianoek nekez sinestuko zioten berun errearen hats beroa besterik bereizteko gauza zenik iturgina. Nekezago sinestuko ziotena, neskaren ipurdi mami mardoetan pausatuta —estutuz— esku zabal biak, goikoak baino go-

rriagoak ziren ezpaineak laztandu zutenik Ismaelen iturri beroa. Berak halaxe kontatzen ei zuen. Aittak ez zuen gauza argirik esan gura izaten gure aurrean eta, beranduago gehitu nizkion xehetasunak dira guzti hauek.

IV

Denok gagoz testigu. Ugaldtu egin ziren, franko ugaldtu ere, lau erruberaren gainekoak. Progresoa. Clark Gableren bigotearen antzekoa zuenak belarriondokoa jo zigunetik, ez genuen bakanetan baino hustutzen erruberarik. Badaezpada ere.

Nork ikusten zuen matrikula zenbaki altuagoa, olgeta berria asmatu genuen. Edo, bestela, zenbat Gordini, zenbat Kuartrokuatro edo zenbat Renault ikusten genuen, herriaren buelta osoa egiten genuen. Domeketan batez ere. Herria bisitariez betetzen zen. Errezago apurtzen ziren ur hodiak eta lan handiagoak izaten zituen Ismaelek. Astegunetan edonon aurkitzen genuen. Kendutako lauxen azpian hareak izaten zen agirian. Beltzago zuen larruazala, egunetik egunera. Edo neuk ikusten nuen beltzago.

—No anda bien de la cocorota Ismael.

Halaxe esan zuen aittak beste behin. Ama ez zen lar haserre izan ordukoan. Arrebak argitu behar izan zidan cocorotaren esangura. Nik neuk kokoren antza hartu eta Ismaelek ikusten ei zituen palmondoetako fruituekin lotu nuen berba.

—Teilatua txarto daukola, txo.

Halaxe esan zidan arrebak. Ez nion sinestu, chiva berbaren gainean ere azalpen berbera egin zidan eta.

Sarriago apurtu hodiak eta sarriago galtzen ei zen Ismael lauxapeko hondartzan, Imeldaren

bila. Behin batetan zuloa, gauez, estali barik utzi zuen arte.

Hamabiak jo zituen plazako erlojuak. Negu ilunean izan ziren kanpaia hotsak eta Ismaelen linterna baino ez zen ikusten kalean. Zuloa jo zuen zuzenean. Juankojorenean azken parrokiarioak geratzen ziren, artean ere. Hantxe zegoen zaldia testigu, iturriari lotuta. Zuloan sartu zen Ismael. Zorabioa, eta hondartzan zegoen. Lauxapeko paradisuan. Irrintzi egin zuen zaldiak, zulotik batek irten beharrean bik irten zutenean. Jaunkojorenean ziren parrokiarioek ez zuten giza itxura bakarra baino ikusi, hain iluna izan bide zen Imelda neguko gau itzalean. Zaldiak, alabaina, usaindu egin bide zuen, irrintzi egin zuen eta. Halaxe kontatzen ei zuen Ismaelek tabernan.

Gero eta gutxiagotan ageri izaten zela tabernara, eta etxean edaten zuela. Aittak esaten zuen. Eta amak beti erantzuten zion berdintsu.

—Beben otros siempre.

Inork edaten du beti, beti inork. Euskaraz lez esaten zuen erdaraz eta aittak, hala ere, ulertu egin zion. Urte asko ziren elkarrekin.

Makinatxo bat urte elkarrenak entzuten. Etxean emakumezkoa zuela eta ea zertan atera behar zen bera kalera basoetan galtzen eskuak eta beste, Imeldaren soinean galdu beharrean.

Egia esateko, piztuta izaten ei zuen gau askotan argia Ismael iturginak. Nik baina, alde egin nuen herritik, ikastera. Ez nuen, bada, baten batzuk antzeman uste uste izan zuten itzala ikusi gizonaren etxeko leihoan. Ilbetee-tan izaten ei zen. Biluzirik sumatzen zuten emakumezkoa kortina atzean. Gauren baten, konponketetan zen kaleren batetan behera ikusi ei zuenik bazegoen. Toledo, adibidez. Ismaelek berak esaten zuen:

—Gabon danori. Tira Eusebio, ez geratu hor eta atara txikitue.

Eta Imelda herriminaz zegoela eta, egun batzutarako desagertua zela esaten zuen, ez-

konduen parean utzi guran bere burua. Barre egiten zion parrokiarioek ez zen falta. Larruazal beltzaranak, berriz, harekek joditzen zituen denak. Non hartzen zuen kolore ilun hura, palmondoz inguruturik ei ziren lauxapeko plaietan ezik?

Toledo egoten zen sinestuen.

V

Hain ume ere ez ginela eritzi zion, antza, aittak. Bestela, ez zukeen halakorik esan gu seiron aurrean. Hasita neukan Ofizialiako lehen kurtsoa eta.

—Es una puta lo que tiene y no se lo va a aguantar nadie...

Ordukoan ez nion azalpenik eskatu, ez arrebari ez beste inori. Gure etxaurrean bertan ere putetxea ei zegoen. Banekien zer esan gura zuen berbak. Sasoi hartarako masturbatzen hasita negoen eta mekaguendiosik bota ez arren ere, berba gogorak esaten ausartzen nintzen.


—Se la trae de la La Palanca...

Ederra sartu zidan aittak. Arrebak ez zidan argitu gura izan La Palancaren esan gura eta han geratu nintzen, umemokoa lez, trenbidetako biharginek erabiltzen zuten burdinera hegal eginda gogoia.

—Zelako berbak, ene badatxue!

Amamak aitaren egin zuen. Gero, goilarea eta tenedorea elkarren gainean gurutzatu lez imintzeko esan eta biek bat egiten zuten lekuan musua emanda, desegin egin zuen metalezko gurutzea. Ez dut inoiz jakin nondik ezagutzen ote zuen amamak izen hura. Ez zidan horren itxurarik ematen behintzat.

—... en taxi



INTERLUDIOA

Gehienok gengozen testigu. Gerra osteko GMCen atzean Pegasoak etorri ziren eta, euro-tariko bakarra ere desguazatu orduko, Barreiro-sak ekarri zituzten. Martinek lehena. Zer esanik ez, GMCak maite genituen, aldatz goretan arrapaladan joaten ginen eta, atzeko irtenen batetan eutsita. Txoferrak burua ateratzen zuen, kaguan hau edo bestea, ume barrabanok, eta kendu egin behar izaten ginen handik. Ez zioten inongo mesederik egiten kaleari halakoek eta Maguelen etxean ere laster jausiko ei zen, hain zen itzela kamioion pisua. Ez zuen beharrik falta izaten Ismaelek.

Aiuntamientoan ere ardura hartzen hasita zeuden antza, ze laster hasi ziren obrak. Anaia nagusiak eta argazki mordotxoa daukate, obren erdian aterata, neskekin mendira joaten zirenekoak. Kamara eskasa izan arren —ez dakit nori, Jesusmariri edo— etxekoren batek nabagatetik ekarria, ez da testigu makala. Orain anaia eta ezkontuta dagoz eta txikiteoa, ez dute besterik egiten. Ezin izango ditut sekula ere burutik kendu orduko sasoiak.

Ismaelen territorioa murrizten hasita zegoen. Zentzu guztietan. Maguelek lortu egin zuen Santa Maria kalean behera kamiorik ez ibiltzea eta aiuntamientoan lauxak kentzea erabaki zuten. Beraniante larregi izaten genuen herrian. Ez dut gutxi sufritu neuk ur baldekadak igoten inoren etxera, laugarren pisuraino eta, urak kaleko iturrietan hartu behar izaten zirenetan. Orain izanez gero, lauxak tipikoak direla eta, galipota botako zuten kaleetan. Bai zera! Orduko sasoietan baina, etxeak edonon eta galipota eta porlana jangoiko. Kortina atzean baino susmatzen ez ei zen Imelda hura baino neska zoragarriagorik agertzen zen herrian. Bokarta ere ugaritu zen. Eta Ismaeli ez zitzaion hainbeste jaramonik egiten. Gertatu zena gertatu zen arte behintzat.

VI

Testiguak, zenbat gura, anbulantzia etorri zeneko egunekoaren gainean berba egiteko

gertu. Bik berba berdinek, halakorik, ez eta pentsa ere. Anbulantzien hots adarrek beti eragin izan didate halako zirrara barruan. Zinean agertzen izaten den munduko osagarri bakarra Juankojoren zaldia izan zen gurean, orduan entzun nituen sirena zaratak entzun artekoan behintzat. Beharbada, herriaren aurreko hondartzan ito zenaren gorpua eroateko erabili zuten anda pareta —oihal beltzez estalita—, portuko hareatzaraino bajatu zutena, pelikuletakoa izan zen. Gizon hura digestioa egin barik uretan uger sartu zelako ito zen, gure amak esaten zuenez. Eta gure amak ez zion digestioa eginda geneukala esateko une egokia sekulakoa ere erizten eta ito egin zen gizonarekin akordatzeko esaten zigun beti. Saniñazio arratsaldean izan zen eta hiru egun eman zituen gorpuak agertu barik eta Gandi eta Iñako ausartu ziren uretatik ateratzen. Urte asko beranduago agertu zen anbulantzia, Irlaren atzean neska gaztea eta ama ito zirenekoan, pantailakoa izan zen. Horiek, baina, beste kontu batzu dira. Juankojoren zaldia ez zen pelikuletakoak lakoa. Anbulantziak, bai.

Amaituta zeuden kaleak konpontzeko lanak eta horrexegatik sartu zen anbulantzia portuko karkabaraino. Eskaileretan behera, arazoak izan ziren ohatilarekin antza. Lauxak kendu zirenetik kalean ikusi gabeko Ismael beltzarana agertu zen gure begien aurrean.

—Beitu! Halako kolorerik!

Baten batek esan zuen gure atzean. Gero kendu egingo zuten kuarteleko txapel okerre ez zuten gura izaten halako akto protokolarioetan inork euskaraz murtik ere egiterik eta begirada zorrotza eskaini zigun "Haginandi" esaten genion mozoloak.

—Azkenetan ei dabil. Kolorea be, beitu, beitu...

Bustiz ebakitzen zituzten "i" ondoko silabak, arrantzaleen moduan. Kaioak bizi ziren, ziur, euren mihietan. Zelan, bestela, halako hotsik. Ez nuen hain gaixorik ikusi Ismael.

Betikoa eman zidan. Orain dakit txikitik nagusi ikusi uste izan ditugunek beti izango dutena aurpegi berbera —nagusi aurpegia, denboratik kanpokoa— gure begietan, elkarrekin hazitakoek beti eskolako sasoian, aldagaitzak, ikusten izaten duten moduan elkar. Zahartze bidea kanpoan izandakoek baino ezin dute ikusi. Eurok dakite zelan egin duen aitzurretan denborak gure azaleko ildoan, zelan ehizatzen duen tristurak gure begininietako ordoki argibakotuetan, zelan jausten diren ezpainertzeko amildegietan hitz suizidatuak.

Imeldaren gorpua agertu zen gero. Ormetan eskelak ikusi nituen. Imelda Villanueva Villarino, falleció el... tras recibir... Une hitun haretan apelliduen arteko kointzidentziak eragin zidan zeozor barruan. Izarapean zekarten gorpua, odolgunek baltzituak zuritasunean harrituta legez, kanpoan ageri zen oin beltz bera atzazal gorritz pintatu eta guzti, Rex zinean ematen zizkiguten pelikuletakoak ziren guztiak. Txapel okerre euren lekuz kanpo desentontzen zutenak. Kanpai-hots ilunen aideak ziren euren trikornioak.

VII

—Ya sólo quedan las putas decentes en el pueblo.

Ama iagotik ez dago ordukoaren testigu. Aita mozkortuta etorri zen ordukoan, beste gehientsuetan legez. Eta guri horrek, zerk? Allas bera beraren kontuekin. Toledo atxilotu ei zuten. Egia, orduan urte pareta kendu zuten putetxea etxeaurretik eta, ez nuen hain sarritan ikusi izaten.

Bestela, aintzinarago, Felik erronka haiek sortarazten zituen garaietan, ia egunero ikusi izaten nuen. Kuartela ere ETaren bildurragatik baino, —eta ez diot bildur ez zirenik, nork

daki—, putetxea falta zutelako kabroiok, horrexegatik kendu zuten. Edo horrexegatik batez ere.

Beraz, kanpotik etorri ei ziren Toledoren bila. Bakarrik geratu beharko zuen begi bat zuriz eta bestea beltzez estalita zituen txakurra, ermitarako bidean, izarrei zaunka, gosez hil arte. Eufemia gixajia aintzina zegoen hilda. Senarrak ematen zion bizimodua izatekotan, hobe hil. Txikitan izaten ziren historiekin buelta hasiz gero otu izaten zaizkit halakoak. Ordukoan, berriz, hala dela eta, beti pozik.

—Cuando trabajaba conmigo en la vía, ya le veía mala persona.

Jaka geratu ei zen testigu. Inor hiltzeak izerdia ateratzen du, nekatu, bat ere nekatu ez arren gorputza. Kendu egin zuen, itxuraz, jaka. Hil orduko ala ostean, berak ere ez daki, burua galduta du eta. Toledoren gainean esaten zituenak, beste gehienak lez, Gernikarraren tabernan entzuten zituen aittak. Ez zen batzarretarako leku makala Gernikarrarena. Mahaian baina, aittak berak konta gura izaten zituenak baino ez ziren entzuten.

—Después de tirársela, la ha acuchillau.

VIII

Testigu mordoa agertu zitzaion aurka iturginari. Proxeneta salatu zuten. Imelda hura erabili egiten zuela, estrupoa edo halakoren bat egiten zuela. Ez zion inork ere sinesten lauxapean plaia zegoenik eta plaia harexetan aurkitu zuenik Imelda. Kontseilari zantarra izaten da bekaizkeria. Mendeku mina zelan arindu, horrexeri baino ez beitutean, gauzak benetan zelan izan diren horren konturik egin barik. Inori kalte egiten zaiola ere, bekaizkeriak ez daki bihozperatasunik.


Gartzelan sartzen zuten bigarren herritarra izan zen Ismael, gerra ingurukoak kontutan izan barik. Toledo kanpotarra zen. A hor izena zeragatik. Lehena Ocaña izan zen. Eta beranduago, Ocaña gartzela izan ere badela jakin nuenean, erratuta ibili nintzela urteetan, haren izena ez zela Ramon Ocaña, Ocañan egon zen Ramon baino. Ramon horrek zer egin zuen, ez dakit nik. Lapurtu edo antza. Lehen krimena Toledok hil ei zuen Imeldarena izan zen.

Eufemia, emaztea, hil ostean berarekin etxera eroan gura izan ei zuen andrazkoa txakurke-meak. Neskak ezetz eta baietz berak. Ismaelek berak jakin eragin zion, gartzelatik urtebetegarenean irtendakoan, herri guztiari. Konpondu egiten ziren bestea, Toledo hura, eta Imelda. Berari ez ei zion ardura, ze lauxapeko plaia dagoen herrian emakume bakar batek gizon bat baino gehiago izan ahal du eta. Inoiz itzuli egin behar izango zuen neskak bere herrira eta, halakorik gertatuz gero, nork erakutsi behar zion bidea? Ezetz eta ezetz esaten zioten bai Ismaelek eta bai Imeldak.

—Le ha llamado de todo.

Igandea izan zen aittak azken errietaren berri eman zigunean. Gau bi beranduago akatu zuen emakumea. Ismaelek, oraindion ere, Imeldari bidea erakustearren, halako egunen baten Santa Maria kalea zulatuko duela dio. Kalte itzela egin dio gartzelak eta, orain bai, zahar ikusten dut. Herri hau aintzinako plaiaren gainean ei dago altxata eta, aintzinako lauxen azpian legez, galipotaren pean ere plaia ei dago. Tabernako leihoaz beste aldean kotxez bete da dena. Okinetako nagusia —kamioa— eginda dago eta ez da ur hendirik lehertzen kamiorik handienak ere kalean behera etorri arren. Maguelen etxea betiko legez dago makurtuta, jausten amaitu barik. Bera dago testigu mutu.

JUAN LUIS ZABALA



B.W.M. OTTEVANGER

Ez du amaierarik

78 urte ditut eta horrenbestez zahartzat jo behar dut neure burua nahi ala ez. Horretan alfer samarrik uste dut izango liratekeela edonolako azalpen antzuak. Baina benetan uste dut betiere garaian garaiko gizona izan naizela ere. Gizon modernoa urtez urte hamarkada luzetan zehar, oraintxe bertan ere, ez jakin noiz arte. Eta hori pozgarria zait oso, harro nago denbora berriei aurre egiteko izan dudan gogoia eta gaitasuna dela eta.

Gizon publikoa izan naiz, gazte denboran batez ere, eta nire izenaren sonak badirau oraindik. Badira hor zehar nire izena begirune berezi batez ahoskatzen duten gazteak ere, nik garai batean pentsatu, esan, idatzi eta egindakoaren berri izan nahi dutenak eta are nirekin hitz egitera etxeratu nahi izan zaizkidanak ere.

Norbera den bezalakoa izaten da eta ni horrelakoa izan. Niretzat axola handikoa da pertsonak buru argitasuna izan eta mantentzea, inoren menpe ezin eror dadin, inork ez diezaion

adarrik jo. Hor zehar zer gertatzen ari den jakin eta norberari dagozkion gauzetan behintzat bere eritzi propioa izan, inoren agindupekoa ez dena. Garaian garaiko kontuez hitz egiten jakitea alegia, hitz batez, inoiz ere erretirorik ez hartzea lan horretan, giza-harrotasuna inoiz ere ez galtzea.

Xabier Nolotolonen idazlan batean irakurritako pasarte hau dator kit gogora erretirorik ez hartzearen eta giza-harrotasuna gordetzearen auzi honetaz mintzatzen hasita: "Bizitzan aurrea egin ahala adinaren zama daramagu herrestan. Berrogei urtetik gorakoari gaztea inguratu eta barrezka hasten zaio. 'Zer egin duk hik hire berrogei urte horietan? Zer egin dezakek orain?' Zaharra zeri heldurik ez duen naufragoa da orduan tristuraren itsaso zabalean". Bada horixe da hain zuzen ere inoiz gertatzerik komeni ez dena. Zeri eutsia izan behar du beti pertsonak tristuraren itsaso zabalean itoko ez bada.

Gainera argi dago gaztea ere ito daitekeela itsaso horretan eta gaztea ere ez dela libratzen ezintasunaren mindura latz horretatik, "Zahartutakoan zera esango diot neure buruari", idatzi zuen beste batean Xabier Nolotolon berak, "badakit zera esango diodala, ez naizela inoiz behar bezain gazte izan. Badakit". Badaki baina ezin du ezer egin. Gaztea ere ezin itzuri zaio hondoratze horri, zaharrak baino sasoi hobe badu ere bere burua ur azalean mantentzeko.

Blok berde koadrikulatu honetan idaztera erakarri nauena ez da ordea nire zahar izate honi zuribideak bilatu nahia. Gaur gertatu zaidan zerbait kontatu nahi nuen, eta gero boligrafoaren laguntzarekin gogoeta egin gertaera horren inguruan.

Gaur arratsaldean bisitan izan ditut ilobak eta beren seme-alabatxo txikiak. Nire familian aitona Asmodeoren sona harrotasunez aipatzen da nire aurrean, batzutan errezeluak eta susmo gaiztoak agertu arren ni aurrean ez nagoela. Nire iloben seme-alabentzat, era horretan, osaba-aitona berezia naiz, oso ondo ulertzen ez badu-

te ere nire berezitasuna. "Oso gizon azkarra eta argia" naizela aditu dute behin eta berriz, eta baita seguru asko "beste mundu batean" bizi naizela ere. Baina ni ondo konpontzen naiz umeekin. Umeen aurrean Asmodeo zaharra ume txiki bihurtzen da, areago gainera nagusirik inguruan ageri ez bada.

Gaur horietako ume batekin aritu naiz hizketan eta jolasean, nik beti umeekin jolasean jardutzen bait dut, jolasak asmatzen eta astakeriak esaten, jende helduarekin inoiz ezin izaten dudana askatasuna ematen bait didate horretarako. Hizketan aritu garenean ni haur nintzeneko garaiak aipatzen hasi gara, nolakoa zen orduan irratia, nola artean telebistarik ez zen, nolakoak izaten ziren gure jolasak eta abar. Baina laster gogoa ahuldu egin zaidala sentitu dut, gezurretan eta umeari iruzur egiten ariko banintz bezala. Kontuak nire erara azaltzen ari nintzen, edozein garaikide aurrean izanez gero gezurretan harrapatua denaren lotsa sentieraziko lidakkeen moduan. Bai, nire edozein garaikidek hobeto egingo lukeela sentitu dut, eta horretxek ahuldu dit hain zuzen ere gogoa, jakina. Beti gertatu izan zait hori. Alegia, beste inork nik baino hobeto egingo lukeena egiten has-teak gogorik gabe uzten nauela, edozertarako ezgauza bihurtzen nauen tristuraz. Horregatik izan nintzen gaztetan izan nintzen bezalakoa, eta horregatik naiz egun ere hain "berezia", horregatik bizi naiz "beste mundu batean". Eta horregatik izan bide zen inoiz ez ezkontzearena hain zuzen ere. Zer egin niezaiokeen nik emazteki bati beste inork ezin egin liezaiokeenik?

Bai, kurioa izan da eta zer pentsatua eman dit. Nik uste dut garai ezberdin askotako bizi-moduak nolakoak ziren, kontuek garai horietan nola funtzionatzen zuten eta horrelakoak jakitea oso gauza ederra eta aberatsa dela. Bizigiro ezberdin askoren ezagutza izatea alegia, atsoek eta agureok dugun bezala. Nik giro ezberdin ugari ikusi, errepasatu eta bizi izan ditut, eta

aurre-aurretik batzutan gainera ere. Nire iloba batek gaur bertan esan dio bere semetxoari: "Egunkarietan idazten zuen aitona Asmodeok eta irratietan hitz egiten ere. Orduan ez pentsa edozeinek egin zezakeenik horrelakorik". Eta umeak esan digu eskolan historiako liburu batean nire izena irakurri zuela: Asmodeo Urrutikoetxea. Hala ere ni garai zaharretako giroaren berri inori emateko ezgauza ordea.

Umeari nire gaztaroari buruz hitz egiteko gogoia galduta, jolasean aritu naiz berarekin berriz ere, hitzetan oinarrituriko jolas eroetan, ilargira doan autobusaren ordutegiari buruzko xehetasunak eztabaidatzen eta horrela. Autobusetako txofer gutxik nahi izaten dutela ilargirako zerbitzua egin esan diot, han ez bait dago oraindik tabernarik atsedendietan tragu bat hartu ahal izateko, eta gainera autobus horietan doan jendea aspergarria delako autobus txoferrentzat, beti kontu serioetan ari diren zientzilarik burutsuak alegia. Sinistu ez zidan egiten, jakina, horrelakoak sinisteko adinik ez bait du honez gero, baina txantxa aurrera eramaten parte hartzen zuen pozik. Elkar hizketa horretan poza berreskuratu dut oster, inork ezin bait ninduen ordezkatu, beharrezkoa nintzen.


Oso ondo pasatu dugu elkarrekin umeak eta biok, nagusiek etxeratzeko ordua zela erabaki duten arte. Baina bisitariak alde egin dutenean —zilegi bekit hizkera sasi-poetiko topikoa erabiltzea—, hutsune baten arantza nuela bihotzean sartua ohartu naiz. Igarotako denboren berri emateko ezgauza izateari datxekion hutsunea hain zuzen ere, jakina. Aguretuta, ez naiz umeei nire umezaroko eta gaztaroko kontuen berri emateko gauza. Umea joan denean, ordea, ustegabeen oldartu zaizkit mintzagai izaten hasi besterik ez ditudan garai ahantzien oroitzapenak. Gure txikitako jolasak esate baterako, gaurko umeek ezin ezagutuko dituztenak. Bazen bat bakar-bakarrik gure jaioterrian jolasten zena, beste inon ere ez. Guk oharkabeen egiten genuen jolas eta orain maite egiten ditugu jolas

galdu haiek oroiminaren indarrez, oroitzapenei eta oroitutako gauzei darien poesia ergela besterik ez den oroimin hutsal horren indarrez. Nik oroimin horri irtetzeko bideak itxi egin dizkiot, eta horregatik orain oroiminak min egiten dit ahal duen lekuan, ahal duen moduan. Nik barkamena eskatzen diot. Ulertu egin behar du nire kontua. Urguilu kontua zen azken-azkenean. Gogoa ahuldu egin zait benetan. Nire edozein garaikidek hobeto egingo lukeela sentitu dut. Ezin nuen amore eman.

Ez nau hilko oroiminaren arantzaren eztenkadak, ezta hurrik eman ere. Nik badakit agure-atso denok zahartu garela, eta agure-atso guztiok dugula barruan kanpora atera nahi eta inola ere ezin dugun mundu oso eta handi bat, dagoeneko barruan nekez sartu ere egiten zaiguna. Baina balkoira irten eta aurrera begiratzen jakin behar dugu. Balkoi aurrean nola edo halako bide bat dago: bide zidor estua mendi aldeko baserrian, autoestrata hiriaren kanpoaldeko etxe zantarrean. Ez du axolarik horrek. Bide horrek ez du amaierarik.



XABIER MENDIGUREN



Larrutik

— *Me* puedes poner un kilo de sal, que se me ha acabado?

Emakume gazteak egurrezko mostradore gastatuaren ertzean zituen eskuineko behatz puntak, mamiez laztanka, esku osoa pausatzeko lotsaz edo. Ezkerraz etxeko bata koadrodunaren gainetik jantzitako puntozko txaketari hel-tzen zion, bularraren parean.

—Sí chica —erantzun zion etxekoandreak, eta jira eginda bizkar eman zion mostradoreari, bai eta emakume gazteari ere.

Apaletan txukun txukun eta herrenkadetan jarrita arrazionamenduko janari eskas preziatuak, pakete eta zakuetan. Dendariaren eskuek ez zuten ibilbide luzea egin behar izan bila zebilena ikusi, esku artean hartu eta berriz ere buelta emanda mostradore gainean jartzeko, bi emakumeen artean orain, erdi erdian, bien lokarri edo alegiazko neurketa bateko balantza bailitzan.

Hitzaspertura iritsi gabe ere ordura arteko elkarrizketa laburrari luzapen lasaia eman zioten, bata dela eta bestea dela, hau eta hori, nor bere estu eta larriak kontatu beharrean, aldian behingo poz eta atseginak zipristindurik beti ere, bizimodu hau ez baita horren petral eta zipotza, edo ez zitzaien behintzat hala iruditzen bi emakume haiei, gazte izateak eman ohi duen txorotasun axolagabe hori dela kausa, apika.

Mostradorearen eskuin aldean gertatzen zen guzti hau, atetik sartu eta pare parean. Ezker aldera berriz, gizonak erabili ohi zuten alderdia zegoen. Apaletan jakia ez baina edaria zegoen, aukera ugaria ez baina bai kantidadea: eztarria urratu eta urdaila piskanaka herdoiltzen duen ardo beltza; igandero meza ematera auzunera igo eta gero hara azaldu ohi zen don Prudentziorentzako ardo goxoa; noiz edo noiz eta beti dirua kentzeko inguru horietara hurbildutako don Hijinio sekretarioarentzako jerez garratza; eta gizonetako gehienek festa eta jai egunetan, batzuen batzuek txahala edo biga saldutakoan eta bakarren batek egunero edaten zuten pattrra: txuria edo gorria, han ez zen beste marka eta bereizgarriarik eta hartara hobeto entenitzen ziren. Azken batean bere helburua berdin bete-ko zizun batak zein besteak.

Mostradorearen ezker alde horren parean, mahai baten ingurubiran jarrita, hamaiketakoaren apurren gainean zortzi begi, zortziak ere eskuin aldera begira. Eskuetan fournierren irudi higatuak, txiki eta haundiak, paretan bildu eta joko bila. Lau basamutilen artean zer jokatu haundirik ez izateak ordea, moteldua zuen lehenaz gainera piper gehiegi ere ez zekarren partida hura, eta emakume gaztearen sarrerak erabat uxatu zituen musetarako gogoak.

Bazen Luxia deitzen zuten bat, laurak ere lan berean eta soldata berberaren truk arituagatik nagusitzakoa egiten zuena, inork hala erabakita baino gehiago beste hirurei halaxe sortzen zitzaielako haren planta lerden eta aginduetarako boz sendo eta asmo sendagoak zirela eta.

Luxiari, bi bekainen arteko tartea aldenik alde ebakitzen zion orbaina, hobeto begiratzearen begiak txikitzean eragindako ximur ugariek gurutzatzen zioten. Horretaz konturatzeko eskola gutxi eta harrokeria gehitxo izan arren miopea baitzen. Luxia honek beraz, zintzurra lepoan gora eta beheara zebilkiola, aho sapaian nabaritutako bapateko lehorraldia urruma batez konpondu ezinik botila ardoa hartu eta lagunen basoak bete zituen, lehenago ere bete zaharrak ez izan arren.

Bi emakume gazteen txutxumutxua auke-
ran nahi baino gehiago luzatu eta elkarrekin zerabilten solas hori bat ere kilikagarri ez gertatu, antza, eta basamutiletako bi, hara begiratzeko bizkar emanda zeudenak hain zuzen, berriz ere mahai aldera jarri eta beren kartei begiratu zieten.

—Zer: parerik baduk edo ez duk?

Luxiak zartadako baten aintzindari iduri lezakeen keinu batez ixiltzeko edo bera behintzat bakean uzteko adierazi zion, eta hitz egin zuena pixka batean bere hiru zaldikoak esku batetik bestera dantzarazi eta gero, behatz koskoekin mahaiaren kontra jo ondoren, beste behin jiratu eta ezertaz ohartu ez edo ez ohar-
tuarena egiten zuten emakumeei begira jarri zen.

Anttoni txikitatik ezagutzen zuten, eta ardo zerbitzen aritzeak ematen duen konfidantzaz baliatuta bestetarako pausoa ematen bat baino gehiago saiatu izanagatik bazekiten hura Arrietako maiorazkoarena Joxe Martinena besterena ez zela; eta badaezpada hantxe izaten zen inguruan tabernako nagusi Mielmari "Beltza".

Bestea berriz ezezaguna. Ezezaguna eliza inguruko lau etxe eta mendi bazterretan sakanatutako dozena t'erdi baserri zituen auzunear. Are gehiago: bailarako herri, herrixka eta zoko guztiak ezagutzen zituzten basamutilentzat ere ezezagun.

Ezagutzeko gogoak ematen zuena ordea.

Belaun azpira ozta ozta iristen zitzaion batak aztal txuriak uzten zituen agerian, belar biltzen eta beztu beharrik izan ez duten txorkatilak, ondo egindako hankak, ez barizetako zain lodituak ez soberazko haragi apurrik ere. Bata arin horixe beste arroparik ez izateak azpikoa sumatzeko aukera ematen zien, ixtarraren behetik gorako marra irmo eta kurbatua, txaketaren azpikaldera iristen zeneraino antzeman zitekeenez behintzat ipurtalde gotor, ondo bete eta dantzaria. Txaketa bular parean eskuez lotua edukirik ezin jakin alderdi horren nola-koaren berri, baina eskuak zenbateraino urrundurik zituen ikusita titi oparoen esperantza piztu zitzairen. Luxiari piztu batez ere, begininieta-ko argitasunarekin batean.

Baso betea zangada bakar batez hustu eta baso lanean zartatutako alkondaraz sikatu zuen kopetatik behera zerion izardia, bere artean "hau duk beroa" marmarka, galtzarbetakoa aurretik ere nahikoa izarditurik baitzegoen lehorte lanetan hasteko. Beste alde batzuetako larria mahai azpiak izkutatzen zuen.

—Apúntalo en la cuenta —esan zuen halako batean emakume ezezagunak, eta oin bakar baten punta gainean gorputz osoari bira erdia eragin zion ate aldera zuzenduz, lipar labur batez gizonengana begira geratu zela, gantxo batez atzekaldean nola hala bildutako gaztain koloreko ileak aidean eta lerro zuzeneko hortz zuriak irribarre zabal batean agerian.

—Sí chica —esan zion Anttonik; saiatu arren erdara aberatsegia ez izan oraindik nonbait.

Atean izkutatzen ari zela, atzera begiratu gabe "gero arte" esan zuen andre gazteak, nork berari zuzendua uste izan zuen agur batean, nork bere gustoko intentzioa eransten ziola adiskidetasunezko agurrari.

Atearen ixteko kirrinka eta ondoko danbateko soinuaren atzetik isiltasun une bat izan zen, isiltasun osoko une labur bat, agerpen hura egiazko ote zen galdezka baleude edota edozein ahótsek "gero arte" irribarretsu hark utzita-

ko lorratzaren zantzua apurtuko zuen bildur balira bezala.

—Zein zen? —Luxiaren galderak ez zion ezinegona salatzen. Apaizak konfesonarioan erabili ohi zuen doinu bera zuen, bai eta erantzungo zioten segurtasun berbera ere. Inork ez zuen erreparatu, ezta galdera egin zuenak ere, lehenaldian galdegin zuela, atetik aienatzearekin batera gizakumeen mundu honetatik ere desagertu izan balitz bezalaxe.

—Hori? Zera: Iñaxioren emaztea —erantzuten ari zela ezaxolatuarena egiten zuen Anttonik, koadrozko orritako libretatxo batean gatza-rena apuntatzen zuen bitartean, baina garbi asko antzematen zitzaion hartaz hitzegiteko irrikitan zegoela, eta ez zuen disimulatzeko ahalegin haundirik egin.

—Ze Iñaxio: kapadorearen semea? —Luxiaren aldamenekoak hartu zuen orain txanda.

—Horixe: linternero ibiltzen dena —Anttonik arrapostu.

Beste ixiltasun une bat izan zen orduan, ez halere solas gaia agortutzat emana zutelako: aitzitik, hitz gutxi eta galdera gutxiago egitera ohitutako basamutilek jakinmin haundiegia zuten galdezka nondik hasi berehalakoan asmatzeko. Bazekien hori Anttonik ere eta gizonezkoak beregana adi eta beha zeudela hizketan segitu zuen.

—Soldaduskan ezagutu eta handik ekarri zuen. Ezkondu ere bertan egin omen ziren.

Lau egunetako bizarra egin gabe zuten mutilen aurpegietan irribarre bana eratu zen. Zaila izango zen irribarre horiek inozotasun edo maltzurkeriatik, zertatik zuten gehien, erabakitzen. Bakoitzaren baitan neurri desberdinetan nahastuko ziren bi osagai horiek.

Luxia izan zen ahoa berriro zabaltzen lehe-na.

—Erdalduna baina polita.

Eta beste guztiak hitz horiek bere baitan zeukaketen esanahi ageriko eta sakon guztia,

doinuaren ñabardura bakoitza hausnartzen geratu ziren.

II

Feria eguna izan eta astero bezala gertu xamarreko eta urrutixeagoko baserritar guztiak jeitsi ziren bailarako herri burura. Goizean goiz, oilarrak kukurruku jo orduko itzarri, gosari legea egin, abarkak jantzi eta perira.

Goizetik bete ohi ziren bideak txahalez, mandoz, ardiz eta konejuz. Zein erostera dirua ondo gordeta zein saltzera begietan irrika. Askok ez zuen zer saldu haundirik behar izaten: nahikoa zuten dozena erdi bat porru edo bi oilo zahar otarra bete eta bidean behera abiatzeko.

Astean behin kalea ez zen kaletarrena. Egun hartan kale kantoietako harriek euskal hitzen oihartzuna zabaltzen zuten ximaur eta abere usain nahasiekin batera. Tratu gehienak eginik eta zarraturik herriko umeak eskolara eta etxe-koandreak barazki eta arraultze bila kalera irteterako.

Hamarretakoa egiteko garaia. Mahai gainean hiru txikikoa eta haragi egosia edo txorixo muturra. Gizalegeak agintzen duela eta tratua ospatuz batzuk, aspaldiko partez elkar ikusi eta hitz aspertuan ari bestetzkuk, ostatua bete-bete eginda, gizonezkoen topaleku.

Tabernan bertan, barreneko mahai apartatuenean lau gizonezko. Bata Luxia, alkondara garbia jantzita eta bizarra egin berria; parean duena halako morrosko gazte ilehori bat, mozkote baina bularzabala. Hauetako bakoitzaren aldamenean gizon zaharrago bana, purua erretzen biak ere.

Mahaitik ez da oihurik ateratzen baina serio ari dira bi zaharrenak eztabaidan, hau eta hura, aldian behin aldameneko gaztea seinalatuz.

Hauek nahikoa lan dute elkarren begiradari eutsi eta aldi berean eztabaidaren gorabeherei erreparatzen.

Azkenean konponduko dira, alde z aurretik dakite denek hori, baina bien bitartean nork bere alde estutu behar, gogor egin behar apostua ahalik eta baldintza onenetan burutzeko. “Ez” eta “ezin” ugari entzungo da tartean baina denei komeni zaie jokoa. Besteak zenbateraino amorremango duen ondo kalkulatu eta gero bi parteak erdi protestaka bat datozenean elkarri bostekoa luzatu eta ardo gehiago eskatuko dute.

—Hik kontu edanari —Luxiaren patroiak gatzigatu—, aurrerantzean aizkol aposturako gobernatu behar duk eta.

Luxiak txintxo aurpegia jarri eta ezetz esatea zail gertatzen den irribarrea egin zuen.

—Gaur behintzat utzi beharko didazu, ezta?

—Tira bada —erantzun zaharrak— gaurkoa egingo diagu baina bihartik aurrera neronek hartuko diat hire kargu.

Irribarre zabalagoa egin zuen Luxiak, arrazoi emanaz bezala baina bereari eutsi nahiko zion seinale.

Orain apostuaren berri zabaldu behar zen, aurrez esandako baldintzetan, jendea jakinaren gainean jarri eta trabesak egiten hasteko. Tabernan bertan zabaldutako hotsa ahoz aho iritsi zen herrira bildutako guztien belarrietara, eta arratsaldean baserrian geratutakoek ere jakingo zuten, eta berehalaxe beste bailaretakoek ere bai. Han ez zen periodiko behar haundirik gauza horietarako.

Halako batean Iñaxio sartu zen taberna hartan. Linternerotzan hasi zenez geroztik ez zuen zer egin haundirik izaten ferian, baina txikitari eta gartzetan aitari edo amari lagunduz etortzen zeneko garaiak ezin ahaztu eta ia beti agertzen zen, ikustalditxo bat egin, prezioak eta zer nola zebiltzan ikusi eta zertxobait erosita etxe aldera.



Egun hartan ere, etxe batean konponketa egiten aritua zen. Bukatutakoan ikusmiran ibili, kinkalero bati emaztearentzako belarritakoak erosi, eta lagun-en batekin baxoerdi baten aurrean berriketaldi bat izateko asmotan taberna-ra sartu zen.

—Ba al dakik aizkol apostua egin dutela? —bota zion batek sartu bezain laster.

Iñaxio ez zen jokozalea baina zer hitzegina beti behar izaten da eta berak ere jakinaren gainean egon nahi izaten zuen. Zeinen artekoa zen galdetu zuen.

—Luxia eta Arizmendi naparra; hor atzean zeudek.

Baxoerdia eskatu eta mahaiak zeudeneko atzekalde hartara hurbildu zen. Berria eman zion laguna honenbeste kana eta horrenbeste enbor beste batekin hizketan utzia. Arizmendi delako hori ez zuen ezagutzen. Luxia bai, aspaldidanik: Iñaxio baino zaharxeagoa, hango eta hemengo erromerietan sarritan ikusia zuen, beti harrokerietan, muturra ondo berotu eta gero ahobero, beti inorekin burrukan hasteko pronto, dantzan gehiegi ez saiatuagatik neska laguntzen iaio.

Hala ere, harekin ia inoiz hitz egin gabea zen eta ez zuen inondik ere espero holako harrera: mahaikoen begi bistan agertu zeneko Luxiak burua altxatu eta denek entzuteko moduan, ozen esan zuen:

—Hara zein dugun hemen: Iñaxio.

Begi guztiak beregan tinko sumatu eta masailak gorritu egingo zitzaizkiola sentitu zuen; hala ere guztiek ezaguna zutela pentsatu eta eusten saiatu zen. Boza natural jarri eta “On degizuela” egin zuen diosala.

Mahai guztietakoek marmar batean erantzun eta nor bere solasera itzultzen zela, Luxiaren aldamenekoari, Otaegi tratanteari entzun zion apupiloari galdetzen ziola.

—Ze Iñaxio?

—Kapadorearenekoa.

Luxiaren irtenaldi xelebre hura hartan bukatua zelakoan edalontzia hartu eta ahora eraman zuen lasaiturik Iñaxiok. Ezpain parean zeukala ikusi zuen nola Luxiak burua makurtu eta bere mahaikoei zeredozer esaten zien ahapeka; ondoren laurak algaraka hasi ziren, eta Arizmendi delako mozkote begi urdina eta alboko tripazaina hari begira jarri.

Iñaxiok ez zekien zer gertatzen ote zen baina urduri jartzen ari zen. Baxoerdia zurrut batean hustu eta beste bat eskatu zuen. Alde egiteko zorian egon zen baina barruko zerbaitek tira egiten zion ia gogoz kontra, tira baino gehiago geldi arazi, oinak bere hartan finko, buru-gorputzak mahaikideen aldera zuzendurik.

Beste behin sumatu zuen Luxia kontu txikietan, laurak farrezka eta bi ezezagunak oraingoan disimulu gehixeagoz berari begira. Zerbait esatekotan zegoen Iñaxio baina zer? Ez al zuten ba hitzegiteko deretxorik?

Lasaitzeko ahaleginetan ari zen kapadorea-renekoa baina alferrikakoak ziren bere ahaleginak, burua berotzeko gehiegi ere behar ez zuen hari sutan jarriko baitzion Luxiak halako batean begiak kixkurtuta begiratu eta aurpegia farrez farrez zera esan zionean:

—Hi, Iñaxio, ezkondu egin omen haiz...

Mahai guztietara jezarritakoak honi begira jarri ziren, zerbait gertatzen ari zela sumatuz. Zenbait, iskanbila ikusi nahiz; beste hainbat zer ote zuten jakinminez.

—Bai. Ta?

Motz eta zorrotz bota zion Iñaxiok. Pilota partidua balitz bezala, oraingoan jende guztia Luxiari begira zegoen, irribarrea ezpainetan, zer esango ote zuen zai. Mostradorearen beste aldean, ate inguruan zeudenak ere ohartuak ziren saltsaren bat bazebilela, eta isiltasuna egin zen nagusi. Luxiaren hitzek gardentasun berri bat, ozentasun berezia zuten isiltasun berri hartan.

—Ez... bada, zera: zorionak —totelka hasi zen Luxia, zer esan asmatuko ez balu bezala, baina ezagutzen zuten guztiek bazekiten artegatasun hura imintzio hutsa zela, bota nahi zituenak bota aurretik giroa berotzeko urduri plantak—, polita da gainera eta; nahiz eta belarrimotza izan.

Taberna osoa hasi zen oraingoan algaraka.

Denak, Iñaxio ezik, noski: honek hortzak estutu eta praketak poltsikoan sartuak zituen belarritako erosi berriak ikutu zituen, metal merkean emaztearen azalaren goxotasun apurren bat aurkitu nahiz. Nahi eta ezin. Ezin goxotasunik atzeman, ezta hitzik ahoratu ere. Hala ere, momentu hartan jende guztia bere hitzen zai zeukan, erne. Hitzegiten ari zela nabaritu zuen ahotsa ez zitzaiola nahi bezalako gogortasunez ateratzen, ezinegonak dardara eragiten ziola.

—Eta hiri zer axola zaik nire andrea?

Luxiak eskua garondora eraman zuen, zer erantzun pentsatzen ari bailitzan.

—Bueno ba, nik ere ez diat ezer erdaldunen kontra eta... zenbat eskatzen didak andrearekin txortan egiteagatik?

Baten bat hasi zen barrezka, baina gehienak ahoa bete hortz geratu ziren. Ez zuten horen bestekorik espero eta ezin asma zezaketen zer egingo zuen orain Iñaxiok ere.

Honek kiskaltzen zuen burua, kiskaltzen ahoa bota nahi eta ezin zituen txakurkeria guztiekin, eta kiskaltzen eskuak ere Luxiaren eztarrian korapilatu nahi zuketean atzamarrei eustearen poderioz. Zenbatekoa zen ezin igar zitekeen denbora tarte horietako bat igaro zen, bien bitartean Iñaxiok mostradore gainean zuen eskua haztamuka zebilela harik eta botila bat atzeman arte. Txistua irentsi eta gero poliki hitz egin zuen, hitz bakoitza neurtu eta are dastatzen zuela iduri.

—Hire amarekin egiteagatik hik neri bezainbat.

Orduko hartan, debaldeko ikuskizun hartan gozatzen ari zirenek ez zuten burua patxadaz jiratu eta bestearen arrapostuari erreparatzeko astirik izan. Iñaxiok berea esan bezain laster, amen Jesus batean altxatu zen Luxia putaseme-ka, besoak zabalik norbait akabatzeke pronto.

Iñaxiok neurtua zuen bien arteko aldea: bost bat metro. Hura mugitzen ikusi orduko eskuinean zeukan botila mostradore kantoia-

ren kontra joz puskatu eta muturra eskuan zuela geratu zen, aizkolariari aurre egiteko prest.

Hara bildutakoek gustora ikusiko zuten horrelako burruka saio bat, nahiz eta apostutarako aukera gutxi eman; izan ere, Iñaxio Luxia baino dexente txikiagoa baitzen, mehea, bizkar estukoa, eta jenio bizia izan arren Luxiari bizkortasunean ez sasoiari ezin eman ziezaiokeena. Harakoan ere ez zuten ordea, burrukarik ikusteko aukerarik izan: Otaegi tratantea zaharra izanagatik ez zegoen herdoilduta eta gaztetan pilotari zeneko zalutasun pittin bat gorderik nonbait, Luxia basapiztia moduan zihoala, goardasolarekin zangartekoa egin eta muturrez aurrera eror arazi zuen. Altxatu nahi izan zuenerako besotatik heltzen zuten lau lagun zituen.

—Utzi! Utzi! Akabatu egingo diat, akabatu!
—zioen oihu batean Luxiak.

Otaegik eusteko keinua egin zuen. Goardasolarekin lagundurik zutitu eta basamutilaren aurrean jarri zen. Gozo hitz egin zion, eskua sorbaldan jarrita, seme bati egingo ziokeen moduan.

—Uztak bakean. Orain ezin duk minik hartu.

Builaka eta zalapartaka segitu zuen Luxiak baina tratanteak ez zion jaramonik egin: odola bero dutenei berez hozten zaie. Iñaxiogana joan zen eta honengana iritsitakoan agintzen ohituta dagoenaren ahotsaz mintzatu zen, doinua altxatu gabe baina hitz bakoitzak bost kilotako harri baten pisua zuela.

—Alde egin ezak hemendik. Alde egin ezak eta ez hadi berriro agertu.

Iñaxiok artean irakiten zuen odola, taupadaka bihotza, eta botila muturra eskuan irmo.

—Kontuz botila horrekin, deskuido santuan ebakiren bat egingo duk eta —bota zion Otaegik garraztasun apurrik adierazten ez zuen doinueraz.

Iñaxiok bere hartan atzamarrak askatu eta botila muturra ezpartinen gainean erori zen,

lehen kraskatutako kristal pusketei berri batzuk erantsiz. Behatzak dardarka zituen oraino, botila askatu eta zeri heldu asmatu ezinik, baina halako batean patrikara eraman eta diru bila hasi zen.

—Hirea eginda zegok —Otaegik, kasik kortesia irudi lezakeen moduz.

Momentu batez zalantzan geratu zen Iñaxio, inguruko jendea, tratantearen hitzak eta guzti hori hausnartzen, baina bera ez zen gozotan itotzekoa.

—Nereak neronek egiten ditut.

Eta ahapeka “estimutzen dizut” zioela, atzera begiratu gabe atera zen, behako eta gorroto guztiak bizkarrean iltzaturik.

III

Ordu t'erdi baino gehiago ematen baduzu kilkerren hotsa besterik entzuten ez duzula, biotako bat: edo kir-kir etengabe hori dagoenik ere ez zara konturatzen, mundua bera hots horrekin jaio bailitzan, edo erotzeko zorian jartzen zara, madarikazioka, soinu puta hori noiz isilduko, burua lehertzeaz.

Kamino ertzeko sasiarte hartan ezkutaturik zeuden haiek gehiago zuten bigarren honetatik lehenengotik baino.

Ilogora ia ilbete dela, ilargia hodei artean sartu-irten keinuka badabilkizu, noiz aurreko bihurturik sumatzen hasten den kaminoa zuri-zuri agertarazten dizula, noiz belaun gainean jarritako eskuko behatzak zenbat diren kontatzeko gauza ere ez zarela, ilunguneak desiatutako emakumearen bular txuriak irudikatzen aprobetxa zenitzake, edo esku hotzen batek lepotik helduta behinbetiko ilunpera eramango ote zaituen dardarka egon.

Iretargitan suma zitezkeen lau gizon haieta-

tik hiru begiak zabal-zabalik zeuden, ehiztari izanik ehize bihurtuko ote ziren bildur; laugarrenak berriz ilargia izkutatzean begiak erdi itxi eta gogoa hegan uzten zuen, kate motz batez biltzeko pronto baina.

Kilkerren kantu monokorde eta aspergarriaren gainetik aldian behin urruneko baserriren bateko zakurren zaunka galduak iristen zaizkizu, edo jatenaren bila dabilkeen hontz izuturen baten ulua; bata zein bestea izan, zainak teink jarri ohi zaizkizu eta kirioak bera, kasualitate hutsa edo izaki arrotzen baten ustekabeko presentzia izan ote den igarri ezinik, dena delarik ere zentzumenak oro adi, gauekoa ez den zer horren agerpenaren bildur eta aiduru.

Luxia eta hiru lagun basamutilak ere horrelaxe zeuden, hanka puntetan salto egiteko prest, haietako biren eskuek makil banari gogor eusten ziotela; hirugarrenak, badaezpada ere, ordura arte ogia eta txorixo muturrak ebakitzeko erabilitako labana zeraman praktetako atzeko patrikan; Luxiak berriz, nahikoa erizten zion bere ukabilen indarrari.

Bizikleta baten argia pizteko dinamoak errubarekin igurtziaz egiten duen hotsa ri-ri-ri ez da errax urrundik sumatzen; are gutxiago kilkerren hotsa nagusitzen bazaio; baina bizikleta gainean zihoana aurreko batean radio erosi berrian entzundako Antonio Machinen *dos gardenias* hortz artean txistuka zerabilela zetorren.

Lau itzalek boleroaren konpas trakets haiek sentitu zituztenean ilargia gorderik zegoen eta bidea ilun. Luxiaren agindua marmar bat izan zen.

—Bota enborra bidera!

Iñaxiok hots hura aditu zuenean kezka bakarra bururatu zitzaion estraina, basapiztiren bat ote zebilen alegia. Harritzekoa zen ordea, baso inguruan ibili arren, piztiak horren behera jeistea urte sasoi hartan. Erori eta laguntza beharrean zegoen gisasmeren bat ere izan zitekeela eta txirrina jo zuen hura adituz eran-

tzungo ziotelakoan. Kantari zetorrela bere amodiozko melodia haren korua egiten ziotela iruditu zitzaion kilkerren hotsa izan zen ordea erantzun bakarra, bera isilduta ere berean temati.

Ilargiak laguntza eskasa eskaini arren errepikatuaren poderioz etxerako bidea ia begiak itxita egiten zuen Iñaxiok, begitandu orduko bazekien dinamoaren argitan erdi sumatutako kurba hura kamino osoko bihurriena zena, eta albo batean aldapa pikuan amiltzen zena. Bestela ere poliki antxean zihoan, baina are polikiagotu zuen abiadura, zer gerta ere. Buelta hartu eta jiratutakoan ez zuen ezer berezirik barruntatu ordea, eta bere kezka lausotsuei susmo hutsal eritzirik pedalari eragiten hasi zen berriro, hoztutako afaria birritan berotzen ariko zen emaztea gogoan.

Tupustean gertatu zen. Hiru metro aurretik ikusi zuen lurrezko kamino estua aldenik alde zeharkatzen zuen enbor ebakia. Alde batera malkortegia zuela, bestera berriz areka barik mendian gora zihoan harritzko ezponda eta sastraka, manilarra nora mugitu ez zekiela zuzen eutsiz, eragin berri zituen pedalak askatu eta indar guztiez sakatu zituen frenoak. Beranduegi ordea: aurreko gurpilak enborra jo eta aidean atera zen bera hegaldi laburrean berriro ere lur jo arte.

Lurrera erortzean eta ahoa zabaltzerako hamaika esanbeharreko izan zituen bere artean, istanpatean: “Mekabenlaletxe zeinek utzi ote dik enbor zahar hori bide erdian inor akabatzeko ere eskerrak ez dudan min haundirik hartu hori uste diat behintzat baina bizikleta mekabenlalatxe zer gertatu ote zaio bizikletari ederra egin diat izorratuz gero hau duk amorrazioa...” Burutazio guzti hauen haria hautsi zion hurrengo segunduan belarrietara etorri zitzaion oihuak:

—Eutsi horri!

Aztoraturik, ahotsa nondik zetorren ere ohartzerako armiarma erraldoi bat zuen bizkar

gainean, bere beso eta hanka guztiekin.

—Eman gogor! —entzun zuen hurrena, eta oraingoan bai, ahots lakar hura Luxiarena zela konturatu zen, baina identifikazio horren ondoriorik ateratzen hasi orduko kolpe bortitz bat sentitu zuen bizkarrean, eta gero beste bat saihetsean, eta beste bat...

Luxia adi-adi zegoen makilkadek erritmo jarraian Iñaxioren bizkarra nola astintzen zuten begira, honen atzamarrak kaminoko area eta harri koxkorren artean nola sartu eta bihurritzen ziren erreparaka; baina ez zuen aienerik ez intziririk egiten, eta ezin zion lurraren kontra zegoen aurpegia ikusi.

—Altxa ezazue —agindu zuen.

Bi lagunen artean galtzarbe banatatik heldu eta zutik jarri zuten Iñaxio. Hankak dingiliz zituen, txorimalo bat iduri; begitarte berriz bular aldera eroria, okotza paparraren kontra.

—Kordea galdu du —esan zuen basamutiletako batek, bere bozean jipoitzen aritzearen alaitasuna eta damua bereiztu ezin zirela.

Luxia presarik gabe hurreratu zen. Iñaxioren ondo-ondoan zegoela hatz kakotua okozpean jarri eta burua altxatu zion, poliki-poliki. Burua jaso ahala, hertsirik zituen begiak zabaldu zituen jopuak.

—Zer: Bizi al haiz edo? —galdetu zuen Luxiak irribarretsu.

Basamutilek algara batez erantzun zuten.

—Non utzi dituk lehengo harrokeriak? —segitu zuen Luxiak—. Apaldu egin al haiz? Ondo zegok hori, motell. Andrearen kontuan tratua egiteko moduan orduan...?

Pelikuletako itxura osoa zuen irudi hark: gizarajo jipoitu bat bi morroiren artean helduta, hirugarrena badaezpada atzekaldean eta aurrez aurre irribarre gaiztoko tipo argal luze hura. Zinemara gehiagotan joan izan balitz aurpegira ttu egingo ziokeen Iñaxiok, baina ez zen oso zalea, eta gainera une hartantxe ilargiak ostar-tea utzi eta berriz izkutatu zen.

Iñaxio ez zen geldirik egon haatik. Bere indar osoa hanka ahulduetara bildu, eskuineko belauna ahal zuen azkarren altxatu eta Luxiaren sabelpearen kontra jo zuen. Minaren minez makurtu zen aizkolaria, oinazezko oihua ez-tarrian itoz; makilkadak ixilik jasan zituen linter-nero zikin hura baino gutxiago ezin izan.

Nora ezean geratu ziren basamutalak. Beso-tik eusten ziotenak aldean zeramaten makilari heldu eta berriro dantzarazi edo ez zalantzan geratu ziren, Luxiari protagonismoa kentzeko bildurrez. Atzean zegoenak labanaren aho zorrotz eta gosetia erakutsi zuen, oldartzeko pronto.

—Utzi neri —esan zuen Luxiak arnas estuen artean.

Ilargiak ostarte berria bilatu eta bide zurian argi egin zuen: hiru gizonen artean triangelu zabal moduko bat osatzen zuten, eta erdian bi itzal ilun. Jadanik inor ohartzen ez zitzaion kilker soinuaren gainean arnas azkartuen hotsa besterik ez zen aditzen, eta bularreko hauspoen erritmoan hasi ziren bi gizonak dantzari, jira-bira geldoan, besoak gerri parean erdi zabalik, elkarri begira. Oinak poliki, bata bestearen atzetik eskuin aldera lerratzen zituzten, itzal luzeak zaluago besteak traketsago, eta beste hirurek oharkabe bezala ezkererako mugimenduari ekin zioten, koreografia biribilez, zirkulu hartatik atera ezina aditzera eman nahian. Bide bazterrean bizikleta okertua, hankaz gora geratutako mandoa bezala.

Iñaxio izan zen ukabila aurreratzen lehena, gaueko aire geldia aztoratu baino egin ez zuen saioan. Luxiaren begi erdi itxietan katuaren dirdira beltza nabari zitekeen, aurrekoaren mugimenduak honen keinuetan aldeztu aurretik irakurtzeko ekinean. Iñaxiori beste bi ahalegi-netan indarra xahutzen utzi zion hanka joko bizkorrez atzera eginez, eta kapadorearen semeak, etsiturik, besoa laugarrenez luzatu behar zuenean zirti-zarta jaso zituen ezker-eskuinez bi matrailetan, hurrena gibel parean

sentitu zuen, eta atzetik etorri zirenak ezin zenbatu, ez zehaztu.

Luxia bi eskuez eta hankez jo eta jo ari zela asaskaldi galanta eman zien barrenean gordetako guztiei:

—Putasemea, alua, akabatu egingo haut, zerri alena, ja ta txikitu egingo haut, alu hori, kabroia, putaseme ez bestena, zerri zikina, irendu egingo haut, txikiratu, alu halakoa, txiki-txiki egingo haut...

Iñaxio lurrera jausi eta Luxia ostikoka asper-tu zen arte lagunek ez zuten hitzik egin.

—Uztazu... —ahoskatu zuen ahalkez basa-mutiletako batek, erruki eta beldurrak eztarria korapilatzen ziotela.

Luxia lagunei begira geratu zen, harri eta zur, non zegoen eta zertan ari zen ez baleki bezala; ondoren lur-rean etzanik, ahotik txistua eta odola zeriola zegoenari zuzendu zion soa; azkenik bi bekainen tartea zeharkatzen zion orbaina eta begirada miopea bidean gora zuzendu eta hala esan zuen:

—Orain egingo dizkiagu andrearekikoak.



NARRAZIOAK

2

KONDAKETA



XOSE LUIS
MENDEZ FERRIN

Percival



Itzultzailea:
ANDRES URRUTIA


ESTEPHEN
VINCENT BENÉT

*Super Flumina
Babilonis*



Itzultzailea:
JOSEBA SARRIONANDIA

XOSE LUIS MENDEZ FERRIN



EX-LIBRIS . M. CRAS-DOMENECH

Percival

Itzultzailea:

ANDRES URRUTIA

*A*itxa zen Percival aulkitik, irratia itzali eta leihotik begiratu zuen. Ilargi luzea, fluorezko iragarkien semaforo gorri eta berdeen tartean galtzen zen, urrunean. Kementsu itxi zuen leihoa eta gogoz ere trunkatu. Honela kaletik ondo isolaturik zegoen. Bentana ondo hertsirik. Bestekaldean kotxe eta kabaretak bai... baina bentanaz bestaldean. Eta noski, berak kalea bakarrik beiretan zehar begiratzen zuen eta hala eta guztiz ere, presaka eta ñabarduretan ohartzeke. Orduan begiratu zuen eta ohizko nazkaren keinuz, gogoa eta soa kaletik aldendu eta bentana —lehen esan dudana legez— itxi zuen.

Gero pauso handitan ibili zen, hegazti disekatu eta basatien ilaren tartean zabaltzen zen korredore gisako gune luzetik; hegaztien atzetik zutitzen ziren apal luze eta umotuak, beren pergamuzko bizkar urreztatu eta lodiez harrotuak.

Irratia zumezko mahai baten gainean zetzan minezko ixiltasunez. Horma luze batetik orratz luzez gurutzaturiko kakarraldo eta tximeletek kolore eta herio haizea ematen zuten. Ezpata luze, exotiko eta erditik moztuak, gelako behe osoaren gainean zeutzan.

Percival, urduri paseatu eta zigarrotxoa biztu eta gero lorategira atera zen. Lorategira esan al dut? Bai, Percivalen Lorategira! Ez dago ez lurtarik, ez lurraz kanpikorik, horrelakorik ikusi duenik. Belar eta zuhaitzez landaturiko lurzatia zen. Belar gozoa eta zuhaitz ederrak zituen. Zuhaitzak luzeak ziren, beren kukula boteretsuak, Percivalek asmatutako zeru berdearen kontra tente zeudela. Zuhaitzak zaharrak ziren, mundua bezainbestekoak. Belarra... berdea zela esatera nindoan, baina egia esatekotan, ez daukat beste erremediorik, egun zein ordu batzuetan ardoaren kolorekoa zela aitortzea baino. Gainera adreilu eta uralitaz egindako etxetxoak zegoen, barnean komuna zuena, ate desegin eta hezetasunak usteldu batekin. Percivalek bere Lorategia honela deitzeko ohitura zuen: "Zuhaitz Luzeen Lorategia".

Esan bezalaxe, Percival lorategira atera zen. Gainera, beste aldi askotan ere, aterea zen. Aldi horietariko zenbaitzu historiaturako ditut, Percival Lorategia irten zenetarikoa, hain zuzen ere:

Lehen aldiz LEHOIOTSOA

Percivalek irratia itzali zuen, ez zitzaion Offgent atsegin. Gero atera zen lorategira eskuan liburua zuela. "Zuhaitz Luzeen Lorategi"ra atera zen. Zuhaitzak are luzeagoak eta zaharragoak ziren. Liburua bertan behera jausten laga zuen eta Lorategiaren beste arbolei so egin zien. Haritzak, urkiak... ziren. Erroak okertu egiten ziren beren bizkar narratziak luraren gainean makurtuz; enborrak tortotxondotuak; oroldiotuak eta tximurtuak ziren... batzuk oro azala, gunez husturik, soilki mamuak eta zuhaitzen

hondakinak: oskol ustela. Adaburuak, orri lodiz dizdiratsuak, bele kabien pisuaren azpian kullunkatzen ziren. Kukulek iradokizunez beteriko sapaia ziruditen. Ilunabarra zen. Eguzkia, sartzerakoan, basoaren atzeko argi suharra zen. Argia, galbahetua eta gorria, basotik zetorren. Oihana misteriozko itzalekin betetzen zihoan. Hostaiaren azpitik, gabontzek, mozoloek eta saguzaharrek hegan egiten zuten. Heroizko haize bat zetorren, basotik, Percivalengana.

—Pele, Pele... deitu zuen berak.

Morroia agertu zen, papiloteduna.

—Berorren aginduetara.

—Ekarri iezazkidazu armak eta zaldizuria, irtetzera noa eta.

Percivalek bularreko ondo ehotua jantzi, luma zuridun burukoa kokatu, ezproia kaltzatu, ezkutua besoratu eta lantzoia eskuratu zuen.

—Nagusia afaltzera etorriko al da?

Zalduna basartean sartu zen. Oihanetik abiatu zen, adar idortuen hatz luzeek aurpegia atzapartzen ziotela. Zaldia soinu bardinez aritzen zen harri edo enbor jausi batetan oztopatu arte; orduan soinu bakar hura apurtzen zen, maiestategi eta sortzaile, doinu desberdina agertzen zelarik. Eskuineko arbolen tartetik buruhezurren oihartzun ixilak eta etika barriaren zuritasunak zetozkion: hegaldia altxatzen zuen ilargia zen.

Basarte erdian gelditu zen Percival:

—Zer dagit nik hemen —esan zuen berekiko—. Nola nago gerlariz jantzirik? Zergatik atera nintzen etxetik? Non hasi da nabilen baso hau? Nora nòa?

Basarte erdian, Percivalek mina zeukan haxe galdetzerakoan. Halakoan, erantzun gisa, deia dar basati eta luzea nabari zen basarte osoan... otso ulu bat, lehoi kexu garratzean amaitu zuena.

—Badakit nora noan.

Eta ulua ateratzen zen lekura joan zen.

Denpora gitxian, basoa bukatu eta hutsunea ikusi zuen. Arbolarik, bedarrik... deus gabeko argi gunea, bere gune izate hori deuseztasunetik erakartzen zuena. Baina handik, laburrera, hutsunea kexuka hasi zen eta entzun zuen, oso bestelakoa, otsoa eta lehoiaren karraxi nahasia... hutsunea uluka eta kexuka zebilen. Berba egin zuen Percivalek:

—Nor zaitut zu eta zertaz zabilta kexu?

Berba egin zuen hutsuneak:

—Basoko zati honen nagusia nauzu eta neuk bakarrik ehizatzen dut hemen.

Berba egin zuen Percivalek:

—Egieza borobila duzu hori, baso osoa neurea bait da eta zati hau ere bai.

Berba egin zuen hutsuneak:

—Ez, neurea da eta.

Berba egin zuen Percivalek:

—Nola duzu izena?

Berba egin zuen hutsuneak:

—Lehoiotsoa

Berba egin zuen Percivalek:

—Eta zergatik?

Berba egin zuen hutsuneak:

—Erdi otsoa eta erdi lehoia naizelako.

Berba egin zuen Percivalek:

—Ba, ez dizut horrelako itxurarik ikusten.

Berba egin zuen hutsuneak:

—Oraintxe berton ikusiko duzu ba.

Instant hartan basoaren hutsuneak horrelako izatea laga eta otsogorputza eta lehoiburua zuen aberea bihurtu zen. Denpora berean, hutsunea basoak bete zuen. Hostaiak eguzkia estaltzen zuen. Percivalek aitaren egin, zalditik jetsi, aulkitik ezkutua eseki eta lantzoia erro ustel batetan eutsi ondoren, ezpata askatu eta kanibetari oratu zion; gero, hankak zabalik eta burua behera, Lehoiotsoaren kontra joan zen. Hau buztana firika eta hortz zorroztruekin zain

zegoen. Eztarrira egin zion salto abereak. Esku batez heldu kokotetik eta bestearekin kanibeta sartu zion.

Lehoiotsoaren zerraldoa Percivalen oinpetan zetzan. Zaldunak azala kendu eta aulkia larru odoltsuaz estali zuen. Gero etxerantz abiatu zen.

—Nola joan zitzaion nagusiari? —galdetu zion morroiak.

—Ontsa, ontsa. Basondoan uluka zebilen munstro bat hil dut eta ehizarako zeukan basozatia kendu diot. Egun batetan joan beharko duzu, ea guzti hura garbitzen duzun... Ah! Hartu larrutxo hau eta zure gelarako alfonbra bat aginduzu. Lagun nazazu desarmatzera, nekaturik nator eta...

Bigarren aldiz

ORDOKIKO BORROKA

Irratiak Strogaobiren musika jotzen zuen. Percivalek amatatu zuen, ez zitzaion Strogaobi laket. Percivalek bertsoak irakurten zituen. Poesia sentitu, birsortu egiten zuen. Abagune batez ozenki irakurri zuen:

Basoan dira gorputz biluziak

Iratze tartean

Han dago bele basatia

Eta oreina makurrean

Percival liburua itxi eta lorategira irten zen. Orduan "Zuhaitz Luzeen Lorategia" eskemati-koa zen. Pinudien erroak adaburuekin angelutan mozten ziren. Kandelak zuzenak eta gogor-rrak ziren. Arbolak garratzak. Behetik ez zegoen belarrik; estrobiloak, meta azkortuetan, eragozten zuen. Haize gogorra eta burrunbatsua zetorren.

Percivalek basoa begiratu eta barre egin zuen.

—Pel, esan zuen.

—Berorren aginduetara.



—Esan Fiji eta Meutleri ...eta beste neskame guztiei, leihotatik erretiratzeko, biluztera noa eta.

Percival biluzik sartu zen basoan barna. Egun luzeetan ibili zen. Pinuek beti oihuka. Lantzean behin mika baten hegada astuna, bere deiadarrekin ahanztura apurtzen zuena. Bera beti aurrera. Noizean behin abesten zuen:

Goazen basora

Goazen basora

Azkenez, egun luzeen hondarrean -esan dudan lege- heldu zen Percival ordoki batera.

Belarrik bageko ordokia. Lur xukatuan mikaren dizdira. Argigunearen erdian bi gizon ziren. Lehengoak bere azpian zeukan bigarre-na. Lehenaren oinak bigarrenaren burua zapal-tzen zuen. Azpikoak inzentsarioa zeukan eta goikoa inzentsatzen zuen. Goikoak usaina ar-nasten zuen. Behekoak laudoriotan jarduten zion.

—Nire Jauna, nire Nagusia, zermolako poza ene gainean zeu edukitzea!

Gainekoa ixilik zegoen eta are gogorrago zapaltzen zion burua.

Percival berotu zen eta zapaltzailearengana jo zuen. Zama ondo estutu zion. Baina... bitar-tean ohartu zen gainekoaren oina bigarrenaren buruan txertatua zegoela, buru eta oinaren haragiak berberak ziren eta. Percival higuinaz bete eta korrika atera zen, erdi zoraturik. Bere atzetik azpikoaren ahotsa entzuten zen:

—Zantarra! Nire jaubearen azpitik bota nahi ninduzun? Ba orain begira! Begira nolako nazka eman dizun ni nere nagusiaren azpitik aldendu nahi izateak! Begira nola zabiltzan presaka! Zantarra!

Esan zion Percivalek Peli, bere etxean jada:

—Oso nekaturik nago gaur... Aton ie zadazu bainu bero bat

Hirugarren aldiz

MAITEMINA

Zutitu zen Percival bere jarlekutik. Behearen mailan hegaz zihoan euli bat arduraz begiratu zuen. Gero lorategira irten zen.

Gaua zen "Zuhaitz Luzeen Lorategi"an. Kaio-laturiko oihana zen. Basoaren erditik harri kixker zapalduzko ibilbidea zetorren, eta al-

boetan, hesi meta ebakiak. Lantzean behin buxia handiko argizuzia ibilbidea argitzen ikusten zen.

—Aizu... Pel!

—Berorren aginduetara.

—Ta zer dugu ba egun lorategian?

—Jaia dute, Jauna, basondorantza.

—Eta nork egiten du?

—Ez dakit, Jauna.

—Ontsa. Prestatu iezadazu janzki beltz bat.

—Nahi duen moduan. Automobila atera nahi al du berorrek?

—Ez, ibiltera noa eta.

Eta Percival lorategiko ibilbidetik ibili zen, bere zolekin arean kirrik eginez. Argi elektrikoa motela zen. Arbolak moztuta eta arretaz txertatuta zeuden. Laster entzun zuen musika doinua, geroxeago berbaldien zurrumurruak. Bere aurrean agertu zen, gerokoan, gorritz pintaturiko txaleta. Bero zen, mutilak jaka zuriz zeuden. Salatik ibili ostean Percival adineko batzuen berriketa baten hurbil jarri zen.

—Eta oihan hau neuk erosi nuenean —zioen batek— bazen istorio multzoa, antzinako jaube batena, Percival deiturikoa edo... horratio gauza jakingarria da.

—Ah! Percival... bai —zioen beste batek— gaur egun ere Percivalen ipuinak (oraino gogoratzen ditut oraino...) neskame batek kontatzen zizkigun... txikitatik.

—Nahi al du berorrek ginebra bat?

—Ez... ezin dut gernuarengatik

—Ba bai... gure neskame hura...

—Laga horiek historiok bakean...

—Itxi... itxi kontatzen... Jarraitu, Caidancoa, mesedez...

—Ba, esaten zidan neskameak Uztailaren lehen guztietan —gaur lakoxe egun batetan— Percival berbizten dela neskaxa eder bat maitemintzaeko.

—Istorio ederra.

—Zu beti horren erromantikoa.

—Ga, ga, ga, ga.

Bitarte hartan neskaxa bat agertu eta zuzendu zitzaion berriketako bati:

—Aitatxo, gorde iezazkidazu eskularruak dantzan nabileino.

Orduan ikusi zuen Percivalek: luze, ilegorri, begi grisak, ezpain zurbilak, bere kolorea herri hartako eguzkiak azaletik urreztatua. Percival zutitu egin zen eta orduan neskaxak ikusi zuen. Biok luzaroan elkarri begiratu eta bete zioten. Percivali laino pozu batetan amiltzea iruditu zitzaion. Inor ez zen konturatu —orok dantzan zebiltzan eta— berak eskutik oratu, dantzatzer atera eta parkera eramanean... "Zuhaitz Luzeen Lorategi"ra.

Percivalek begiratu zuen.

—Nola duzu izena? —galdetu zuen.

—Brasja —erantzun zuen

Ixilean kontsideratu ziren. Gero neskaxak esan zuen:

—Nik ez dut zure izena jakin beharrik.

Eta bere beso zabal eta dardartiak eskaini zizkion. Percivalek bere aurpegia bestearen aurpegiaren gainean okertzen zuela, ipar haizeak gailurretako arbelaitzak atzamarkatzen burrundatu zuen. Orduan ezpainak erretiratu eta entzun egin zuen. Haizea menditik jetsi eta basoan sartzen zen. Percival tente jarri zen, urduri. Haizea, adarretan orro egin eta erro harroetan burrunbaka zebilen. Borroka karaxia zen, basotik oihartzen zena. Brasjaren ileadatsak biraka zebiltzan. Percivalek basoa begiratzen zuen. Adarrak deiadarka defendatzen ziren. Hostoak, eroturik, hegaka zihozten.

—Zergatik lagaten nauzu? Nor zaitut?

Percivalek azentu desesperatuz ihardesten zuen:

—Nire basoa dut. Nire baso dut. Konturatzen al zara?

Eta baso karraxilarian barruratu zen. Atzean gelditzen zen neska, janzki eta ule nahasia.

—Nor zaitut? —Ostera ere deiadar egin zion.

—Ni naiz Percival —eta bere ahotsa baso erditik zetorren jada.

Eta haizea adarrik adar zihoan, murmurioan:

—Ni naiz Percival... Ni naiz Percival.

Gibelean Brasja, emigratu baten emaztea legez.

Eta haizeak:

—Ni naiz Percival

—Ni naiz Percival

Esaten zion Pelek Percivali atetik sartzera-koan:


—Ez Jauna, ez du horrenbeste oihanera atera behar, itxura nekatua dauka eta.

OHARRA

Kontatu ditudan Percivalen istorio hauexek, “Zuhaitz Luzeen Lorategi”rako beste horrenbeste irterari dagozkie. Nik neuk jarri dizkiet lehena, bigarrena eta hirugarrena irakurleari nolabaiteko antolamendua ematearren. Baina inork ez daki zenbat aldiz atera zen Percival edota inoiz ere berriro aterako ote den. Berak “Zuhaitz Luzeen Lorategia” nahi legez zabaldu dezakeenez —gogoratu Lehoiotsoaren abentura— irakurlearengana ere jo dezake, ipuin honen kanpotik, eta berari berba egin, atsegin bazaio. Percival nigandik, nire ipuin honetatik at bait dago; bera hartu ezinezkoa bait da pinudiaren murmurioa legez. Hain zuzen ere, ipuin hau idatzi dut, nik topatu nuen moduan, irakurleak inoiz topatzen baldin badu, berarekin nola jokatu behar duen jakin dezan.



STEPHEN VINCENT BENÉT
CANIS ET LIBRI HOMINIS AMICI



Super Flumina Babilonis

Itzultzailea:

JOSEBA SARRIONANDIA

*S*farralderantza, mendebalderantza eta hegoalderantza ehiza ona dugu, baina sortalderantza joatea debekaturik dago. Debekaturik dago Leku Hiletara joatea, salbu eta metalaren bila, eta metal bila joateko sazerdotea izan behar da, eta sazerdotearen semea. Gero, gizona zein metala purifikatu egin behar dira. Hauk dira arauak eta legeak; egokiak dira. Debekaturik dago ibai handia zeharkatzea eta Jainkoen Lekua izan zen lekua ikustea; hori gogorki debekaturik dago. Leku horren izena ahozkatu ere ez dugu egiten, ezagutzen dugun arren. Han bizi dira izpiritu eta deabruak, han daude Sute Handiaren errautsak. Guzi hori debekaturik dago, debekaturik egon dira haroen hastapenetik.

Gure aita sazerdotea da; ni sazerdote semea naiz. Ni egona naiz, aitarekin, Leku Hil hurbilenetan. Hasieran bildurrak

nengoen. Aita metal bila etxera sartu zenean, atearen alboan geratu nintzen eta ene bihotza tipi eta ahul senditu nuen. Gizon hil baten etxea zen, izpiritu etxea. Ez zuen gizonaren usainik, nahiz eta han xoko batetan hezur zahar batzu egon. Baina ez da egokia sazerdote semeak izua erakus dezan. Erdilunetako hezur haik soegin nituen eta ez nuen deusere esan.

Gero aita metalarekin irten zen, metal zati handi eta gogor batekin. Bi begiez begiratu ninduen, baina ni ez nintzen ihes joana. Metala eman zidan eskuetan atxiki nezan. Ukitu nuen eta ez nintzen hil. Orduan jakin zuen ni bere semea nintzela benetan eta behar orduan ni ere sazerdotea izanen nitzela. Hori agitu zenean ni oso gaztea nintzen. Halabaina, ene anaiek ez zuketen hori eginen, nahiz eta ehiztari onak diren. Horrezkero enetzat izan zen haragi zatirik hoberena eta xokorik epelena sutondoan. Gure aita begiratu egiten ninduen, bozkarioz beterik ni sazerdotea izanen nintzelako. Baina harrokeriatan aritzen nintzelarik edo arrazoirik gabe negarrez hasten nintzelarik, anaiei baino zigor latzagoak ezartzen zizkidan. Bidezkoa da.

Gerora neu ere sartu ahal nintzen etxe hiletara metala xerkatzera. Horrela ikasi nituen etxeon sekretuak, eta iada ez nuen bildurrik hezurak ikustean. Hezurak arinak eta zaharrek dira, batzutan ukituaz batera hautsez desegiten dira. Baina bekatu handia da hezurrok ukitzea.

Kantuak eta entsalmoak irakatsi zizkidaten, zaurietako odola batzen eta beste sekretu batzu irakatsi zizkidaten. Sazerdoteak hanitz sekretu ezagutu behar du. Hori esaten zuen gure aita. Ehiztariek guk dena kantu eta entsalmoen bidez egiten dugula uste badute, hara, usteak uste. Liburu zaharrak irakurtzen eta eskritura zaharrek idazten irakatsi zidaten; zaila izan zen, luzaroan ihardun nintzen. Jakituriak zoriontsu egin ninduen: suaren antzerakoa zen ene bihotzean. Maiteen nuena Egun Zaharren historia eta jainkoen historia entzutea zen. Neuk egiten

nizkion erantzun ezin nituen galderak ene buruari, baina galderak egitea ona da. Gauez itzarrik geratu ohi nintzen, haizeari entzunez: iruditzen zitzaidan espazioa zeharkatzen zihazten jainkoen abotsa.

Gu ez gara ezjakinak oihaneko herriak legez, gure andereek artilea ardatzen dute goruan, gure sazerdoteek tunika zuriak janzten dituzte. Guk ez ditugu zuhaitzetako kotxoak jaten, ez ditugu antigualeko idazkerak ahanzi, ulergaitzak diren arren. Halabaina, ene jakituria eta ene jakituriaren urritasuna ene baitan erretzen ziren: gehiago ikasi nahi nuen. Finean gizona nintzelarik, aitagana ailegatu nintzen eta esan nion:

—Heldu da bidaian abiatzeko eguna. Emaidazu baimena.

Luzaroan soegin ninduen, bere bizarra laztantzen zuela, eta esan zuen:

—Bai. Heldu da eguna.

Gau haretan, sazerdoteen etxean, purifikazioa eskatu, eta eman zidaten. Gorputza oinazetan nuen, baina ene gogoa harri izoztu bat zen. Gure aita berak interrogatu ninduen ametsi buruz.

Surtako kea soegin eta ikusteko, agindu zidan. Ikusi eta ikusitakoa kondatu nuen. Ikusitakoa zen. Betidanik ikusia nuena zen: ibaia, eta ibaiaz bestaldean Leku Hil zabala eta han jainkoak oinez zebiltzala. Horretaz egin dut beti gogoeta. Bere begiak latzak ziren kondatu nionean; iada ez zen aita, baizik eta sazerdotea.

—Amets gogorra da hori —esan zuen.

—Enea da —erantzun nuen.

Kea ikaratu egiten zen eta nik arina senditzen nuen ene burua. Lekoreko ganbaran Izararren kantua kantatzen zuten, eta nik ene buru barruko erle burrunba bezala entzuten nuen.

Ea jainkoak zelan jantzirik zeuden galdetu zidan, zelan jantzirik zeuden esan nion. Guk badakigu, liburutik, zeintzu diren beren erropak, baina nik ene aurrez aurre baleude bezala

ikusten nituen. Bukatu nuenean, egurttoak hiru aldiz utzi zituen zolara erortzen, erorketa soegiten zuela.

—Amets gogorra da hori —esan zuen—. Suntsi ahal zaitu.

—Ez dut bildurrik —erantzun nuen, eta bi begiez soegin nuen. Ene abotsa ahula iruditu zitzaidan, baina keagatik izan zen.

Bularra eta bekokia ukitu zidan. Arkua eta hiru geziak eman zizkidan.

—Eraman itzazu —esan zuen—. Debekaturik dago sortaldera joatea. Debekaturik dago ibaia zeharkatzea. Debekaturik dago Jainkoen Lekura joatea. Guzi hori debekaturik dago.

—Guzi hori debekaturik dago —esan nuen, baina ene abotsa mintzo zen, eta ez ene gogoa.

Berak berriro begiratu ninduen.

—Gure semea —esan zuen—. Behiala amets gazteak eduki nituen. Zeure ametsek suntsitzen ez bazaituzte, sazerdote handia izan zaitezke. Suntsitzen bazaituzte ere, ene semea izanen zara beti. Abia zaitez.

Baraur egin nuen, legea da. Gorputza oinazetan nuen, bihotza ez. Egunsentia arribatu orduko, gure etxaldea atzean utzia nuen. Otoitz egin nuen, garbitu nintzen, eta seinale bat igurikatu nuen. Arrano bat izan zen seinalea. Sortalderantza hegats egiten zuen.

Batzutan izpiritu zitalek igortzen dituzte zeinuak. Berriro ere igurikatu nuen harkaitz motzean, baraur eginez, deusere jan gabe. Oso geldirik egon nintzen: zerua senditzen nuen goian, eta lurra behean. Eguzkia murgiltzen hasi zen arte igurikatu nuen. Orduan hiru oreinek zeharkatu zuten harana sortalde alde- rantza. Ez ninduten usnatu, ez ninduten ikusi. Heurekin oreinkume zuri bat zihoan. Hau zeinu nabarmena zen.

Sobera hurreratu gabe jarraitu nien, ea zer gertatuko zen. Sortalderantza joateko desirak bihotza kezkatzen zidan; halaere banekien joan

behar nuela. Baraura zela eta buruko mina nuen, ia ez nuen ikusi pantera oreinkumearen gainera jauzten. Baina, ontsa ohartu orduko, arkua eskuetan nuen. Oihu egin nuelarik, panterak burua altzatu zuen. Ez da erreza gezi batez pantera bat hiltzea, baina gezia begitik sartu eta burumuinera heldu zitzaion. Jauzten entseiatuala hil zen: bira bat eman eta lurra hatzaparrez urratu zuen. Orduan jakin nuen sortaldera joan behar nuela, horixe zela ene helbidea. Gaua erori zenean, sua biztu eta haragia erre nuen.

Sortalderantzako bidaiak zortzi eguzki irau- ten du eta Leku Hil ugari iragan behar dira. Oihaneko Herriek bildur dietek, nik ez. Gau batez sua biztu nuen Leku Hil baten alboan, eta biharamon goizean laban on bat aurkitu nuen, herdoildu samarra, etxe hilaren barruan. Hori guti izan zen gero agituko zenaren aldean, baina ene bihotza handitu egin zen. Ehiza xerkatzen nuen bakoitzean, ene geziaren au- rrean aurkitzen nuen, eta bi ipisutratu ikusi nituen Oihaneko Herriko ehiztariak eta heurak ez ziren ohartu. Eta orduan jakin nuen ene magia bortitza zela, eta ene bidaia garbia, legeaz kontrakoa izan arren.

Zortzigarren eguzkiaren arratsaldean, ibai zabal baten bazterretara ailegatu nintzen. Egun eta erdi lehenago utzia nuen jainkoen bidea: iagoitik ez ditugu jainkoen bideak erabiltzen harri bloke handitan gainbehera erortzen dire- lako, eta lasaiago zeharkatzen da oihana. Hu- rrindik ikusia nuen ura, zuhaitzen artetik, baina zuhaitzak oso zarraturik zeuden. Finean agerru- ne batetara iritsi nintzen labar gainean. Eta han behean zetzan ibai handia, eguzkitan etzani- ko digante bat bezala. Luzea eta zabala da. Guk ezagutzen ditugun ibai guziak berak irentsi ditzake, bere egarria horregatik ase gabe. Izen- datzen dute Ou-dis-sun, Sakratua, Luzea. Gure tribuko inork ez zuen ordura arte ikusia, ezta aitak ere, sazerdoteak. Miresgarria zen, eta berriro ere otoitz egin nuen.

Gero begiak altzatu nituen hegoalderantza soegiteko. Han zegoen Jainkoen Lekua.

Zelan adierazi zeren antza zuen: zuek ez dakizue. Han zegoen, argitasun gorritaren azpian, handiegia etxe saldo bat izateko. Han zegoen, argi gorritz estalia, boteretsua eta hondamenean. Igarri nuen guti barru jainkoek ikusiko nindutela. Ene begiak eskuez estali eta oihanera itzuli nintzen.

Dudarik gabe ausartzia soberazkoa zen hori, gainbizitzeko. Dudarik gabe aski zen gaua labarrean iragaitea. Oihaneko Herriko gizonak ere ez dira horra hurreratzen. Halabaina, gaua iraganala, konprenitu nuen ibaia zeharkatu behar nuela eta jainkoen lekuetan ibili behar nintzela, jainkoek irentsiko banindute ere. Ene magiak ez zuen gehiago indarrik, su bat ikusi nuen. Eguzkia ihalgitzean, pentsatu nuen: "Ene bidaia garbia izan da. Orain etxera itzuliko naiz". Baina pentsatzen nuen unean bertan konprenitu nuen ezin nuela hori egin. Jainkoen lekura joaten banitz hil eginen nintzen dudarik gabe, baina joanen ez banitz gehiago sekula ere ez nintzen ene gogoarekin ados geratuko. Sarzedotea, sazerdote semea izanez gero, hobe da bizia galtzea, gogoa galtzea baino.

Halaere, ene begiek malkoak isuritzen zituzten almadia eginala. Oihaneko Gizonek eraso ez gero, ia burrukarik gabe hilgo ninduten, baina ez ziren hurbildu. Almadia eraiki nuen, hilen otoitzak esan nituen, eta ene burua heriotzerako pindatu nuen. Ene bihotza apoa bezain hotza zegoen eta ene belaunak ura bezain lokak, baina ene burumuinean bizturiko suak ez zidan atsedetik ematen. Untzia uretaratzean ene heriotzaren kantua abestu nuen. Eskubidea nuen, eta ederra zen kantua:

Ni naiz Joan, Joanen semea. Gure herria Muinoetako Herria da.

Han geratu dira gizasemeak.

Ni Leku Hiletara noa, eta ez naute akabatzen.

Nik Leku Hiletan biltzen dut metala, eta ez naiz suntsitua.

Jainkoen bideak ibiltzen ditut, bildurrik gabe.

Ei-ab! Pantera bil dut, oreinkumea bil dut!

Ei-ab! Ibai zabalera iritsi naiz. Beste gizasemerik ez da lehenago iritsi.

Debekaturik dago sortaldera joatea: ni sortaldera noa.

Debekaturik dago ibaia zeharkatzea: ibaian nago.

Irekt itzazue zuen bihotzak, oi izpirtuok, eta entzun ezazue ene kantua.

Orain jainkoen lekura noa, ez naiz itzuliko.

Ene gorputza heriotzerako pindatu dut, ene haragia abula da,

Ene bihotza handia da jainkoen lekura noalarik.

Baina Jainkoen Lekura iritsi nintzenean bildurak hartu ninduen. Ibai handiaren korrontea oso bortitza zen eta ene almadia oratu zuen. Hori magia da, ibaia berez zabala eta barea delako. Goiz argitsuan, ene inguruan izpiritu zitalak senditzen nituen; beren arnasa ene garondoan senditzen nuen, korrontean behera eramana nintzelarik. Egundo ere ez naiz egon hain bakarrik; ene jakiturian pentsatu nuen, eta urtxintxa batek bildutako negu ezkur pilo bat iruditu zitzaidan jakituria. Ene jakituriak iada ez zuen indarrik, tipia eta biluzia senditu nintzen oskoletik sortu berria den xorinoa bezala, ibai handian bakar bakarrik, jainkoen mirabe.

Baina gero ene begiak ireki ziren eta ikusi nuen. Ibaiaren bazter biak ikusi nituen, ohartu nintzen behiala jainkoen bideak bazter batetik bestera iragaiten zirela, orain bideok aihenbelar hautsiak legeztaturik eta eroririk zeuden arren. Handiak ziren, eta miresgarriak, eta hautsiak: Sute Handiaren garaian hautsiak, zerutik sua erori zenean. Eta korrontek geroago eta hurreratzenean ninduen Jainkoen Lekura, eta hondamendi erraldoiak altzatzen ziren ene begien aurrean.

Nik ez ditut ibaiaren ohiturak ezagutzen, ni Muinoetako Herrikoa naiz. Almadia ene pertikarekin gidatzen entseiatu nintzen, baina almaidak birak ematen zituen. Uste ukan nuen



ibaiak Jainkoen Lekua baino harantzago eramani nahi ninduela, elezaharretako Ur Garratzerantz. Orduan sutan jarri nintzen eta ene bihotza indartu zen. Errime esan nuen:

—Sazerdotea naiz, sazerdote semea!

Jainkoek entzun zidaten: jainkoek irakatsi zidaten pertika almadiaren bazter batetik erabiltzen. Korrontea aldatu egin zen. Jainkoen Lekura hurbildu nintzen.

Oso hurbil nengoela almadiak behean jo zuen, eta irauli zen. Gure lakuetan ikasia nuen igeri egiten. Bazterrerraino igerian joan nintzen. Metalezko mutur herdoildu bat sartzen zen ibaira, gainera igo eta han egon nintzen eserita, arnas hestuka. Salbatua nuen arkua, eta bi gezi, eta Leku Hilean aurkitu nuen labana, baina deusere ez gehiago. Ene almadia korronteko zirimoletan behera zihoan, Ur Garratzerantz. Nik behatzen nuen pentsatuaz eta enbor haien azpian ito izan banintz iada hilik eta salbo egonen nintzatekeela. Baina ene arkuaren soka lehortu eta egokituala, Jainkoen Lekurantz abiatur nintzen.

Ene oinek zapaltzen zuten lurra beste edozein lurren antzerakoa zen. Ez da egia elezabar

batzuk diotena, leku horretan lurra eternalki erretzen dela. Hantxe egon naizelako dakit. Egia da han hemenka, hondakien artean, Sute Handiaren haztarnak eta lohiuneak ikusten zirela. Baina haztarna zaharrak ziren, lohiune zaharrak. Gure sazerdote batzuk esaten dutena ere ez da egia, behelainoz eta enkantamenduz estaliriko irla dela. Ez. Leku Hil bat da, ezagutzen dugunik eta handiena. Jainkoen bideek gurutzatzen dute nonahi, bideok gehienak arrakalaturik eta hautsirik dauden arren. Eta jainkoen dorre handien hondakinak zabaltzen dira nonahi.

Zelan adierazi ikusi nuena? Emeki emeki nenbilen, arku tentsatua eskuetan, larrua arriskurako gertu. Izpirituen oihuminak, deabruen uhuriak entzuten nituela uste nuen, baina ez nituen aditu. Lehorreratu nintzeneko lekua isila eta eguzkitsua zen; haizeak, eta euriak, eta haziak alde batetik bestera daramatzaten xoriek egina zuten obra: belarra harri hautsiaren arrailduretan hazten zen. Irla ederra da, ez da harritzekoa jainkoek bertan edifikatu izana. Ni jainkoa izandu banintz, nik ere bertan edifikatuko nukeen.

Zelan adierazi ikusi nuena? Dorre guziak ez

dira gainbehera erori, baten bat tente dago, oihaneko zuhaitz handi bat legez, eta xoriek han ganean egiten dituzte beren habiak. Baina dorreakitsuak dira, jainkoak joanak direlako. Martin arrantzale bat ikusi nuen ibaian arrantzan. Mitxeleta zurien dantza bat ikusi nuen harri eta zutabe erori pilo baten ganean. Hurbildu nintzen eta ingurua begiratu nuen. Ikusi nuen harri landu bat, letra izkribatuekin, erdibiturik. Badakit letrak irakurtzen, baina haik ezin nituen ulertu. Hauk ziren: UBTREAS. Gizon edo jainko baten irudi zatikatua ere aurkitu nuen. Harri zurian tailaturik zegoen, eta adatsa garondan bildurik zuen, andereek bezala. Harri zati batetan irakurri nuen bere izena: ASHING. Zuhurra iruditu zitzaidan ASHING aurrean otoitz egitea, jainko hori ezagutzen ez dudan arren.

Zelan adierazi ikusi nuena? Metalean eta harrian ez zegoen giza usainik. Zuhaitzik ere ez zen asko harrizko basmortu haretan hazten. Halabaina uso ugari dago, dorreetan habia eginik: jainkoek maite zituzten, edo agian sakrifizioetan oferendatzen zituzten. Basakatuak daude, begi berdekoak, jainkoen bideetan noragabetzen dira, eta ez diote gizonari bildurrik. Gauzez demonioak legez kexatzen dira, baina ez dira demonioak. Zakur desleialak arriskutsuagoak dira, ehizara oraldetan irtetzen direlako, baina beranduago baino ez nituen kausitu. Harri landuak daude nonahi, hitz eta numero magikoz izkribatuak.

Ifarralderantza joan nintzen, ezkutatu gabe. Jainko batek edo deabru batek ikusiko banindu, orduan hilgo nintzen, baina bitartean ez nuen bildurrik. Gizon jakintsua sutan zegoen ene baitan: hainbeste gauza entelegatzen ez nuena... Aldi baten buruan, goseak nengoen. Haragi keta ehizan egin nezakeen, baina ez nuen egin. Ezaguna da jainkoek ez zutela guk legez ehiza egiten: kaxa eta untzi magikoetatik lortzen zuten janaria. Oraindik ere aurkitu ahal dira Leku Hiletan. Behin batez, artean haurra eta memeloa nintzela, untzi horietako bat ireki

nuen, janaria dastatu eta goxoa iruditu zitzaidan. Baina gure aitak jakin eta gogorki zigortu ninduen, janari hori sarritan heriotza delako. Orain, halaere, debekatua baino harantzago etorria nintzen; dorrerik ederrenetara sartu nintzen jainkoen janariaren bila.

Finean tenplo handi baten hondakinetan aurkitu nuen, ziudadearen barrukaldean. Itzelezko tenploa izana zen, dudarik gabe ezen eta ohartu nintzen, koloreak iada abaildu samar zeuden arren, sabaia gau zohardia bezala izar eta guzi pindaturik zegoela.

Tenploa lurperantza ere zabalik zegoen harpe eta tunel handitan behera. Agian han edukitzen zituzten beren esklaboak gatibaturik. Baina jeisten hasi nintzelarik arratoi xilioak entzun eta gelditu nintzen: arratoiak zikinak dira, eta beren xilioengatik, tribu ugari ziren. Baina hurbilean, hondakin batzuren bihotzean, oraindik ere irekitzen ahal zen ate baten bestaldean aurkitu nituen janariak. Untzietako fruituak jan nituen. Zabore oso goxoa zuten. Edaria ere bazegoen beirazko botilatan: jainkoen edaria bortitza da, lainotu egin zidan burua. Jan eta edan ondoren, harriak legez lo egin nuen, arkua aldamenean.

Esnatu nintzenerako eguzkia sartzen ari zen. Behera begira, bere atzeko zangoetan eseritako zakur bat ikusi nuen. Mihia ahotik zintzilik, irribarrez zirudien. Zakur handia zen, ilaia gris arrekoa, otsoa bezain handia. Jauzi batez jeiki nintzen, oihiu egin, baina bera ez zen mogitu: bertan geratu zen, eta irribarrez zirudien. Hori ez zitzaidan gustatu. Harri bat jaurtitzeko aurkitu nuelarik, berehala apartatu zen harriaren bidetik. Ez zidan bildurrik; ni haragia banintz bezala, soegiten ninduen. Gezi batez garbitu ahal nuen dudarik gabe, baina agian beste batzu ere bazeuden. Gainera, gaua abailtzen ari zen.

Ingurura begiratu nuen. Hurrean jainkoen bide handi eta hondatuetakoa bat iragaiten zen. Ifarralderantza. Ifarralderantza dorreak ez ziren hain garaiak, eta etxe hiletako batzu erorita



DR. FISCHER JÓZSEF KÖNYVE

zeuden arren, beste batzu tente zeuden. Bide haretarantza abiatu nintzen, hondakin pilo handien gainetik, zakurrak segitzen ninduela. Bidera arribatzean ohartu nintzen bere atzetik beste zakur batzu zetozela. Lotan apur bat luzatu banintz lozorroan triskatuko zidaten eztarria. Halaere, bere harrapakinaz zihur ematen zuten, ez ziren presatzen. Etxe hileria sartu nintzenean, sarrera begiraten geratu ziren. Dudarik gabe ehiza zirrargarri bat gozatuko zutela pentsatu zuten. Baina zakurrak ezin du atea ireki eta nik banekien, liburuetatik, jainkoei ez zaiela laket zoruan bizitzea, baizik eta garaian.

Ireki ahal nuen ate bat aurkitu berria nuen, zakurrek erasotzea deliberatu zutenean. Ai, harriturik geratu ziren atea muturren aurrean hertsu nienean! Metal gogorrekoa, ate ona zen. Nik beren marmara ergelak entzun ahal nituen, baina ez nintzen erantzutera geratu. Ilunbetan nengoen; eskailera bat aurkitu eta igon nintzen. Eskailera ugari zegoen, biraka eta biraka harik eta zorabiatu nintzen arte. Goian beste ate bat zegoen; krisketa aurkitu eta sartu nintzen. Ganbara tipi eta luzean nengoen. Alde batera brontzezko ate bat zegoen, ireki ezina, krisketik

ez zuelako. Agian bazen hitz magiko bat atea irekitzeko, baina nik ez nuen hitza ezagutzen. Beste ate batetarantza joan nintzen hormaren bestaldera. Zerraila hautsirik zegoen. Atea ireki eta sartu nintzen.

Barruan aberastasun handiko lekua kausitu nuen. Han bizi izandako jainkoa jainko botere-tsua izan bide zen. Lehen gela salaurre tipia zen. Une batzutan gelditu egin nintzen lekuko izpirituei baketan nentorrela esateko, ez nentorrela lapur legez. Entzun zidatela iruditu zitzaizkidan, aurrera segitu nuen. Hara, zer aberastasunak! Izana zen bezala zegoen dena, eta leihoak ere guti zeuden hautsirik. Ziudaderantz ematen zuten leiho handiak osorik zeuden, nahiz eta urte askotako hautsez eta zikinez estalirik. Zoruetan tapizak zeuden, beren koloreak ez zeuden amataturik, eta aulkiak lehunak eta bigunak ziren. Hormetan kuadroak ikusi nituen, oso arraro eta miresgarriak. Oroitzen dut bat, lore xorta bat untzi batetan, hori zen irudia: bertara hurbilduez gero ez ziren kolore zatiak besterik ikusten, baina hurrindik begiratuaz gero ematen zuen loreak bezperan ebakiak zirela. Zerbait harrigarri senditu nuen bihotzean kuadro hori soegitean eta mahai gainean buztin

gogorrez modelaturiko xoriaren irudia ikustean, gure xorien guziz antzerakoa bait zen. Nonahi zeuden liburuak eta izkribuak, nik ezagutzen ez nituen mintzairatan gehienak. Leku hau habitatu zuen jainkoa zuhurra eta jakintsua bide zen. Nik han egoteko eskubidea nuela senditu nuen, nik ere jakituria bilatzen nuelako.

Halaere, arraroa zen. Garbitoki bat zegoen, baina ez zegoen urik. Agian jainkoek aidez garbitzen zuten. Janaria prestatzeko leku bat zegoen, baina ez zegoen egurrik, eta janaria egosteko ikusi nuen arren, ez nuen sua bizteko lekurik aurkitu. Kandelarik eta kriseilurik ere ez: kriseilu antzerako gauzak bazeuden, baina metxarik eta oliorik gabe. Gauzok guziak magikoak ziren. Halaere, nik ukitu nituen eta ez nuen bizia galdu. Beren magia galdua zuten. Esate baterako, garbitokian bazegoen gauza bat "beroa" esaten zuena, eta ukitzean ez zen beroa; beste gauza batek "hotza" esaten zuen, eta ez zen hotza. Hori magia bortitzen bat izan bide zen, baina magia desagertua zen. Ez dut ondo konprenitzen. Heurek bazituzten sekretuak. Ainitza ezagutu!

Jainkoen etxe hura itogarria, lehorra eta hautseztatua zen. Magia desagertua zela esan dut, baina ez da egia: gauza magikoetatik desagertua zen, ez leku haretatik. Inguratzen ninduten izpirituak senditu nituen, astunak ziren ene baitan. Sekula ere ez nuen lo egin Leku Hil batetan, baina gau honetan bertan lo egin beharra nuen. Pentsatu eta mihia lehortu zitzaidan eztarrian, jakituria desirak nituen arren. Ia irten nintzen zakurrekin burrukatzera, baina ez nuen egin.

Gela guziak ibiliak nituen guziz ilundu zenean. Orduan ziudade aldera ematen duen sala handira itzuli eta sua biztu nuen. Sua bizteko lekua zegoen eta egurrez beteriko kaxoi bat, baina ez dut uste janaria han prestatzen zutenik. Alfonbra ene inguruan bildu eta suaren alboan lo geratu nintzen. Oso akiturik nengo.

Orain esanen dut zer den magia bortitza. Gauerdian esnatu nintzen. Sua itzalita zegoen; hotza senditu nuen. Ene inguruan abotsak eta murmurioak entzun uste nuen. Begiak hertsu nituen, ea uxatzen nituen. Inork pentsa lezake berriro ere lo geratu nintzela, baina ez dut uste. Izpirituak ene arima gorputzetik ateratzen zidatela senditu nuen, arraina arrantza sokaren buruan ateratzen den bezala.

Zergatik esan gezurrik? Sazerdotea naiz, sazerdote semea. Gugandik hurbileko Leku Hiletan izpirituak badaude, eta ba omen daude, zer dela eta ez dira egonen Jainkoen Leku handi haretan? Eta ote dute adierazteko gogorik, hainbeste urteren buruan? Ni arrastatua senditu nintzen arrain harrapatua zurdan bezala. Ene gorputzetik irtena nintzen: ikusten ahal nuen ene gorputz loak hartua su amatatuaren alboan, baina gorputz hori ez nintzen ni. Ni jainkoen ziudadea behatzera arrastatua nintzen.

Ikuskizun miresgarria zen dudarik gabe. Ene gorputzez ez nezakeen ikus, ene gorputza hura ikustearekin hilen litzatekeelako. Nonahi zebiltzan jainkoak, oinez zein karrozatan; zenbaitu ezineko beste jainko, eta beren karrozek kaleak eragozten zituzten. Gaua egun bihurtua zuten beren atseginerako, ez zuten eguzkiarekin lo egiten. Beren joan etorrien zarata ur ugariren zarata zen. Magia zen egin ahal zutena, magia zen egiten zutena.

Beste leiho batetatik soegin nuen eta zubietako soka handiak osorik zeudela eta jainkoen bideak sortalderantza eta sartalderantza hedatzen zirela ikusi nuen. Nekaezinak, jainkoak nekaezinak ziren, ez ziren inoiz gelditzen. Ibaien azpian tunelak zulatzen zituzten, aidean hegatzetse zebiltzan. Tresna ezezagunez obra erraldoiak eraikitzen zituzten. Ez zegoen lurrean xokorik haiengandik libre. Zerbait nahi ukanez gero, bere keta zihoazten munduaren bestalderaino. Eta beti, lanean zein atsedenean, ospakizunetan zein larrua jotzean, ziudade digantearen taupadak beren belarrietan atabalak legez

jotzen zuen, taupadarik taupada, gizonaren bihotzak bezala.

Zoriontsuak ziren? Zer da zoriona jainkoentzat? Handiak ziren, boteretsuak ziren, eskuzabalak ziren, izugarriak ziren. Ikusi nituelarik, beren magia ikusi nuelarik, ni haur tipia senditu nintzen. Iruditu zitzaidan, nahi balute, hilargia zerutik erauzi zezaketela. Jakituriarik jakituria, zientziarik zientzia aurreratzen ikusi nituen. Eta halaere, egiten zuten guzia ez zegoen ondo eginik —neu ere ohartzen ahal nintzen eta, halaere, beren zientzia halabeharrez hazten zen dena bakean utzi arte.

Gero ikusi nuen fatua beren gainera erortzen zela, eta hori hitzez adierazi ahal dena baino izugarriagoa izan zen. Beren ziudadeko kaleetan barrena zebiltzalarik fatua erori zen beren gainera. Ni egona naiz Oihaneko Herrien buruketan eta ikusiak ditut gizonak hiltzen. Baina hau desberdina zen. Jainkoak jainkoekin burrukatzen direnean, guk ezagutzen ez ditugun harmak erabiltzen dituzte. Zerutik erortzen zen su moduko bat zen, eta dena pozointzen zuen behelaino moduko bat. Suntsiduraren eta Sute handiaren haroa izan zen. Xinaurrien antzera zebiltzan arineketan beren ziudadearen kaleetan... Jainko gaisoak, jainko gaisoak! Gero dorreak erortzen hasi ziren. Gutxi batzuk egin zuten ihes. Bai, gutxi batzuk. Hala diote elezaharrek. Baina ziudadea Leku Hil bihurtu eta gero ere pozoinak luzaroan iraun zuen lurrian. Nik ikusi nuen agitzen, nik ikusi nituen azken jainkoak hiltzen. Ziudade suntsitua ilunbetan geratu zen, eta ni negarrez hasi nintzen.

Guzi hori ikusi nuen. Kondatzen dudana legez ikusi nuen, nahiz eta ez ene gorputzez. Esnatu nintzelarik, goizean, goseak nengoen, baina gogora heldu zitzaidana ez zen gosea, bihotza nahasirik eta harriturik nuelako. Orain banekien zergatik ziren Leku Hilak, baina ez nekien zergatik gertatu zen guzi hura. Ezinezkoa iruditzen zitzaidan hura agitzea, jainkoek zuten magia guziarekin. Erantzun baten bila

ibili nintzen etxean. Hainbeste gauza zegoen bertan nik konprenitu ezin nuena, ni sazerdote naizen eta gure aita sazerdotea izan zen arren. Ibai handi baten bazterrean, gauez, eta bidea ikusteko argirik gabe egotea bezalakoa zen.

Orduan ikusi nuen jainko hila. Bere aulkian eserita zegoen, leihoaren alboan, lehenago sartu ez nintzen gela batetan, eta lehen unean bizirik zegoela uste ukan nuen. Gero bere eskuaren larrua ikusi nuen: larru lehortua ematen zuen. Gela zarraturik, lehor eta bero zegoen. Horregatik kontserbatu zen horrela dudarik gabe. Hasieran hurbiltzeko bildurra eduki nuen, gero izuak utzi ninduen. Eserita zegoen, begirada ziudadean iltzaturik. Jainko erropak zituen jantzirik. Ez zen ez gaztea ez zaharra, nik ez nukeen bere adina kalkulatzeko jakinen. Baina bere aurpegian bazegoen jakituria, eta bazegoen tristura handi bat. Argi zegoen bera ez zela ihes egiten entseiatu. Leiho parean eseria zen, bere ziudadearen heriotza soegiteko; gero bera ere hila zen. Baina hobe da bizitza galtzea, ezen ez gogoa, eta zihurra zen, bere aurpegiaren arauera, bere gogoa ez zela galdua. Konprenitu nuen nik ukituez gero bera dena hautsez birrindurik eroriko zela, eta halaere bere aurpegian bazen halako zeozer konkistatu gabea.

Hau da ene historiaren amaiera, orduantxe jakin bait nuen hura gizasemea zela: ohartu nintzen ziudadeko biztanleak ez zirela izan ez jainkoak ez deabruak, baizik eta gizonak. Handia da gero jakiteko, zaila kondatzeko eta sinesteko. Giza jendea ziren: bide iluna ibilia zuten, baina giza jendea ziren. Harrezkero ez nuen bildurrik izan: ez nuen bildurrik eduki gure sorterrira itzultzean, zakur desleialekin bi aldiz burrukatu nintzen arren eta behin Oihaneko Gizonen bi egunez oldartu ninduten arren. Gure aita berriro ikusi nuelarik, otoitz egin nuen, eta purifikatua izan nintzen. Berak ezpainak eta bularra ukitu zizkidan, eta esan zuen:

—Abiatu zinenean haurra zinen. Orain gizonburu eta sazerdotea eginik itzuli zara.

—Aita —erantzun nuen—, gizonak ziren! Jainkoen Lekuan egon naiz, ikusi dut! Orain hil nazazu, legea hala bada, baina halaere gizonak ziren.

Berak bi begiez soegin ninduen.

—Legea ez da beti bera —esan zuen—. Zuk egin duzuna egin duzu. Ene egunetan nik ez nukeen eginen, baina zu ene ondoren ailegatu zara. Mintza zaitez!

Ene historia kondatu nuen, eta berak entzun zuen. Gero gure jendeari kondatu nahi nion, baina berak ezetz esan zidan. Honela esan zidan:

—Egia, ehizatzeko zaila den orein bat da. Batbatean egia sobera janez gero, egiaz aseturik hil zaitezke. Gure aiten aitek arrazoiren bategatik debekatu zituzten Leku Hilak.

Arrazoa zuen: hobe da egia apurka apurka iristen bazaigu. Nik ikasi dut, sazerdotea naize-

lako. Antigualeko denboretan agian gizonak egia presatuegi irentsi zuten.

Halabaina, hastapenean gaude. Iadanik ez goaz Leku Hiletara metal bila soilik, Liburuak eta izkribuak ere xerkatzen ditugu. Ikasteko zailak dira. Eta tresna magikoak hautsirik dau-de. Baina behatzen ditugu eta miresten ditugu. Hasi gaitezke. Eta ni Sazerdote Nagusia izanen naizenean, ibai handia zeharkatuko dugu. Jainkoen Lekura —NEWYORK lekura— joanen gara eta ez gara gizon bakar bat izanen, ugari izanen gara. Jainkoen irudiak bilatuko ditugu eta ASHING jainkoa eta beste jainkoak —LINCOLN eta BILTMORE eta MOISES— aurkituko ditugu. Baina gizonak izan ziren ziudadearen eraikitzaileak, ez jainkoak ez deabruak. Gizonak izan ziren. Gizon hilaren aurpegia oroitzen dut. Gizonak izan ziren hemen gu baino lehenago izan zirenak. Guk berriro eraiki beharra dugu.



POEMAK

7

POETA



IÑIGO
ARANBARRI

Piamontekoak

KARLOS
SANTISTEBAN

Maitasun elorria

ARANTXA
URRETABIZKAIA

*Ortzadarra
autopistan*

FELIPE
JUARISTI

*Sweet surrender
errendizioa*

JOXE
ERZIBENGOA

Heiagora

JOSE LUIS
OTAMENDI

Lau poema

AMAIA
ITURBIDE

Kantu Liraina



IÑIGO
ARANBARRI

PIAMONTEKOAK

DISTIRATSUA urkia atarian: Sutan
Zen zure adatsa lanbrotan.
Azken erle urdinak bildu eta
Torinoko trenaren iragan urruntasunean.
Argia da itzalen arimak gordetzen
Ohantze zaharretako gorrotoak barkatzen dituen

Irailetara doan trenaren bailitzan.
Oroimina sasi artean ezkutatu
Eta zozo erdi bat ehizatu zuen.
Hegal azul batek gintuen estali arrastirian.

LEIHOTIK begira nago: Kea dario
Jardinari.
Gauaz, arnas ilunak
Fruitu urduriz elikaturiko izarak
Jeloskor estaltzen dituelarik
Irrifarre bat dago zure kopan.
Arrotz bilakatu nau udazkenak.

Gorputz biluziak gogoraerazten dituzten zelaiak daude
Zelai akitu eta nagiak non
Heriotza imajina dezakegun ziudade batetan
Eta euritan apika egunero. Egunero.
Haur batek eskutua du kausitzen gereziondoaren pean
Lainoak agudo doaz.
Zein ote da gerlaria hil zeneko ziudadearen izena?
Zenbat espata ote dago oraindik hango horbeletan
Pentsioetako maitaleen errailetan ezkutuan
Harri beltz zelatarien legez
Hegazti ikaratuen hegoa seinalatzen?

Karlos
Santisteban
Zenbait poema

MAITASUN ELORRIA

Ez zuen inork erreparatu
zure ahoko herenilean
loratzen zen mizpirondoaz,
ez zekiten grafitozko hortzetan
maitasunaren eskuak
destaina zizelkatu zutela
marfilezko freskotasunean.

Basakatu batek
zure soan atzaparka
inarrosten ditu mosu furtiboak,
mihi jeloskorrak
xurgatzen die mahatsei
errubizko ardo
malko upeletan ondua.

HAURTZAROKO AMETSAK

*Goiztiriko haizeskak neure haurtzaroko
poztuneen usaina eta oroitzapena dakarzkil.
Aintzatnatze hori nire artmako atsekabearen
senda-gantzugarri izan dadila.*

Khawja Shamsuddin
Mohammed (Hafiz)
XIV. mendea

LURBIRAREN lekorean gelditu nintzen
eremutarren gisara
bakardadez atonduriko melodraman,
ametsezko porlanez eraikitako
desgaraiko gurari hutsalei begira.

Zenbat hegada milinga!

Ederretsi nuen gizateriak
gaitzitu zidan barru ezia
gaztaroko idealismoaren zantzuz
berpiztu nintzen gogo berriz.

Zenbat izankizun nerabe!

Oroitzapenez oroitzapen ehundu nuen
oroitoihalean aspaldiko hariz
ilusio ahanzko bat
denboraren nahasgarri.

Zenbat haur amets heldu!

GAU HARTAN

Gau hartan
udak beltzarandu zizun bizkarrean
ilargiak bere kandela ezarri zuen
eta zure aurpegian
argiaren adar luzeek
ezin disimulatuzko sentipenak zirriborratu
zituzten;
zure bizkar beltzaranduan
fereka more batek
jirofleien kilikak
topazioaren dizdirak
plazerra agurtu zuten
gau hartan.

HITZEN BEIRA

ZOHARDIAN izarrek
diamantez urratzen dute
gauaren beira urdina;
zu, Eguzki,
zu, Eguzki,
egunsentian argi irriño mehe
izarrak lokartzeko sehaska kanta.

ARANTXA URRETABIZKAIA

ORTZADARRA AUTOPISTAN

ORTZADARRAREN AZPITIK
PASA NAIZ
ZURE ETXERA KO BIDEAN

Irratia pizturik neraman
eta haren magalean
baretu ditut pentsakizunak
batez ere doinu egokia
aurkitzen nuenean.

Horrela heldu naiz
autopistaren sarrerara
aukeratu egin behar nuen,
dirua edo denbora.

Barkatuko didazu
oraingo honetan
zeruari kaso egin badiot
ortzadarra autopistaren gainean zegoelako.

ORTZADARRAREN AZPITIK
PASA NAIZ
ZURE ETXERA KO BIDEAN

Justu orduan
munduaren alde honetan
euria hasi du,
tanta lodiak bota ditu.

Pentsa zitekeen
ortzadarraren beste aldean
eguzkia izango zela nagusi
gauero ikusiko zela ilargi betea
autopistaren errebueltan
espazioko pelikulatan bezala.

ORTZADARRAREN AZPITIK
PASA NAIZ
ZURE ETXERA KO BIDEAN

Irratiak gustoko musika eskaintzen dizunean
aurkitzen diezu
paisaje egokia
ilargi beteari eta ortzadarrari autopistan.

FELIPE JUARISTI

SWEET SURRENDER ERRENDIZIOA

BEHE lainoa zeruaren begietan.
 Hodeiak mozzorrotzen dira beltzez.
 Hiletetara doazen emakumeen antzu.
 Elurra egingo duela diote zentzumenek,
 iazkotuak dagoeneko, erreuma eta hezueriaz minez,
 gorputza, galeoi aspaldiko baten kaskaroia.
 Ez dute lorerik sasoi honetan plazako ezkiek.
 Begiratzen ditu leihoko kortina bordatuen atzetik,
 haien forma monotono eta zehatzak, biluziak,
 horirik gabe, negu eta tristeziara eginak.
 Beste kolore bat burura dakarren margo otzan hori.
 Beren burua estraineko eguzkiari eskeiniz.
 Suge gorriaren moduan:
 geldi eta zabarra.
 Bakardade haizea bezala mendebaldetik
 datozen trenen haiduru.

Geriza gorriak, egutera abaildutako arboletatik.
 Horrela erortzen ari, ezari-ezarian ari txintak.
 Oraindik goizegi garretan zabal daitezen.
 Urtaro aurreratua, mendi gainak txuriz okiturik.
 Katu ixilkaria ardatzean dago.
 Ernagabeko negua. Gogorik eza.
 Poliki-poliki jazten ditu mahonezko prakak,
 lihozko atorra, larruzko sandaliak,
 igandetako jaka, klabin eihartua ojalean, sonbrerua,
 mugimendu mantso etengabetan.
 Behatz nagiez lastantzen ditu ohe-gaina, izarak,
 ametsen mundu kiribildu agortua,
 behatz nagiez estaltzen gaueko hondarrak.
 Ateratzen da igandero bezala.

Berrogeitamar urtetatik hona.

Harrizko bankuak daude ezkien magalean.
 Goroldioak zikintzen ez dituenak.
 Labain eta urrunak iragaiten dira elizkoi geldoak,
 ezkutatutako eliza batetik jaurtiriko ezkilotsak.

Berarekin eseritzen dira beste bi lagunak;
 bero bila diren hiru sugelingera,
 pipa zaharra izekiz.
 Hotzaren hatsa eta berena nahastuz
 espazio fresko eta irekian.
 Ez dira mogituko.
 Denbora da beraien baitan paseari.
 Lurra jo zuten behin batez
 sirena batek zorabiaturik:
 ilaia gaztain ikara, ezpain gorriak, azala xuria.
 Begiak marroiak, izenik ez.
 Beraiena izan zen inorena izan gabe.
 Horregatik elkartzen dira igandero.

Berrogeitamar urtetatik hona.

Konkista hura oraindik gogoratzeko.
 Banan-banan erori ziren haren eskuetan,
 leku hartu haren bihotzean.

Orain berrogeitamar urte.

Hirurak batera utzi zituen.
 Horregatik ospatzen dute.
 Eguraldiaz mintzatzen dira.
 Sentitzen dituztela bizkarrezurreko mina, paralisia, ospelak.
 Urtaroa aurreratua. Laster xurituko du hiria.
 Haruntzago, mutilak, soka saltoan jolasten,
 ondo banatutako farolak, damatarako moduan.
 Itzalita, urkatokiak dirudite.
 "Ez pentsa hori" oroimenera dakarkie beste hura,
 logelako sapatik bere edertasuna zintzilikatu zuenekoa.

Orain berrogeitamar urtetatik hona.

Emakumea maite izan zutenean bezala.
 Pipak itzali eta tabako holandarra ahitu arte.
 Farolak piztu dituzte.
 Itsas muturreko argien moduan distiratzean,
 kurloiak itsutzen dira.

Begiak ez dituzte trote askotarako.
Badoaz ondo irabazitako bakardade berenera
hiljantzia bihurtuko zaizkien izara artera
inongo ametsak kiribiltzen ez duen ohera.

Aurreratuta dabilen negu honetan.

JOXE
ERZIBENGOA
OTAEGI

HEIAGORA

EUSKARIAK ifarraldeko
ortzemugetan
zeukaken zetaka ilunean,
—Iratiko oihanean—
belar idorrez eraikitako
kabi borobiletan
jaio, hazi eta txoritu egin dituk
oihaneko sema-alabak.

Txioka ari dituk,
oihu kilikigarriak bortietan,
era guztietako musika duk
noten batasunean
etengabeko sinfonia sortuz,
arrano, putre, belazar,
karnaba, oskilaso eta basoilarrak...
eskenatokian,
hegaldaketa duk ibilgailua
errepide mugagabea,
arin zetozek
kumeen deiaz kezkatu
Irabiako urmaelera,
ur gardenetako ispiluetan
margotzera...
Okabe, Eteneta, Urkulu...
mendien erpinetako urak dituk
zubipeko errekaetoetan
hamaika aldiz besarkatuak.
Mugarrik gabeko zabaltasunean
amorrutaz biziaren oihartzuna
entzun duk,
inuzturiaren ostotsa
txorikumeen mahuma...
Larrialdiak bipildu dizkik
izuaren izuaz
hautsi-mautsiak
Iratiko oihanean.

Amets izugarriak
 akerren zurrumurrak entzun dizkiagu,
 ahantzezinezko
 disko historikoan,
 indar gorrizko notak joan dituk
 hiri sagaratuan...

Lo gozoan zeutzak
 borondate oneko gizakiak
 oroitzapen urrunean,
 maltzurkeriaren kalkulu iraingarriak
 ereindu dizkiate
 adimen baketsuetan, eztitsuetan,
 belaze umeletan...
 Iratiko oihanean.

Egun haietako lokamutsak
 —dunbots nardagarriak—
 burni astunegi bilakatu hituan
 enparantza berriaren
 zuhaitz berdeetan,
 baserritarren azalore freskoetan.

Astelehena huan,
 txikizioa, triskantza, sarraskia,
 madarikazioa... suntsidura
 saldu zizkiaten
 Gernikako merkatu irekian,
 bego halatsu
 Malagako pintore burusoilak
 margotutako
 puzzle ospetsuan...
 Amets xamurrak
 zimelduak geratu hituan
 Errenderiko zubitxoaren magalean.

Edonon garraisia
 edonora lantua Iratiko oihanean,
 hilkanpaiek sortu ziaten
 zoramena
 karrika estuetako kolpaketa,
 odol gorriaren lasterketa
 zakur amorratuen pausalekua
 oroitzapenaren umilaketa.

Bitartean
 zenbat hieroglifiko ironiko!
 Heinkel burrunbalarien
 helize zemaitsuak, mendekatzaileak...
 jira-biraka jolasean
 triskantzak sortutako
 ifernu gorrian
 herio-zamaren kanposantuan
 amets urdineko lora horailen artean.

Ordoki beltzaranetan
 mitxigu ikaratuen lantu gosetiak
 akitzen joan dituk
 herri sofrituaren bihotzean itotzen,
 askatasunaren hirian hiltzen.

Basondoko kobetan
 amore eman ez diatenen
 barre izutia geratzen duk,
 bolboraz aztoratuak
 esperantzaren bideetara
 ailegatuko dituk,
 geroaren altzo baketsua.
 Sabel umatuetan
 bizitzaren taupadak areagotu dituk,
 nahi kixkalgarrietan
 ixurki berriak ber-aurkitu dizkiate.

Itsasoko sabel urdinean
 eguzki berriaren errainuak
 piztu dizkik
 hiri zahar eta berriaren zirrikituetatik
 haize freskoa irentsi diate,
 Mundakako itsasadarretik zetoze
 hautsi gabeko
 uhain apartsuak,
 bide berrietarako oihaneko argia
 aitaren etxerako amasketa sakona...
 —Iratiko Oihanean—

IKASTEKO nago oraindik zure desiota
gaua iragazten
eta ehun poema eskainiagatik
biharko egunak harrapatuko nau
nik uste

etsipenarekin topo eginez
eztarri zuloan gora datorkit
tristezia betez sagu bat
herri honetako azken bolondres
etxeoandre ohien odolbatu beltzak
urratzen
kaskillo huts batzu bihotzak gorde

hogeitaka urtetan ukituko zaitut
suabe
nola ekia hilek
mozkorren begiak ardotan
loteria zenbaki higatuak
sarigabe

aizu
pozik zaudenean salatzen zaituzte hodeiek
plazatik honuntza berriro besarkatzen benauzu
hobe

BUCARESTEKO aireportuan soldaduak higatzen ilun
 poema hilak plater beltzak dira gosea ase ezin duten marinelengan
 goaz
 goaz nora ez dakigula ere goaz
 gehienez hil eginen gara
 begi zuringotan karizia hotzak
 labana gogo zorrotza

poeta gazte anitzek Dylan dik gaur desio
 galburu erreei kantatzen ta puta segailei
 kale zokoetan iazko udazkena txatxarrar janda dago
 ta hire bihotza or-sagarra ardi amorratuei bota
 erloju matxuratua irudituko du gauak
 egiok beldurrari koska

ukitu gabeko sexuez behar nauk damu
 aingeru eroriekin bat egin
 hire uzkitik "neguko jauregia" sartu
 hire tristezira tropa guztiekin iritsi
 ta borroka irabazteko
 hilotzek zerraldotan eguzkia hartzen diate

PASAIA 1.984

(Kurro, Pelitxo, Txapas, Pelu)

BAGENEKIEN aspaldi
muinoak hodeiez maitemin zitezkeena distantziekin jolasean
begi klispatze bat
logikarik ez elkar kolpatu soak
gazte gorputz gurenak lurrera doaz saihetsetan izar hotzak
harkaitzei buruz boga
odol tolareak

badakigu
oroitzak fardelean gauero ematen gaua
batzutan lo
esna
hainbatetan hilik edo
bide aski luzerik ez dena esperantzaraino malkoak iztapetik behera
bizkor datozela enarak
begizuloetan kabi egitera
beldurraren kantoietan
plazerrez ere hiltzen da urdea

jakinen dugu aurki
zohargia
inor salatzeko herabe dea
hilotz beti egin berritan
zelan estrenatu zen udaberria
biharamuna eraman ezin
"policia asesina
asesina
asesina"
zergatik zegien poto mareak

AMAIA ITURBIDE

KANTU LIRAINA

EZAGUNA dut
kantu bat
bularreko matazaren hariari
obedituz
askatzen joaten dena
dedalo zahar
berrituaren oihartzunetan,
eraztunez eraztun
hedatuz gero
gorpuzten dena
zuhaitz
begi betean,
aroz aroko
legepean
goldaketan ari diren
sustraietatik
euskal zeru
zabal-laiaturantz
zuzentzen diren
ezpata
abarretan,
lur-zainetatik
aire-biderantz
lerratuz doan
esku
aske batean

ITZULPENAK

POEMA

2

POETAK





EDGAR
ALLAN POE

Ulalume

WALT
WHITMAN

Ene buruaren kantua



Itzultzailea:
MIGEL ANJEL UNANUA

Itzultzailea:
MAITE GONZALEZ ESNAL

EDGAR ALLAN POE

Itzultzailea:
Migel Anjel
Unanua

ULALUME

*THE skies they were ashen and sober:
The leaves they were crisped and sere—
The leaves they were withering and sere;
It was night in the lonesome October
Of my most immemorial year,
It was hard by the dim lake of Auber,
In the misty mid region of Weir—
It was down by the dank tarn of Auber,
In the ghoul-haunted woodland of Weir.*

*Here once, though an alley Titanic,
Of cypress, I roamed with my Soul—
Of cypress, with Psyche, my Soul.
These were days when my heart was volcanic
As the scoriac rivers that roll—
As the lavas that restlessly roll
Their sulphurous currents down Yaanek
In the ultimate climes of the pole—
That groan as they roll down Mount Yaanek
In the realms of the boreal pole.*

*Our talk had been serious and sober,
But our thoughts they were palsied and sere—
Our memories were treacherous and sere—
For we knew not the month was October,
And we marked not the night of the year—
(Ah, night of all nights in the year!)
We noted not the dim lake of Auber—
(Though once we had journeyed down here)—
Remembered not the dank tarn of Auber,
Nor the ghoul-haunted woodland of Weir.*

ULALUME

ZERUAK goibel eta hauster ziran:
 Hostoak ihar eta idor,
 Hostoak ikol eta idor;
 Gauaroa zen Urri bakan hartan
 Ene urte oroitezgarrienean,
 Aubergo laku ilundik oso hur,
 Weirgo ert lurralde lainotsuan...
 Aubergo urmael umeldik hur,
 Odol-xurgaleen baso eremuan.

Hemen, Titan nekost joairan zehar,
 Behin, egina naiz ibilera
 Psike nire Arimaz batera,
 Bihotza artean su eta gar: ...
 Ibaia zen mendian behera
 Harri erreka gorria bezela:
 Sulfur zira Yaanek aldapakar,
 (Eguraldiak hotz zuen aiherra...)
 Kexuz Yaanek mendian behera
 Boreas muturra beltza gure Ipar.

Neurriko baina goibel gure hitzak,
 Burutapenak baratza eta idor...
 Memoramenak etoile ta idor: ...
 Ezjakin bait ginan Urri ekintzaz...
 Ez genuen ohartu zein gau zen
 (Ah, urteko gauretarik gaua zen!)
 Ez eta Aubergoan geundela ere
 (Behin bertan ibiliak ginen arren)
 Ez genuen Aubergo urloa oroitzen,
 Odol-xurgaleen Weir basoa ère ez.

*And now, as the night was senescent
 And star-dials pointed to morn—
 As the star-dials hinted of morn—
 At the end of our path a liquescent
 And nebulous lustre was born,
 Out of which a miraculous crescent
 Arose with a duplicate horn—
 Astarte's bediamonded crescent
 Distinct with its duplicate horn.*

*And I said—«She is warmer than Dian:
 She rolls through an ether of sighs—
 She revels in a region of sighs:
 She has seen that the tears are not dry on
 These cheeks, where the worm never dies
 And has come past the stars of the Lion
 To point us the path to the skies—
 To the Lethean peace of the skies—
 Come up, in despite of the Lion,
 To shine on us with her bright eyes—
 Come up through the lair of the Lion,
 With love in her luminous eyes.»*

*But Psyche, uplifting her finger,
 Said—«Sadly this star I mistrust—
 Her pallor I strangely mistrust:—
 Oh, hasten!—oh, let us not linger!
 Oh, fly!—let us fly!—for we must.»
 In terror she spoke, letting sink her
 Wings until they trailed in the dust—
 In agony sobbed, letting sink her
 Plumes till they trailed in the dust—
 Till they sorrowfully trailed in the dust.*

Eta orain, jada zaharkituxe gaua:
 Izar bipilak goiz aztarren...
 Izar bipilak goizlehen...
 Bide buruan ixuri itxurakoa
 Gandu leinurua jaio zen,
 Nondik erne gora mirakulutsuak
 Adar bikoitza jasotzen zuen...
 Astarteren gora diamanteztatua
 Bere adar bikoitzaz nabarmen.

Esan nuen: "Diana baino epelago:
 Zinkurin arnasetan lerra...
 Zinkurin lurretan erra...
 Masaila hauetan ez dela malko
 Xukatzen so -harra beti hor-
 Zaldiaren izarrez honatago
 Zeru harien igertzen dator...
 Zeru Lethear bakeaz baikor...
 Zaldia gorabehera hurbil dago,
 Gu argitzear begi aidor...
 Zaldiaren egoitzaz honatago,
 Eme begi nabarrez maitakor".

Psikek, behatza gora, zioetan:
 "Tamalez ai ene mesfidantza
 Izar hits espantuki honantza...
 Oh, bizkor! Ez entretenen beratan!
 Hegan egin! Beharrean... Goatzan!"
 Beldurrik mintzoa, hegak hautsetan
 Irristan jaulkiaz baratza...
 Larri nigarra, hegatsak hautsetan
 Irristan jaulkiaz baratza...
 Hautsetan sor jaulkiaz baratza.

*I replied—'This is nothing but dreaming:
 Let us on by this tremulous light!
 Let us bathe in this crystalline light!
 Its Sibyllic splendor is beaming
 With Hope and in Beauty to-night.—
 See! it flickers up the sky through the night!
 Ah, we safely may trust to is gleaming,
 And be sure it will lead us aright—
 We safely may trust to a gleaming
 That cannot but guide us aright,
 Since it flickers up to Heaven through the night.'*

*Thus I pacified Psyche and kissed her,
 And tempted her out of her gloom—
 And conquered her scruples and gloom;
 And we passed to the end of the vista,
 But were stopped by the door of a tomb—
 By the door of a legended tomb;
 And I said—'What is written, sweet sister,
 On the door of this legended tomb?'
 She replied—'Ulalume—Ulalume—
 'T is the vault of thy lost Ulalume!'*

*Then my heart it grew ashen and sober
 As the leaves that were crisped and sere—
 As the leaves that were withering and sere,
 And I cried—'It was surely October
 On this very night of last year
 That I brought a dread burden down here—
 That I journeyed—I journeyed dow here—*

*On this night of all nights in the year,
 Ah, what demon has tempted me here?
 Well I know, now, this dim lake of Auber—
 This misty mid region of Weir—
 Well I know, now, this dank tarn of Auber,
 This ghoul-haunted woodland of Weir.'*

"Ametsa baizik ez dun" erantzun nion:

"Argi dardaiz honetan jarrai!

Argi beiraki honetan blai!

Sybiliar erlantzaz nabarion

Itxaropen eta Edertarzun

Ikusi! Gaua zehar hor zerun!

Ah, fida gaitezken argi adinon

Bide onean pausua ernai...

Fido egon gaitezken argi adinon

Bide ona baino ezin zai

Gaua zehar Zerura bait darrai!"

Amondu Psikeri egin nion mun

Eta susmoa uxatu nion,

Susmo garriak uxatu nion

Eta hegiraino iragan ginen...

Hil ate batek geratu zigun,

Hil ate zahar bat zen. Esan nuen:

"Hor idatzirik, arreba, zer dun

Hil ate zahar honen gainen?"

"Ulalume... Ulalume!" erantzun zuen:

"Ulalume hirearen hobia duk."

Eta goibel jarri zitzaidan bihotza

Hosto ihar-idorren antzera...

Hosto ikol-idorren antzera...

Oihu egin nuen: "Urri zen, antza,

Joan urteko gaua hau berbera,

Ezen zama astunaz hona behera

Etorri nintzala... hemen behera...

Urteko gauretarik gaua *hau* bera.

Ah, zein demoniok narritatu nau?

Orain ezagun, Aubergo laku latza,

Weirgo ert lurralde lainotsu hau!

Ongi ezagun ere: urmael hotza

Ta odol-xurgaleen basa eremu hau!"

Walt Withman

Itzultzailea:
Maite
Gonzalez Esnal

*A child said What is the grass? fetching it to me with full hands,
How could I answer the child? I do not know what it is any more than he.*

*I guess it must be the flag of my disposition, out of hopeful green stuff
woven.*

*Or I guess it is the handkerchief of the Lord,
A scented gift and remembrancer designedly dropt,
Bearing the owner's name someway in the corners, that we may see
and remark, and say Whose?*

Or I guess the grass is itself a child, the produce babe of the vegetation.

*Or I guess it is a uniform hieroglyphic,
And it means, Sprouting alike in broad zones and narrow zones,
Growing among black folks as among white,
Kanuck, Tuckahoe, Congressman, Cuff, I give them the same, I receive
them the same.*

And now it seems to me the beautiful uncut hair of graves.

*Tenderly will I use you curling grass,
It may be you transpire from the breasts of young men,
It may be if I had known them I would have loved them,
It may be you are from old people, or from offspring taken soon out of
their mothers' laps,
And here you are the mothers' laps.*

*This grass is very dark to be from the white heads of old mothers,
Darker than the colorless beards of old men,
Dark to come from under the faint red roofs of mouths.*

*O I perceive after all so many uttering tongues,
And I perceive they do not come from the roofs of mouths for nothing.*

*I wish I could translate the hints about the dead young men and women,
And the hints about old men and mothers, and the offspring taken
soon out of their laps.*

Haur batek galdegin zidan: zer da belarra? eskumenka ekarriaz,
Nola nik haurrari erantzun ahal? Neronek ez baidakit.

Susmoa dut *izan behar duela* ene jitearen ikurra, berdearen itxaropenez
harilkatu oihala

Edo Jainkoaren zapia ote den susmoa dut,
Opari usaintsu bat, oroigarri nahita erortzen utzia,
Ertz batean jabearen izena daramana, guk ikus eta antzemanik geure baitari
galdegin diezaiozun, norena ote?

Edo susmoa dut ez ote den belarra bera ume bat, landarediaren ekoizpen
jaio berria.

Edo susmoa dut ez ote den hieroglifiko berdindu bat,
Adierazi nahi duena: berdin eremu zabaletan nola meharretan naiz garatzen,
Gizaki beltz nola zurien artean naiz hazten,
Kanadar, indiar, senatore, etorkin, guztiei diet ematen, halaber guztiak ditut
onartzen.

Eta orain hilobien adats luze eta oparoaren antza diot hartzen.

Xamurkiro erabiliko haunat belar kixkurra,
Agian mutilen bularrengandik haiz ernatua,
Agian, ezagutu izan banitu, maite izan nituzkenan,
Agian jende zaharrengandik haiz jaioa, edo heuren amen altzotik goizegi
erauzitako muskilengandik haiz sortua.
Eta orain heu haiz amaren altzo.

Belar hau ilunegia da ama zaharren buru urdinengandikoa izateko.
Gizon zaharren bizar kolorea baino are ilunagoa.
Iluna ahosabai gorri zurbilengandik etortzeko.

Oi! Izan ere hainbat mintzaira esanguratsu dut antzematen,
Eta jabetzen naiz ez direla ahosabaiengandik alferrik jalgi.

Neska eta mutil hildakoen idarokizunak itzuli gura nituzke
Eta gizon zaharren eta amen idarokizunak, eta beren haurrenak, altzotik
goizegi eraunziak.

*What do you think has become of the young and old men?
And what do you think has become of the women and children?*

*They are alive and well somewhere,
The smallest sprout shows there is really no death,
And if ever there was it led forward life, and does not wait at the end to arrest it,
And ceas'd the moment life appear'd.*

*All goes onward and outward, nothing collapses,
And to die is different from what any one supposed, and luckier.*

*Has any one supposed it lucky to be born?
I hasten to inform him or her it is just as lucky to die, and I know it.*

*I pass death with the dying and birth with the new-wash'd babe, and am not contain'd
between my hat and boots,
And peruse manifold objects, no two alike and every one good,
The earth good and the stars good, and their adjuncts all good.*

*I am not an earth nor an adjunct of an earth,
I am the mate and companion of people, all just as immortal and fathomless as myself,
(They do not know how immortal, but I know.)*

*Every kind for itself and its own, for me mine male and female,
For me those that have been boys and that love women,
For me the man that is proud and feels how it stings to be slighted,
For me the sweet-heart and the old maid, for me mothers and the mothers of mothers,*

*For me lips that have smiled, eyes that have shed tears,
For me children and the begetters of children.*

*Undrape! you are not guilty to me, nor stale nor discarded,
I see through the broadcloth and gingham whether or no,
And am around, tenacious, acquisitive, tireless, and cannot be shaken away.*

Non ote dira gizon zahar eta gazteak?
Eta non ote dira andre eta haurrak?

Nonbaiten daude bizirik eta ongi,
Muskilik mendreenak ere heriorik ez dela digu erakusten,
Eta inoiz izan bazen bizia aintzin eramatearren izan zen, eta ez dago amaieraren
zain geldierazteko.
Eta bizitza sortu-ahala desagertu egin zen.

Oro doa aintzin eta zabalera hedatuz, deus ez da suntsitzen.
Eta herioa zenbaitek uste zuenaren bestelako da, eta zoriontsuagoa.

Otu al zaio inori zorioneko dela jaio izatea?
Banoakio herioa bizitza bezain zorioneko dela esatera, eta badakit zer diodan.

Hiltzear daudenekin nahiz hiltzen eta ume jaioberri garbitu berriarekin
naiz jaiotzen.
Eta ene sonbreiru eta oinetakoen mugak ditut gainditzen.
Anitz objetu dut aztertzen, ez dago bi berdinek eta guztiak dira onak,
Ona lurra eta onak izarrak, eta ona dagokien oro.

Ez naiz lur, ezta lurrari dagokion ezer,
Jendearen lagun eta adiskide naiz; guztiak ni bezain hilezkor eta ulergaitz,
(Ez dakite zenbateraino diren hilezkor, neuk bai ordea)

Moeta bakoitza berearekiko, eta nor berearekiko, niretzat nire ar eta emetasuna.
Enetzat mutilak izan direnak eta emakumeak maite izan dituztenak.
Enetzat gizon fierra eta mexpretxua zein mingarria den dakiena.
Enetzat andregaia eta mutxurdina, niretzat amak eta amen amak.

Enetzat irribarre egin duten ezpainak, malkoak ixuri dituzten begiak.
Eneetzat haurrak eta haur sortzaileak.

Biluz zaitez! enetzat ez zara ez errudun, ez arbuiagarri ez gaitzesgarri.
Ohial beltza nahiz perkalaren zehar dakust, nahi ez duzula ere,
Ez naiz aldendu, temati, eskurakoi eta nekagaitz nauzu, ezingo zara nigandik
askatzen ahalko.

2º CONGRESO DE ESCRITORES EN LINGUA GALEGA

Lugo martxoak 31 - apirilak 1 eta 2, 1989



Martxoaren 31 iluntzean hasi eta apirilaren 2ra arte ospatu zen Lugon Idazle Galegoen Kongresu hau. Gure Elkarteari luzatutako gonbiteari erantzunez bere lekuko izateko aukera izan genuen. Aukera aparta, dastatu ahal izan genuena, Galiziako idazleen egoera ezagutzeko eta geure arteko harremanak gero eta konfidantzazkoagoak bilakatzeko. Beraietako beste bat sentitzeko batere arazorik ez genuen izan.

Ezer nabarmentzekotan Kongresu honetatik Uxio Novoneyraren gerizpea izango litzateke. Bera da Galiziako Elkarlearen Lehen-dakaria eta bera izan da bilera osoko "izarra", han ikusi ahal izan bait ziren lehen aldiz *Os eidos*, Koldo Izagirrek itzuli eta Iruñeako Pamielak argitaratu, poema bildumaren lehen bi aleak. Poza Uxiok eta poza beste guztiek, eta inbidia sana, nahia eta gogo. Somatu nuenez, idazle galegoak, beste guztiek legez, edozein hizkuntzatara itzuliak direnean poztu egiten badira, biderkatu egiten da poz hori itzulpena euskara denean. Euskal Herria miresten dute, lan ugari samar dute gure artean luzitzeko modukoa eta gogorik ez zaie falta. Zeregin horretan murgildu nahiko lukeenak erraztasunik eta lankidetzarik aurkituko luke.

Kongresuan eztabaidatu diren arazoez, batzuek gureen antze-

koak direla esan genezake, idazle eta argitaratzaileen arteko harremanak, lan harremanak, arlo zehatz eta mugatuetakozko hiztegi bereziak, erakundeekiko harremanak eta hauek bultzatzen dituzten kultur politika eta dinamika, etab.

Ez ordea beste batzuek, edo bat, zehatzago esateko. Hau hizkuntzaren normatibizazioarena da. Gure artean, neurri handi batean behintzat, gomendioak obeditu zirelako edo kulturgintzako dinamikan batasuna nagusitu delako edo, ahaztua ez bada ere ia gaingitua jo genezakeen arazoa. "Pola unión" errezatzen zuen lema nagusiak eta egiaz beharrezko dutela batasuna, zeren hizkuntza joerak, agian teoriantzako gehiago praktikan baino, gero eta ugariago eta elkarrengandik urrutiragoko direla somatzen da. Erakundeek ezarritako hizkuntza ereduari alternatiba bat aurkitu nahien ez da arraroa idazle galegoak, bere aukeraren pujan, haserre taraino iristen direla ikustea.

Garbi dagonea zera da, ia idazle gehienek, Kongresu osoan hitz bat ere ez zen entzun alde, bere osoan arbuiatzen dituztela Galiziako Xuntak ezarri nahi duen galego eredu eta hori nagusi bilaka arazteko erabiltzen dituen imutu ekonomiko eta lege jolasak. Kontutan har Galiziako go-

bernuak ez duela diruz laguntzen bere normatiba jarraitzen ez duen liburu eta argitalpenik.

Horren trukeko aukeran nortasun gehiago eta identitate zeinu ugariago dituen hizkuntz aukera, kulturgintzan galego guztiak aglutinatu eta nagusituko litzatekeen beste aukera patxada-tsu eta ekintzailea, portugesearekin bat egitea defendatzen duen beste bat eta erdi aroko galegora itzultzea edo galego zaharra defenditzen duen azken bat izango lirateke lehia horretan bizirik eta nagusi irten nahiko luketenak.

Eztabaida horretan igaro dugu Kongresu hau, mokadu gozo artean eta Lugoko Udaletxera, Mondoñedoko hilerria, Cunqueiro, Fole eta besteren hobietara, Katedralera, etabarretara egindako bisita artean.

Laburraren laburrez ez dakit, bazkide, seguru Galizari buruzko ezertaz jabetzeko ezetz, honek inolako jakin minik pizteko balioko zizun. Nahiko bazenu Elkarlearen egoitzan uzten ditui Kongresu horretako materialeak.

Ramon Etxezarreta



II. NAZIOARTEKO

LITERATUR TOPAKETAK

NARRAZIOGINTZA & KRITIKA

Donostia 1989, Urriak 2 - 4



Baikor, ezkor? Nola agertu behar II. nazioarteko literaturihar-dunaldi hauen aurrean? Gonbaratuz gero duela hiru urte egin zirenekin erkaketak zer emango luke? Balantzean, balantzak nora joko ote? Zein izan dira hutsu-neak, alde txarrak eta zuzendu beharrak?

Galdera zerrenda luza daiteke, baina eten dezagun. Nork gutiago, nork gehiago, uste dut Euskal Idazleen Elkarteak partaideak jarraitu ahal izan zuela komunikabideen medioz jardunaldien martxa, eta nork bere iritzia aterea izango duelakoan nago. Zertarako, bada, hemen ihardun aboro iraganez? Atzera gorrotorik gabe, hotz begiraratzeak on dakigukeelako eta ikasi ere, ikas dezakegukeelako, alde txarretarik.

Elkartekide gutxit parte hartua jardunaldietan litzateke gaitzeta-tik bat. Astegunak zirela eta asti eskasez iragarri izanak baluke hor zerikusirik. Etorri ez zirenei liburuaren argitaratzeak nolazpaiteko, neurri batean bederen, hutsu-neare bete diezaiekela, uste dugu. Halere, beste herrialdeetako idazleekin harreman zuzen eta beroa ezin daitekeelakoan ezerekin trukatuta eta espero dugu hurrengo lhardunaldietan, bai eraketan eta bai beste lanetan partaidea gehiago izango direla.

III. LIBURUAREN

EUROPAKO BATZARREA



Urriak 25, 26 eta 27 zituela egin zen III. Liburuaren Europako Batzarrea Pais Valenciako hiriburuan, gaitzat "Liburuaren Merkato Bakarrari begira". Agintari, liburgile, zabalzaile eta dendari mordoska bildu ginen, handik eta hemendik: sueditarak, holandar-ak, ingelesak, frantsesak, itali-anoak, alemanak, portugesak, eta hain modan dabilen poloniarak eta hungariarrak ere bai, begirale gisa.

Galegoak, katalanak eta us-kaldunak lehenengoz izan gara gonbidatuak aurtan. Euskaldunen aldetik idazleak bakarrik azaldu ginen, administrazioetik ez bide zen inor hurreratu. Hauteskunde kanpainan burubelarri nonbait.

Jardunaldietan zehar aski nabarmendurik gelditu ziren Estraburgon darabiltzaten atzerape-ak eta ilunkeriak: informazioa nekez eta urri dabil, eta liburuak, oro bar, biltzen duen presupostua farregarria da: orokorraren 0,07%, itzulpenerako 200.000 equs (26 miloi pzta...)

Dendariak liburuaren B.E.Z. 0 (hutsa) izan zedila eskatu zuten negar, EEBetako edizio asko saltzen omen da eta Europan ingelesez, eta honetan bat egin zuten espāñolek, portugesez eta frantsesez ere, lasaiago baina.

Idazleetan itzultzaileak daude-la okerrenik frogatu zen berriro. Idazle katalanek, galegoek eta euskaldunok, Elkarteen ordezkari-

rien bitartez, mozio bat aurkeztu genuen: hedadura urriko eta es-tatu gabeko hizkuntzen literatura ezaguteraz dadila Europako hiz-kuntza nagusietan, Europaren Liburutegia deiturikoan sar daite-zela eta sor dadila horretarako behar den diru-fondoa. Onartua izan zen batere aurkagintzarik gabe, eta txaloen artean zurikeria ere somatu genuen maltzur sa-marrak garenok, alegia, galego, katalan edo euskaldunak.

Bi urte barru egingo da IV. Batzarrea, Erroman. (K.I.)

Las Asociaciones de Escritores de los Países Catalanes (Associació d'Escriptors en Llengua Catalana), del País Vasco (Euskal Idazleen Elkar-tea) y Galicia (Asociación de Escritores en Lingua Galega),

PRESENTAN a la consideración de todos los congresistas a la 3ª Conferencia Europea del Libro, "La Europa del libro ante el mercado único", la siguiente propuesta:

SOLICITAR a las Instancias pertinentes la inclusión de todas las literaturas de ámbito restringido, o sin estarlo, en el fondo bibliotecario de la Comunidad Europea.

ASI MISMO pedimos la creación de un fondo económico destinado a la traducción de obras de estas literaturas a todas las lenguas de Europa y su impresión.

Valencia, 25 de Octubre de 1989

Presidente de la Asociación de Escritores en Lingua Galega

UXÍO NOVONEYRA

Presidente de la Asociación de Escritores en Lingua Vasca

PATRICIO URKIZU

Vice-Presidente de l'Associació d'Escriptors en Llengua Catalana

JAUME PEREZ MONTANER

VI. GALEUSCA

SANTIAGON

1989, Azaroak 17-19



Esku artean duzunerako al-dizkaria, ENCONTROS GALEUSCA/89 iraganak izango dira, astergai hauekin hain zuzen: *Idazle eta Boterea*, eta *Nazio Nortasuna & Abangoardia*. Besteen artean Euskal Idazleen Elkartetik joatekoak ditugu:

Zabala, J.L.; Jimenez, E., eta Azurmendi, X. ... Hauen txostenez aparte, gure partetik aurreko Galeusca-n eman hitzaldien liburua prestatu dugu, beraz, ez goaz hutsik. Datorren zenbakian berri gehiago emango dugu han gertatutakoekin eta izaniko eztabaidekin, Ribeiro jauna eta Keimada andereakin konpainia ederrean.



SARIAK

LITERATUR LEHIAKETEN ZERRENDIA

EPEA	ANTOLATZAILEA	HELBIDEA	LUZERA	IDATZ-MOTA	SARIA
MARTXOA Idatz-Mintz (24-III)	Labayru Ikastegia	Aretxabaleta Kal. 1 48010 BILBO	10 or. geh. (3kop.)	Narrazio	100.000
APIRILA HABE (29-IV)	HABE	Reina Regente, 2-1.a 20003 DONOSTIA	46 or. eta azala	Komiki	595.000
MAIATZA Ayudas a la Creación Literaria	Ministerio de Cultura Centro Letras Español	Plaza del Rey, 1 28004 MADRID		Olerkia Elaberria Saiakera Itzulpena	800.000
EKAINA Lasarte-Oria (16-VI)	Lasarte-Oriako Udala	Zumaburu, 9 Lasarte	10 or. geh. (3kop.) 300 bl. (3kop.)	Ipuina Olerkia	100.000 100.000
UTZAILA Lazarillo (15-VII)	OEPLI	Santiago Rusiñol 8 28040 MADRID	35 or. (3kop.)	Haur lit. Gatz. Lit.	500.000
ABUZTUA Koldo Mitxelena (31-VIII)	Errenteriako Udala	Euskara Zerbitzua	50 geh. (4kop.)	euskara, bere inguru sozial, hist. eta ling.	500.000 (bi urtetik behin)
IRAILA Baporea (15-IX)	Santamaria Fundazioa	Txako auzoa 3	30 or. gut. (4kop.)	Haur liburua 1º narratz./elab. 2º	400.000 200.000
IRAILA Apeles Mestres (30-IX)	Edic. Destino	Balmes 4, bajo 08007 Barcelona	48 or. geh. (4kop.)	Haur lit.	500.000
URRIA Bizenta Mogel (31-X)	Azkoitako Kultur etxea	Azkoitako Udala Azkoitia	4/10 or. (3kop.)	Ipuina	50.000
Bordari (31-X)	Hondarrabiko Udala	Hondarrabiko Udala Hondarribia	3/10 or. (3kop.)	Ipuina	80.000

SARIAK

EPEA	ANTOLATZAILEA	HELBIDEA	LUZERA	IDATZ-MOTA	SARIA
Satarka (31-X)	Hondarrabiko Udala	Hondarrabiko Udala Hondarribia	50 bl./150 bl.	Olerkia	80.000
Una palabra otra	Coordinadora de Mujeres	Librería de Mujeres Segundo Izpizua, 9 Donostia	100/400 or. (3.kop.)	Narrazio	400.000
ABENDUA					
Goi-Zubi (30-XII)	Kultur etxea	Tenderia kalea, 17 48005 BILBO	7 or. (3kop.)	Ipuina	75.000
E.H.K.E. (16-XII)	Euskal Herriko Kul. Etx.	2, rue de Malleaile 64100 Baiona	10 or. (3kop.)	Ipuina	3.000 fr.



GAZTEENTZAKO LITERATUR LEHIAKETAK (eta II)


EPEA	ANTOLATZAILEA	HELBIDEA	LUZERA	IDATZ-MOTA	SARIA
URTARRILLA					
29-1	Ondarroako Euskara Batzordea	Ondarroako Udala Ondarroa	2 or.	Ipaina/Idazl.	30.000
Euskerazaintza 15-1	A.K. Munizpila	Getaria, 21 20005 Donostia	40/60 bl.	Olerkia	35.000
MARTXOA					
Uxola 18-III	Tolosako Udala	Tolosako Udala	24 bl.	Olerkia	24.000
APIRILA					
18-IV	Euskara Batzordea	Legazpiko Udala Legazpi		Idazl./Olerki	(Legazpiarra izatea edo bertan bizitzea)
25-IV	Kultur Elkartea	Kultur Elkartea DEBA	2/5 or.	Ipaina/Idazl.	
Lasarte-Oria 25-IV	Lasarteko Udala	Lasarteko Udala Lasarte		Ipaina/Olerk	Kultur materiala
AZKUE 30-IV	Bilbo Aurrezki K.	Gran Via, 23 48001 Bilbo	2/4 or.	Ipaina	Kultur materiala
AZKUE	"	"	4 bl.	Olerkia	Kultur materiala
SATARKA 31.X.	Hondarribiko Udala	Hondarribiko Udala HONDARRIBIA	50/150 bl.	Olerkia	35.000
31.X.	GIPUZKOAKO F. ALDUNDIA	Diputazio	50 or.	Narrazioa	125.000
31.X.	"	"	600 bl.	Olerkia	125.000
ABENDUA					
DONOSTIAKO HISTORIA * 31.XII	DONOST. Udal. Patronatua	Donostiako Liburutegia Konstituzio Plaza z./g		Saiakera/ Komika	300.000

Laburdurak: bl.— Bertso-lerro. Gut. -Guttienez. Geh.-Gehienez * lazko datak

Hegats I

1989ko abenduan Antza-n inprimatu zen.

Argitalpena 750 alekoa da.



IRUDIAK.

Sylvia Wolf-ek buruntako Exlibris en bildumatik
(Bruckmann, München).